Bestalde, 100 bat emanaldi segurtatu zituen Lapurdi irratian, euskaraz eta frantsesez. Herria astekariko bigarren orrialdean, aste guzietz begirada bat ematen zien munduko berriei. Artikulu luze bat idatzi zuen Elizaren eta Estatuaren bereizteak hemen izan zuen eraginaz, *Lankidetzan* aldizkarian. Katixima euskaraz

egitea debekatu zuen legeaz beste artikulua luze bat Eusko Ikaskuntzako *Vasconian*: Estatu frantsesak ez zuen katixima partida, baina katixima euskaraz irakastea; Eliza baino hastialago gure mintzaira.

Euskarak eta Elizak ohoratu dute. Batek, euskaltzain urgazle izendatuz. Besteak, *monseigneur* titulua emanez sotana ubela jaunzteko eskubidearekin, apezpikuek bezala. Aitortu behar dut behin ere ez dudala delako sotana soinean ikusi.

In memoriam

Erramun Baxok Indart (Suhuskune, 1928 - Milafranga, 2024)

—Pantxoa Etxegoin—

Erramun Baxok Indart joan zitzaigun 2024ko ekainaren 3an, 95 urte zituela.

Euskaltzain urgazlea zen 1995az geroz eta Jagon Sailean parte hartu zuen, besteak beste hizkuntza-eskubideez arduratzen zela. 2010ean, ohorezko euskaltzain izendatua izan zen.

Erramun 1928an sortu zen Suhuskunen (Baxenabarre), eta Milafrangan (Lapurdi) bizi zen.

Herriko eskolan ibili ondoan, bigarren mailako ikasketak hainbat ikastetxe eta seminariotan (Afrikako misioak) egin zituen, gerlaren gorabeheren arabera, Tarnosen (Baudonne), Champtoceaux-en (Maine et Loire), edo Nantesen. 1947an bi aldiz lizentziatua izan zelarik, 1948-1949an soldadugora joan zen.

Unibertsitateko ikasketak Lyoneko Institutu Katolikoan egin zituen, eta han, filosofiako lizentzia erdietsi zuen 1953an. 1953tik 1967ra, apaiza eta filosofia-irakaslea izan zen Lyonen, Chamalièresen (Puy-de-Dôme) eta Treichvillen (Boli Kosta).

Renée Samsonekin ezkondu eta 1968tik 1978ra Québecen egon ziren. Beren hiru haurrak han sortu ziren. Orduan, Harlouchet-Mendy eta Charritton-Durruti bikoteekin ibiltzen ziren, eta elkarrekin egoera paralelo batzuen garapena jarraitu zuten: alde batetik, «iraultza lasaia» eta frantsesaren araudi nagusia Québecen, eta beste aldetik, autonomiaren eta euskararen defentsa Euskal Herrian.

Hogei urtez Filosofia eta Psikologia irakasten ari izan zen Quebecoko Victoriavilleko irakaskuntza orokor eta profesionalaren ikastetxean (CEGEP).

Filosofiako doktoregoa egin zuen 1976an pertsonalismoaz Quebecoko Laval Unibertsitatean, eta gero, Soziolinguistikako doktoretza ondoko ikasketak segitu elebitasuna lantzen duen Ikerketen Nazioarteko Zentroan (CIRB).

Baxok familia Euskal Herrira itzuli zen 1978an, baina hamar urtez Erramunek Victoriavilleko CEGEParen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko urteroko joan-etorriak egiten zituen, Euskal Herrian Hizkuntzalaritza Aplikatua irakasten zuelarik 1978tik 1993ra.

Betidanik, Erramun langile isil bezain emankorra izan da. Berak dioen bezala 1995ean egin elkarrizketa batean: «Euskal Herrira itzuli ginelarik, euskarari buruzko nire lehen ekintza 1981eko ihardunaldiak izan ziren. Gauza berria zen elkarte guztiak bildu ginelarik programa bat egiteko, *Statut de la langue et de la culture basques* deitua. Delako «liburu hori» horretan, hamar urte iraun duen egitaraua idatzi genuen. Orduan sortu zen Pizkundea, Jean Haritschelhar buruzagi, ni idazkari». Beraz, Pizkundeko (euskal elkarten federazioa) bulegoko kide izan zen 1984tik 1994ra eta Euskal Konfederaziokoa 1995etik 2015era.

Euskal Herrira itzuliz geroztik, etengabe euskararen eta euskal kulturaren alde bermatu zen. Pizkundea federazioaren baitan, sekulako lanak erabili zituen, euskal kulturaren alde egitura ofizial baten sortzeko, eta funtsean ondorioz, Euskal Kultur Erakundea (EKE) sortu genuen 1990eko urtean. Hamar urtez, EKEko lehendakari egon zen (1995-2005).

Erramun Baxok hizkuntzalariari zor diogu ere *Euskaraz bizi* multimedia metodoa, Ikas elkartean lan egiten zuelarik sortu zuena antzerkilari andana baten partaidetzarekin. Alabaina, 80ko urte haietan, anitz jendeak nahi zuten euskara ikasi eta metodo horren helburu nagusia zen euskaraz aritzea egun guztietako komunikazio-egoeretan, antzerkitxo pasarteak erabiliz, eta hori, orduko era modernoan, irudien bitartez!

Halaber, azken mende laurden honetan eginak izan diren inkesta soziolinguistikoetan aditu gisa parte hartu zuen, eta Frantziako hizkuntza eta kultura gutituen topaketan antolatzaile suharrenetarik izan zen.

Soziolinguista gisa, *Hizkuntzaren antolaketa eskemaren* idazketan aritu zen Garapen Kontseiluan, 1995 eta 2000 urteen artean.

Azkenik, Euskal Kultur Erakundeko eta Euskararen Erakunde Publikoko soziolinguistika-aholkularia zen, eta Euskaltzaindiako euskararen Sustapen Saileko kide aktiboa.

Ikerketa-egitasmoetan beti adi!

Erramun Baxokek soziolinguistika eta euskararen aldeko proiektu askotan parte hartu zuen, beti bere jakinduria aberatsa ekarriz. Ez daitezke hemen aipa kudeatu edo lagundu dituen egitasmo guztiak, baina hona hemen adierazgarrienak:

Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara. Partaideak: Iñaki Martínez de Luna eta Kontxesi Berri-Otxoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Kultur Erakundea.

Euskaldun orok altxa burua: Bi inkesta soziolinguistikoko Garazi eskualdeko kolegioetan (1982, 2002), Jakes Aurnague, Michel Aurnague eta Maia Duguinekin batera.

Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran, 2004 - 2005: 2006an Eusko Ikaskuntzak inkesta horren emaitzak eta hausnarketa txosten batzuk argitaratu zituen. Erramun Baxokekin batera, lantaldean ziren Pantxoa Etxegoin, Terexa Lekunberri, Iñaki Martínez de Luna, Larraitx Mendizabal, Igor Ahedo, Xabier Itzaina eta Roldan Jimeno.

Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian (2010) Erramun Baxok eta Battittu Coyos hizkuntzalariek egin, Euskaltzaindiako Jagon Sailean.

Bibliografia aldetik, ikerketa edo gogoeta testu frango idatzi zituen, horien artean bere filosofia doktoregoko tesia: *La pensée politique d'Emmanuel Mounier: la communauté internationale* (1976), edo oraino soziolinguistikaz hainbat aldizkari zientifikotan (*Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, *Euskera*, *International Journal of the Sociology of Language*, *Jakin*, *Jazten...*).

Aipagarriak dira ere bi ikerketa-lan hauek, non Erramun Baxokek parte hartu zuen beste hizkuntzalari batzuekin batera:

-Bachoc, E. (2000). L'enseignement de la langue basque. In Clairis, C., Costaouec, D. & Coyos, J.-B. (ed.), *Langues et cultures régionales de France: état des lieux, enseignement, politiques* (229.-237. or.). L'Harmattan.

-Azurmendi, M.-J., Baxok, E. & Zabaleta, F. (2001). Reversing Language Shift: The Case of Basque. In Fishman, J.A. *Can Threatened Languages be Saved?* (234.-259. or.). Multilingual Matters.

Erramun Baxok, umiltasunaren miraila

Umila. Hitz hori arras ongi joanki zaio Erramun Baxok bidelagunari, horrelakoa baitzen. Xinaurriaren pare, isil-isila lanean eta lanean. Aldiz, mintzatu behar zelarik, beti hor zen gertakarien araberrako hitz egokien erabiltzeko, diskurtsoa ezinago hobeki arrazoinatuz, eta ikerlarien gogoetetan oinarrituz.

Zenbat aldiz ez ditugu erreferentzia gisa Txepetx, Fishman, Bourhis edo oraino William Mackey bezalakoen izenak Erramunen ahotik entzun, edozein hizkuntza- edo kultura-ekimen behar zelarik sostengatu, batzuetan arraileria apur batekin!

Baina soziolinguistikarako jakinduriarekin batera, Erramun Baxokek gogoetari lotzen zituen egunero euskararen eta euskal kulturaren hazteko egiten ziren ekintza konkretuak. Euskal Kultur Erakundeko lehendakari gisa, bertzeak bertze, kartsuki lan egin zuen, beti bere tokian egonez, baina behar-ordu guztietan hor izanez gure laguntzeko, gure babesteko, ekaitz larrienen artetik, baikor izateko.

Bihotz handiko gizona zen: Euskal Kultur Erakundeko Lehendakaritza utzi ondotik ere, beti gure ondoan sosegu genuen, nola euskararen gaiez aholkatzeko, hala edozein eskukaldiren emateko, orenak kontatu gabe. Egiazko herri-kulturaren militantea zen!

Hitz labur bezain samurrez, eskertu nahi zaitugu Erramun, euskararen eta euskal kulturaren alde egin duzun lan paregabearentzat.

Geroztik, zenbat bide ez da urraturik izan, Erramun Baxok eta bera bezalakoei esker, oraino anitz egiteko baldin bada ere, oroz gainera euskara gizartera dadin

eta behar duen ezagupen ofiziala behin betiko erdiets dezan. Hori zen Erramunen eguneroko erronka eta esperantza!

Euskal Kultur Erakundeko Lehendakaritza utzi zuelarik 2005ean, ohorezko makila eskaini genion, erranaldi honekin: «Erramun Baxok, Euskaldun suharra, langile zilarra, geroan baikorra».

Makilan zizelkaturik geldi bitez gure azken hitzak.

In memoriam

Jose Antonio Aduriz Zabala (Oiartzun, 1949 - Bermeo, 2024)

—Miriam Urkia—

Diputatu nagusia, euskaltzainburua, euskaltzainak, lagunak, bereziki Joxeren familia, egun on guztioi:

Joxe, Joxean, Joxeantonio Aduriz Zabala adiskidearen hilberri-txostena prestatzeko ohorea —eta ausardia— bizkarrean hartuta nator gaur zuen aurrera.

Hasi aurretik, eskerrak eman nahi dizkiet Paulo Agirrebaltzategi ohorezko euskaltzain eta adiskideari, eta, nola ez, aduriztarrei, eskuzabaltasun osoz hartu nautilako eta txosten hau osatzen lagundu didatelako.

1 Oiartzungo Joxe

Oiartzunen, Bastidan (Paxtiren) jaio zen Joxe, etxean, 1949ko azaroaren 1ean, Domu Santu egunez. Joxe Kruz eta Josefaren semea, 11 anai-arrebatan bigarrena izan zen. Zamalbideko eskolan egin zituen lehen ikasketak, eta bertako elizan meza-laguntzaile ere aritu zen, 11 urterekin Arantzazura joateko asmoa erakutsi zuen arte. Aitak esan zion, damutzen bazen, lasai itzultzeko etxera. Askotan itzuli zen, Azañetara eta Aizagerrera, baina oporretan edo bisitan beti, eta barrikotera, urtero!

2 Joxeantonio frantziskotarra eta Jakinekoa

Ume zela joan zen, beraz, Arantzazuko seminariora eta handik Forura eta Erriberriera, berriz ere, 20 urterekin, Arantzazura Teologia ikastera itzultzeko. Orduan batu zen *Jakinera*, baina administraziora, ordurako aldizkaria Arantzazutik

kanpo baitzegoen. Ikasketak bukatuta Tolosara bidali zuten (1974-1978), eta han *Jakin* taldeak prestatzen zituen liburuak eta aldizkaria bera inprimategira eramateko prestaketa-lanetan jardun zuen. Baina *Jakin* proiektua bideratzeko anaiarte txikia sortu zuten Donostian, Ategorrietan, eta hona etorri zen Joxeantonio itzal handiko lagunekin batera: Joxe Azurmendi, Joan Mari Torrealдай, Joseba Intxausti, Paulo Agirrebaltzategi, Manolo Pagola, Juan Joxe Iturriotz... Bigarren planoan, inongo protagonismorik hartu gabe aritu zen lanean, baina *Jakinen* euskara-maila dotorearen atzean bera egon zen.

Garai horretan sortu zen UZEI, hau ere *Jakinen* inguruan, eta hasiera-hasieratik aritu zen Joxeantonio lankide gisa.

1978ko apirilaren 30ean apaiz ordenatu eta ondoko bost urteak Atotxako etxean egin zituen, EUTGn Euskal Filologiako ikasketak egiten zituen bitartean. Baina bukatu orduko Ategorrietara itzuli zen, eta *Jakinera* (hau kanpora atera zen arte), bai eta UZEIra ere. 2014an erretiroa hartu zuen arte jarraitu zuen UZEIn lanean, Lexikografia Sailean. Tolosara itzuli zen orduan, 2022ko abenduan istripua izan eta, ospitalean denbora bat egin ondoren, Bermeoko fraideen erietxera eraman zuten arte. Azken bi urteak osasunarekin borrokan egin zituen, eta 2024ko uztailaren 30ean utzi gintuen, San Ignazio bezperan, Bermeon, 74 urte besterik ez zituela.

Orain Aizagerren dago, Paxtiren ere bai, han zabaldu baitzituzten bere errautsak; zuhaitza ere badu, etxekoek landatu berria.

Joxeanen ametsa, hala kontatzen zigun behintzat, erretiroa hartu ondoren Arantzazuko *bibliotekario* (halaxe esaten zuen berak) izatea zen, *plaza* lortzea zaila zela esaten bazuen ere. Gaixotu eta Bermeora eraman zutenean, hala esan zidan telefonoaren beste aldetik: «Nik nahiago nuen Arantzazura eraman izan banindute, baina badakit hura ez dagoena ni zaintzeko prestatua eta, bueno, hemen ere ez nago gaizki».

Konformista, beti. Esker oneko ere, beti.

3 Joxean UZEIkoa

UZEIn egin zuen Joxeane bere lan-ibilbidea, hasiera-hasieratik eta erretiroa hartu arte bertako langile izan zen-eta. Ikasketak burutzeko bost urteko etenaldia besterik ez zuen izan.

Terminologia sortzeko irizpideak lantzen jardun zuen lehen urte haietan, kirol-terminologian¹ batez ere, bai eta hainbat erakunde eta elkarterekin batera Hizpal² taldean ere, UZEIren ordezkari gisa. Baina Lexikografia Sailean egin zituen urterik gehienak.

1983an ezagutu nuen nik, bera ikasketak bukatu berri, ni orduantxe hasten, eta ordutik eta erretiroa hartu arte elkarrekin egin genuen lan, 31 urtez. Donostiako parte zaharreko Esterlines kalean hasieran, Aldapetan gero, ondoko mahaiko maisua eta kafe-laguna. «¿Le provoca un tinto?» esanaz joaten ginen makinako kafea atera eta hitzen mundua konpontzera, esku batean kafea eta bestean ducadosa zuela. Jakintsua oso, baina apala, bigarren planoan egotea nahi izaten zuena, bere argiarekin besteei argi egin zezaten laguntzen zuena.

Zenbat ikasten genuen berarekin lanean edo solasean. Ez zen maisuaren lekuan jartzen zen horietakoa, «nik dakidantxoa» esanez ikaragarritzko lezioa ematen zigun, baina apaltasunetik. Eta egunero ikasten genuen zerbait. Hori bai, haserretzen ere bazekien!

Lexikografoa zen Joxean, corpusgintzan ere baziharduen. DUDEN fitxategia osatzen ezagutu nuen nik, kaxa berde haietan «-aje/-aia», «-tar/-tiar» eta halako goiburuz osatutako ehunka fitxa lantzen. Eta, horrekin batera, Andoni Sagarnarekin (a zer bikotea osatzen zuten biek!) irakas-munduko eta komunikabideetako lexikoa lantzen, eta LEF Batzordeko txostenak osatzen aurrerago... Nik orduan ez nekien, baina Mikel Zalbidek proposatutako Euskaltzaindiaren hiztegigintza-planaren oinarriak jartzen ziharduten.

Berehala heldu zion bikoteak, Euskaltzaindiaren enkarguz, lehen euskal corpora osatzeari, eta hor batu nintzen hirukotera: EEBS³, gerora *xx. mendeko corpus estatistikoa* gisa ezagutu duguna. *xx. mendeko euskal argitalpenen inbentarioa* osatzeko Euskal Herriko liburutegien itzulua egin genuen eta, ondoren, corpora osatuta, lehen euskal lematizatzaile automatikoa asmatu

¹ *Futbola* (1985), *Pilota* (1994).

² Hala sinatu zuten *Euskera* agerkarian 1985ean, «Zalantzazko hainbat puntu morfosintaktiko» artikuluan: Hizpal («Hizkuntz Puntu arrunten lanketa» zeritzan hasierako gure langaien zerrendari, eta deitura hori laburtu beharrez sortua da Hizpal akronimoa: lanketa horretan ari gara J.R. Aizpurua eta T. Barrenetxea (Elhuyar), J.A. Ormazabal (Elkar), M. Murua (Erein), G. Nazabal (G.I.F.), I. Zubeldia (G.I.L.E.), A. Ibarzabal (Itzultzaile-Eskola) eta J.A. Aduriz (UZEI)).

³ EEBS: *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*.

zuen Andoni Sagarnak, Joxean Aduriz izenekoa. Joxeanek corpus-atal bat eskuz —alegia, buruz— lematizatzen zuen eta ordenagailuari erakusteko baliatzen zen hark egindakoa, programa trebatzeko. Lematizatzaile perfektua zen hura; gerora etorri zen lematizatzaile automatikoa.

Joxeanen egiteko nagusia Euskaltzaindiari lotua egon zen, nolanahi ere; UZEItik bideratua, baina Akademiarentzat.

4. Jose Antonio (edo Aduriz) euskaltzaina

1991ko urtarrilaren 31n —gaur 34 urte— izendatu zuten Jose Antonio euskaltzain urgazle, eta ohorezko 2018ko apirilaren 27an. Hau ere, kostata. Bi dei eta pazientzia apur bat behar izan ziren izendapena onar zezan.

Proiektu askotan parte hartu bazuen ere, aipatzekoak dira lexiko-irizpideak finkatzeko LEF Batzordea⁴, *Hiztegi Batua*⁵ eta, gero, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Corpusgintzan, EEBS aurrena eta *Lexikoaren Behatokia* gero. Guztiak, zuzenean edo zeharka, hizteigigintza-planari lotuak.

Gure Akademiak hizteigigintzan azken berrogei urteetan egin duen lan oparoak baditu izen propio batzuk, hemen zaudete batzuk, baina Joxe Antonio izan zenuten 80ko hamarkadatik lagun, inurri-lanetan beti: LEF Batzordean txostengintzan, *Hiztegi Batua*ren irizpideak lantzen. Oraindik ere hiztegiko lantaldekook baliatzen dugu Joxeanek ondutako 12 orriko irizpideen dokumentua, behin eta berriro fintzen zuena. Eta haren segida izan zen Hiztegi Batuko Batzordea, lantaldea gero, eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia* azken urteetan. Seguru nago, eta ez dut uste inork kontra egingo didanik, gaur dugun hiztegia ez litzatekeela den modukoa izango Aduriz gabe.

Ez da luzeegia Joxeanen argitalpenen zerrenda, eta urria da oso bere izenean (eta berean bakarrik) dagoena, baina argitalpen askoren atzean dago, horretan

⁴ 1986ko LEF jardunaldietan, Beloken, Adurizek egindako agerraldia: «Lexikologi Erizpideak Finkatzeko IV. Jardunaldiak (Hitz-elkarketari buruzko lehenak)», in *Euskera*, 1986-2, 301-304. 1991ko batzordearen proposamena: «LEF batzordearen proposamena Euskaltzaindiari» (I. Sarasola, M. Zalbide, M. Azkarate, J.A. Aduriz, P. Altuna, A. Sagarna), in *Euskera*, 1991-2, 475-480.

⁵ 1991ko hizteigigintzari buruzko jardunaldietan, Saran: «HIZTEGI BATUA Lanketa-eta onespenezko prozedurak» (I. Sarasola, M. Zalbide, M. Azkarate, J.A. Aduriz, A. Sagarna, I. Segurola), in *Euskera* 1991-3, 1135-1145.

ere isilean. *Jakinen* zuzentzaile eta transkribatzaile gisa azaldu zen zenbakiren batean, Junes Casenaveren *Santa Grazi* pastoralala euskara batura ekarri zuen⁶. Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian bada aipamen mordoxka bat, Akademiaren bilkuretako aurkezpenak gehienak, talde-lanean beti.

Hizpal, LEF, hiztegia, terminologia. Gaur hain geureganatuak ditugun lexikoaren inguruko irizpideak finkatzeko zutabe sendoa izan zen Joxean. Finkatzeko, aplikatzeko eta transmititzeko.

Eskerrik asko, Joxean, eman eta irakatsi diguzun guztiagatik.

Ohorezko euskaltzaina, ohorezko pertsona.

Eskerrik asko.

⁶ *Santa Grazi pastoralala*, Jakin liburu-sorta, Jakin, Oñati, 1976.

In memoriam

Joxe Ramon Zubimendi (Usurbil, 1952 - Gaintza, 2024)

—Xabier Euzkitze—

Iazko abuztuaren 8an pausatu zen Joxe Ramon Zubimendi, Nafarroako Gaintzan. 1952an jaioa. Oso iaioa ere. Gauza askotan zaildu eta trebatu beharra egokitu zitzaion, izan ere.

Autobiografia labur eta gustagarria egin zuen:

Joxe Ramon Zubimendi Imatz,
idazlea eta euskaltzaina.
Euskal Herrian mundura sortua,
Urdaiaigako Errotaberrin jaioa,
Usurbilgo Elizalden hazia eta
Zubietako Etxeberri Txikin gizon egina.

Zubimendiren hilberri-txostena egin behar-eta, aipa nezake Usurbilgo ikastolan, hasieran titulurik gabe, irakasle izan zenekoa. Baina senekoa. Aipa nitzake euskarazko komunikazioaren alor ugaritan eginiko lanak. *Freelance* izateak behartu zuen eremu askotan mokoka ari izatera. *Freelance*. Langile beregaina, autonomoa. Joxe Ramonen izaera eta gogoa hitzaren erroak markatzen du ondoen: *free*. ‘Aske’ esan nahi du, baina baita ‘deslai’ ere. Aipa nezake idazlea izan zela; egokitzailea, kazetaria, irrati-nobelagilea, kalitate-kontrolaren antolatzailea edo hizkuntza arduraduna; bikoizketa-zuzendari lanetan aritu zela, gidoigile, aktore, itzultzaile, hizlari.

Aipa nezake 1993an Eusko Jaurlaritzak argitaratutako lana: *Idazkera-liburua*. Edo Sendoak handik bi urtera argitara emandako *Jokaera-liburua*. Baita Auspoa bildumaren 246. alea ere: 1997ko *Bidezkoak*. Edo gainerako liburuak.

Horiek guztiak aipa nitzakeen eta aipatu ditut zeharka, aipagarria eta goraipagarria izan baita Joxe Ramonen emana. Baina haien seme Joxe Mariren konplizitatez eta Pello Esnalen laguntzaz ondu dudana erretratu honetan, beste eta bestelako aipu batzuekin marraztu nahi dut Zubimendiren izaera.

Umetako Usurbil hartan, maiz joaten zen tren-geltokira, eta handik, trenbidean zehar, tuneleraino. Aita makia erresistentziara joan zenean han ezkutatu zela ikusi baitzuen, itzuli ere handixe itzuliko zela espero. Irudi indartsua da, ezbairik gabe, tunelean aitarekin zain dagoen mutikoarena.

Baita handik urte batzuetara, hamabi-hamahiru zituela, nasan bi maletarekin trenaren zain dagoenarena ere. Lehenbiziko trenak Donostiara eramanez, bigarrenak Kordobara, Unibertsitate Laboralera. Hasierak ez ziren errazak izango, baina esperientzia hark oroitzapen onak utzi zizkion. Askotan esan izan zigun: «Euskara ahaztu egin zitzaidan!». Ez genion sekula sinetsi...

Gaintzara erretiratu zen azken urteetan. Naturaren maitale zen erabat, eta izadiarekin harreman estuan alderdi mistikoa eta espirituala ere gehiago lantzeko abagunea izan zuen. Baita beste hainbat bidaia egiteko ere: erroetaranzkoa, mitologiarenzkoa... Joxemiel Barandiaranekin izandako harremanak eta haren irakaspenek arrasto sakona utzi zuten Zubimendirengan. Erretiro harekin zenbait penatxo bat ere geratu zaigu: zenbait ingurutatik ere erretiratu egin zela, ez gurela haren azken urteetan hurbilago egoteko xantzarik izan. Geuk asmatu ez gurelako agian.

Zubimendiz egin nahi dudana marrazki honetan –marrazki abstraktu eta nahasi samarra ziur aski, beti izan dut errerealismorako zailtasuna– Bernardo Atxagaren pintzelkada bat erantsiko dut orain, nirea baino trazu finagoa du eta. Atxagak igurtzi handia izan zuen Zubimendirekin. Duela ia 20 urte hau idatzi zuen asteasuarrak Joxe Ramonez: «Aspalditik ezagutzen dut Joxe Ramon Zubimendi, eta orain (1997an), bere nortasunari buruzko ohar bat egin beharreko honetan, zera ikusten dut garbi: ez duela bide ibilietatik inora joan nahi izan; beti izan duela arrunkeiak urruti uzteko gogo. Egun batean, hizkuntzaren inguruko borroka puri-purian zeudenean, euskara batuaren aurka zeudenei erasoka ikusiko zenuen; hurrengoan, Gabriel

Aresti bereziki arbuiatzen zen bolada batean, poetari bere mirespena eta maitasuna azaltzen; hurrenagokoan, berriz, euskara batuaren okerdura edota gehiegikeriak salatu eta tradizioa goraipatzen. Behin ere ez gehiengoarekin, baizik eta bere gisa, desertuan predikatzeak ematen duen tentsioa bereganatu nahi balu bezala: egoskor batzuetan, zorrotz askotan, umoretsu gehienetan. Eta beti aurrera, aurrera beti».

Pintzelkada hori gustatu zitzaion Antonio Zabalarari ere. Hala aitortu zion Joxe Ramoni berari: «Esango nuke Atxagak erretratu egokia egin dizula, Joxe Ramon. Eta kontuan hartu *egoskor* hitzak bi esanahi dituela gaztelaniaz, *tenaz* eta *terco*, eta euskarak ondo bereizten dituela *egoskortasuna* eta *egoskorkeria*. Gure artean, berriz, gizonak egoskor samarra izan beharra dauka aurrera egin ahal izateko; batez ere, zu eta ni bezala, bakarkako langilea denak».

Mikel Zalbidek ere ñabardura politak egin ditu marrazkian: hiltun garbia, hitz-etorri onekoa, esaldi-moldaeraz jator eta doinueraz eredugarri. Idazle argi, prosa-moldez zuzen eta egoki, batasun-arauen betetzaille zintzo. Euskaltzale sendo, herrigintzaren hainbat pausorekin kezkatu. Corpus-plangintzaren inplementazio alorrean, administrazioan eta Euskaltzaindian, lankide baliotsu.

Andres Alberdik EIMAn egin zuen topo Zubimendirekin, irakas-materialgintzan. Ez dauka saltzeko. «Gizon jantzia eta eruditua zen Joxe Ramon Zubimendi, haren liburuak dira horren erakusgarriarik onena. Eta eskarmentu handiko euskalaria; izan kontuan Euskaltzaindiaren JAGONET kontsultazerbitzuko arduradun fin eta prestua izan zela urte askoan, erretiroa hartu zuen arte (2000-2015). Gizon umoretsu eta zirtolari modura ageri zen beti lagun artean, bai lan-bileretan, bai otordu-garaietan ere, nahiz harremanik ez zuen jendeari gizon hotz eta burgoi iruditua».

Harremanak eraman ninduen ni neu ere Joxe Ramon biziki estimatzera. Joxemari Aranalde hil zenean, niri proposatu zidaten Euskaltzaindiaren Herri Literatura Batzordean haren lekua hartzea. Horrek eman zidan talde zoragarri bateko kide izateko parada: Emil Larre, Jexux Mari Etxezarreta, Abel Muniategi, Antton Haranburu, Joxemari Iriondo, Pello Esnal, Jabier Kaltzakorta, Patziku Perurena eta Joxe Ramon Zubimendi. Ez dakit Euskaltzaindiari ekarpen handirik egin genion, talde hark niri sekulakoa.

Zalantzas betetako pertsona izaki, bilera osteko afalorduak baliatzen nituen Joxe Ramoni galderak egiteko. JAGONET zerbitzuan banaka bidali behar izaten

zitzaizkion, afalostean bata bestearen atzetik. «Etzakela pentsa konturatzen ez naizenik, alu hori», esaten zidan. Erabat limurtzen ninduen, bazuen erabat hipnotiko gertatzen zitzaidan zera bat. Eta beti eskertuko diot euskal munduak txera handirik egiten ez zidan bolada batean artikulua baten bidez eman zidan babes publikoa. *Bidezkoak* liburuan jaso zuen gero.

Familiak aukeratu du Joxe Ramonen irudi hau. Zigarreta eskuan, irri murrizta ezpainetan, zeharka begira baina soa ongi finkaturik. Patxadan, gozo, sendo.



Jagon aditza ezin hobeki ezkontzen da Joxe Ramonek sinesten eta maite zuen zernahiz erakusten zuen jarrerarekin. Azken erretiroa hartu duen honetan, falta baita Usurbilen, falta Zubietan, falta Gaintzan... bego gure oroitzapenen eta esker onaren aintzan, bertatik zirika eta *jagon* gaitzan.

In memoriam

Patxi Oroz Arizkuren (Beriaín, 1934 - Tübingen, 2024)

—Roldan Jimeno Aranguren—

Francisco Javier «Patxi» Oroz Arizkuren 2024ko irailaren 24an hil zen Tübingenen, Alemanian, 89 urterekin. Beriainen jaio zen, gurasoak bizi ziren etxean, «1934ko abenduaren 2tik 3rako gauerdian, Nafarroako Beriain herrixkan, 30 su zituen, [...] Nafarroako hiriburutik hegoaldera hamar kilometrora, historiaz eta kulturaz inguratua». Hitz horiekin gogoratzen zuen bere jaiotza eta haurtzaroa, Euskaltzaindiko ohorezko kide izateko onartu zitzaionean, 2004ko azaroaren 26an, berak idatzitako *Jirones de una vida abigarrada (de la gambella a la cátedra)* idazkian. Florencio Oroz Palaciosen eta Gabriela Arizcuren Martiarenaren semea zen. Aita ere Beriainen jaioa zen, 1896ko azaroaren 6an, eta ama, berriz, ondoko Noain herrian, 1898ko urtarrilaren 11n. Patxik hiru anaia zituen: Manuel, Gregorio eta Jose Mari, guztiak nekazaritza-lanetarako garraioan aritu zirenak.

Orozen bizitzak eta lanak musika eta filologiaren ikerketari eta sustapenari eskainitako dedikazio sakona islatzen dute. Ikertzaile polifazetiko eta nekaezina izanik, Filologia Erromantzeko irakaskuntza-lana egiteaz gain, aurre-erromatar hizkuntzei buruzko ikerketa ugari argitaratu zituen, haietako batzuen –hala nola iberieraren– eta euskararen arteko harreman posibleak aztertuz. Halaber, toponimia eta Nafarroako euskararen hiztegiari buruzko azterlanak egin zituen, baita bere jaioterriarekin, Beriainekin, lotutako gaiei buruzko ikerketak ere. Musikaren esparruan, musikologoa izan zen eta Tübingeneko Unibertsitateko Abesbatzako zuzendaria.

Prestakuntza eta ibilbide akademikoa

«Nire aita Florencio laboraria zen; eta nire ama, Gabriela, etxeakoandrea. 1850 inguruan eraikia zen aitaren etxean bizi ziren, aita zituen anai-arreba guztiekin: hiru arreba eta lau anaia, eta hauek, beren familiak osatu ahala, etxetik irteten joan ziren. Nire jaiotzerako, bi seme zituzten nire gurasoek, hiru eta bi urtekoak. Lau urte geroago, nire anaia gazteena jaio zen. Aho gehiegi, baina ogi gutxiegi, lur urria eta zekenak ematen zuenarekin. Nire anaiek bezala, nik ere herriko eskola utzi behar izan nuen txikitan. [...] Hala ere, nolabaiteko etxeko konpentsazioa izan genuen eskola-gabezia horren aurrean, maisuek gure etxean ostatu hartzen ohi baitzuten, eta afalorduan beren solasaldiekin, aholku eta istorioekin entretenu eta irakasten baitziguten», adierazi zuen aipatutako autobiografia-testuan.

Patxi Orozek eskola utzi zuen familian zeuden behar ekonomikoak zirela eta, eta soroetara lan egitera joan zen. Hala ere, bere bizitzak aldaketa nabarmena izan zuen, Verbo Divinoko fraide batek –Ordenarako hautagaiak bilatzen ari zenak–, Berriaingo apaizarekin batera, mahastian lanean aurkitu zuenean. Apaizak misiolariari esan zion: «Mutila eraman ezazu, asko balio du», eta horrela, 1948an, Lizarrako Verbo Divino eskolara eraman zuten. Han Patxi Orozek bere prestakuntza hasi zuen, hamalau urterekin. Bere gaitasuna zela eta, 1953an, Erromara joan zen, Filosofia ikasketak egitera eta musika-harmonizazio eskolak jasotzera. 1958ko uztailaren 1ean, Erromako Verbo Divino eskolako errektorea zen aita Gasparrek gazte hari buruzko ikasketa-ziurtagiria egin zuen, klasean «beti lehen eta onena» izan zela adieraziz. Ikasle guztien gaitetik, bere adimen, arreta eta arduragatik nabarmentzen zen eta bere jarrera akademikoa, diziplinarioa eta morala «eredugarria» zen.

Aurreko urtean, 1957an, Verbo Divinoko Misiolarien nobiziatua egin ondoren, Ordena uztea erabaki zuen. «Krisia gaingiditzen saiatu nintzen Seminariotik irtenez, lehenik hiru hilabeteko probaldirako. Sotana utzi eta traje urdin iluna jantzi nuen, marra argi eta fin batzuekin; kamiseta zuria, gorri-urduzko gorbata, galtzerdi grisak eta zapata beltzak. Nire ondasun guztiak maleta batean sartu nituen: garbitasuneko tresnak, barruko arropa aldaketa bat, nire kalifikazioak, *Liber usualis*, Itun Berria latinez eta grezieraz, eta nire egile latino gogokoenen bi liburu». Proba-hilabete horien ondoren bere apustua sendotu zen, eta bizitza berri horrek, ia kasualitatez, Alemaniara eraman zuen, non bere ibilbide akademikoa hasi baitzuen.

1960tik aurrera, Filologia Erromantze eta Klasikoko ikasketak egin zituen Münsterreko Unibertsitatean. Bertan, 1963an *Magister Artium* titulua lortu zuen eta 1972an Filosofia eta Letretako doktoretza eskuratu zuen. Münsterren egon zen bitartean, *Institutum Erasmianum*ekin eta unibertsitate bereko Soziologia Institutuarekin lankidetzan aritu zen. Alemanian ere bere familia osatu zuen: Christa irakaslearekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten: Gabriela, Christofekin ezkondua, Cecilia eta Rafaelen gurasoak direnak; eta Adrian, Laurarekin ezkondua, Leo, Malena eta Sofiaren gurasoak direnak.

Patxi Orozen prestakuntza akademiko sendoa are gehiago aberastu zen Heinrich Lausberg, Eugenio Coseriu, Antonio Tovar eta Koldo Mitxelena bezalako filologo eta hizkuntzalari ospetsuen eraginari esker; guztiak ere maisu izan zituen, irakasle horiek eragin erabakigarria izan baitzuten harengan.

1968an, Patxi Orozek irakaskuntza-ibilbidea hasi zuen Tübingeneko Unibertsitatean, non *venia legendi* eskuratu zuen eta, 1988an, oposizio bidez, Filologia Hispanikoko katedra lortu zuen, bertan irakasle jardunez 2000. urtean erretiroa hartu zuen arte. Horrez gain, Filologia Modernoko Fakultateko dekanoa izan zen 1992an. Hurrengo urtean, Baden-Württembergeko estatu federaleko Kultura ministro izendatu zuten. Kulturaren alde egindako lanagatik, ohorezko diploma jaso zuen Estatu horretako gobernuako kide Klaus von Trotharen eskutik.

Erretiratuta, Patxi Orozek irakasle emeritu estatusa lortu zuen eta berak sortutako *Romania Cantat* unibertsitate-abesbatza zuzentzen jarraitu zuen. Horrez gain, Nafarroako Unibertsitatean eskolak eman zituen eta hainbat erakunderekin lankidetzan aritu zen, hizkuntzen eta euskal kulturaren azterketari eskainitako lanetan.

Filologia eta hizkuntzalaritzari egindako ekarpenak

Patxi Oroz hizkuntzalaritzan zuen moldagarritasun nabarmenagatik eta ikuspegi diziplinartekoagatik bereiztu zen, eta filologiaren eta linguistikaren esparruan ekarpen baliotsuak egin zituen. Bere ikerketa-lanak hainbat arlo hartu zituen; horien artean euskal hizkuntzalaritza, filologia erromantzea, hizkuntza paleohispanikoa eta epigrafia nabarmendu ziren. Espainiar literatura ere aztertu zuen.

Euskal hizkuntzalaritzaren esparruan, Oroz fonetikan, fonologian eta euskararen dialektologian espezializatu zen. Euskararen bilakaera historikoa aztertu zuen eta hizkuntza erromantzeekin izan zuen elkarrekintza esploratu zuen. Euskal toponimiaren analisisian ere murgildu zen, euskal eremuko leku-izenen jatorri eta bilakaerari buruzko ikuspegi zorrotza eta xehea eskainiz. Halaber, euskaraz idatzitako dokumentu historikoen azterketari arreta berezia eskaini zion, eta horren adibide dugu «¿Tafalla era vascófona a fines del siglo XVII?» izeneko artikulua, non euskararen banaketa geolinguistiko historikoa aztertu zuen.

Horrez gain, Orozek euskararen normalizazio- eta estandarizazio-proiektuetan modu aktiboan parte hartu zuen, eta Euskaltzaindiarekin lankidetzat estua izan zuen. Akademiak bere ekarpena aitortu zion 2004ko azaroaren 26an ohorezko kide izendatu zuenean.

Filologia erromantzearen arloan, bere ikerketek hizkuntza erromantzeen literaturarekin eta hizkuntzalaritzarekin lotutako gai ugari jorratu zituzten, bereziki katalanari, okzitaniari eta gaztelaniari erreparatuz. Ikuspegi konparatiboa baliatuz, hizkuntza horien arteko lotura esanguratsuak ezarri zituen, haien garapen diakronikoaren eta elkarrekintza kulturalen ulermenean ekarpen garrantzitsuak eginez.

Hizkuntza paleohispanikoen eta epigrafiaren azterketari dagokionez, Orozek ekarpen esanguratsuak egin zituen Iberiar Penintsulako erromatar-aurreko hizkuntzen azterketan, iberierari arreta berezia eskainiz. Idazkun iberikoak ikertu eta beste antzinako hizkuntza batzuekin izan zitzakeen harremanak aztertu zituen, interpretazio berritzaileak eskainiz. Horrela, hizkuntzalaritza historikoaren eta epigrafiaren esparruak aberastu zituen.

Bere lana ez zen hizkuntzalaritzara mugatu, Espainiako literaturaren azterketa ere barne hartu baitzuen. Bertan, frai Luis de León bezalako egile klasikoek gaineko azterketa kritikoak egin zituen, bai eta Espainiako tradizioko genero eta garai literario ezberdinei buruzko ikerketak ere. Bere analisi literarioak ikuspegi filologiko zorrotzagatik eta aztertutako lanen testuinguru historiko eta kulturalaren ezagutza sakonagatik nabarmendu ziren.

Bere ibilbidean zehar, Patxi Oroz filologiaren eta hizkuntzalaritza hispanikoaren arloan ezinbesteko erreferente bihurtu zen. Ehun lan baino gehiago argitaratu zituen aldizkari espezializatuetan, hala nola *Fontes Linguae Vasconum*, *Emeritan*

eta *Zeitschrift für Katalanistiken*. Gainera, nazioarteko kongresu ugaritan parte hartu zuen, eta bere ekarpenek aitortza handia izan zuten. Bere ondare akademikoak oraindik ere inspirazio-iturri izaten jarraitzen du diziplina horietako ikertzaile eta adituentzat.

Ibilbide musikala eta konposizio-lana

Patxi Oroz, filologo nabarmena izateaz gain, musikaria ere izan zen, eta bere musikarako grina bere ibilbide akademikoarekin modu eredugarrian uztartzen jakin izan zuen, filologiaren eta musikaren arteko elkargunea lortuz.

Erroman egon zen bitartean organista-lanetan aritu zen eta, geroago, Münsterreko San Migel elizan ere jardun zuen funtzio horretan. Musika koralarekiko konpromisoa Tübingenen agerian geratu zen, han Romania Cantat abesbatza sortu eta zuzendu baitzuen, bere ezagutza filologiko sakona musika-praktikarekin bateratzeko zuen gaitasuna erakutsiz.

Konpositore oparoa izan zen, eta ehun obra baino gehiago sortu zituen, batez ere abesbatzentzat, euskal kulturarekiko zuen sustraitze eta lotura sakona islatuz. Bere lan aipagarrien artean daude *Nire aitaren etxea*, lau ahotsetarako moldatua eta zortziko erritmoan kantatua; *Gernikako ostadarra* (1987); *Canon pro pace*, hiru ahotsetarako konposatua; eta *Vasconia cantat* bilduma, lau ahotsetarako egina. Obra horiek ez ezik, euskal musika-tradizioaren hedapenean eta ondare horren zaintzan egindako lana ere nabarmentzekoa da.

***Nire aitaren etxea* proiektua**

Orozen interesak Gabriel Arestiren poema ezagunarekiko kasualitatezko topaketa batekin izan zuen sorburua. 1971n, Iruñean, Principe de Viana Erakundean, Patxi Orozek Arestirekin elkarrizketa labur bat izan zuen. Une hartan ez zuen poeta identifikatu, baina gerora nor zen deskubritu zuenean, bere liburu bat erosi zuen. *Nire aitaren etxea* irakurri ondoren, hain sakona izan zen haren baitan utzitako arrastoa, ezen poemaren hitzak buruz ikastea eta unibertsitateko ikastaro batean aztertzea erabaki baitzuen. Hurbilketa horrek ez zuen soilik Arestiren

obraren gaineko interes akademikoa piztu; zortziko bat sortzeko inspirazioa ere izan zen, abesbatza misto eta bakarlarientzat, testuak bere bizitzan izan zuen eragin dimentsio anitzaren isla moduan.

Hurrengo pausoa Arestiren poemaren itzulpenen bilketa-proiektua izan zen. 1983an hasi zuen, Gernikan egonaldi bat egiten ari zela. Bertan, Orozek egiaztatu zuen poema euskal herritarren esperantzaren eta erresistentziaren sinbolo bihurtu zela. Esperientzia horrek eta Tübingenen —hizkuntza-aniztasun nabarmena duen Alemaniako unibertsitate-hiria— izandakoak beste hizkuntzetako bertsioren bilduma abiarazteko testuinguru egokia eskaini zioten.

Nire aitaren etxearen itzulpen-lanak hainbat zailtasun izan zituen. Erronka nagusietako bat izan zen euskal kulturen sakon errotutako terminoak egokitzea, hala nola *korrituak* (interesak), *errentak* edo *pinudiak* (pinu-basoak), munduko hizkuntza askotan ordain zehatzik ez duten hitzak baitira. Gainera, poeman agertzen diren kontzeptu abstraktu batzuk eta errealtate sozial jakin batzuk ez ziren erraz itzultzeko modukoak kultura batzuetan, batez ere familia-egitura edo sistema ekonomiko ezberdinak zituztenetan.

Bestalde, poemaren edukiak eta mezuak eztabaida ideologiko eta kulturalak eragin zituen. Itzultzaile batzuek uko egin zioten lana egiteari, poemak indarkeria sustatzen zuela iritzita; eta Hegoafrikan, afrikaanseko itzulpena baztertu zen, kolonizatzaile zapaltzaileen hizkuntza askatasun-mezua zabaltzeko desegokia zela iritzita. Beste kasu batzuetan, kultur desberdintasunek interpretazio-arazoak sortu zituzten; adibidez, Filipinetan, misiolari batek argudiatu zuen poema ezin zela bere lan-eremuko tribura egokitu, ez baitzuten poeman deskribatzen den antzeko etxebizitza edo familia-egiturarik.

Orozek ingurune akademikoak eskainitako aukerak baliatu zituen, hainbat filologiatako irakasle eta ikasleak proiektuan inplikatu eta bere lankidetzasarea atzerriko unibertsitateetara, hizkuntzen akademia ofizialetara, kultura-erakundeetara, ordezkari diplomatikoetara eta baita misio-kongregazioetara ere zabalduta. Gainera, UNESCOra, kazetarietara eta irrati- zein telebista-kateetara jo zuen proiektua hedatzeko.

1984an, Iruñean egin zen Euskaltzaindiaren x. Kongresuan, bere lanaren aurrerapen bat aurkeztu zuen, bost kontinenteetatik jasotako 174 itzulpenekin. Hiru urte geroago, 1987an, lehenengo liburukia argitaratu zuen: *Carmen Vasconium plus*

quingentis linguis versionibus aut characteribus redditum et impressum – Gabriel Arestiren poesia 500 hizkuntza baino gehiagotan, gaur egun agortuta dagoen argitalpena. Antonio Tovarrek idatzitako hitzaurrea zuen. Hark poesiaren intentsitate poetikoa eta euskal identitatearen sinbolo gisa duen garrantzia nabarmendu zituen.

Urteen poderioz, Orozek gutxi gorabehera 740 bertsio bildu zituen poemaren inguruan, mundu osoan gehien itzulitako testu ez-erlijiosoetako bat bihurtuz. Lehen itzulpenak alemanera, frantsesera, katalanera, galegora eta okzitanierara egin ziren, eta azkena pidginera (Tok Pisin). Bertsiorik bitxienetakoen artean daude Shou-chun Wang-ek txinerara egindako itzulpena eta Ingrid Gamer egiptologoak hieroglifo egiptoarretan egindakoa.

Era berean, Orozek sortu eta zuzendutako Romania Cantat abesbatzak poema hainbat ekitaldi nazioartekotan interpretatu zuen. Emanaldi aipagarrienetako bat Tübingeneko Unibertsitatean izan zen, Alemaniako kantziler izandako Willi Brandten aurrean. Bertan, hainbat hizkuntzatan irakurri ziren poemaren itzulpenak, poesiaren ahalmen unibertsala kulturarteko komunikazio-tresna gisa sinbolizatzuz.

Orozen lanaren eragina izugarria izan da, bai arlo akademikoan, bai kulturaren. Bere proiektuak hizkuntzen konparaziozko azterketa sustatu du eta analisi linguistiko eta kulturala lantzeko ariketa gisa balio izan du. Horrez gain, euskal literaturaren nazioarteko aitorpena bultzatu du eta Gabriel Arestiren ondarea identitate eta erresistentziaren sinbolo gisa zabaltu du. Proiektuak, halaber, poesia interpretatzeko eta kultur egokitzapenerako nazioarteko elkarrizketa bat sortu du, testu berak hizkuntza eta kultura-testuinguruaren arabera nola esanahi desberdinak har ditzakeen erakutsiz.

Gaur egun, poemaren zazpiehun itzulpen baino gehiago argitaratzeko eta zabaltzeko zain daude, Tübingeneko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Modernoko Departamentuan gordeta. Artxibo handi hori Arestiren obraren irismen globalaren lekuko da. Patxi Orozen lana ez da hizkuntza-itzulpen soilera mugatzen; poesia bidez errealitate desberdinak lotzen dituen zubi kulturala ere bada. *Nire aitaren etxearen* itzulpen-proiektuak elkarrizketa globalerako ariketa bat irudikatzen du, hizkuntza-oztopoak gaindituz eta euskal identitatearen nahiz gizateriaren izaeraren ulermen sakonagoa sustatuz.

Beriainera itzuliz

Patxi Orozek lotura estua mantendu zuen beti Beriainekin. Erretiratu ostean, abuztuko hilabete osoa bertan igarotzen zuen bere emaztearekin eta seme-alabekin, bere herriko etxean. Bertan izan nuen haren ezagutzeko aukera, nire aita lagunduz, Tebastik bere laguna bisitatzea joan ohi zen arratsalde haietako batean. Patxik gustuko zuen maitasunez gogoratzea herrian igarotako haurtzaroa eta, oro har, Potasasen aurreko Beriaingo paisaia ekartzea gogora: elorri-mendia eta uso-postua, haurtzaroko ehizarako zaletasuna pizten zioten gunek.

«Patxi alemaniarra»k, herrian esaten zioten bezala, aktiboki parte hartzen zuen Beriaingo festetan eta omenaldi bero bat jaso zuen 2017ko abuztuaren 3an, Udalak berari esleitu baitzion jaien txupinazoa botatzeko ohorea. Gainera, Beriaingo zaindari den San Martinen ereserkiaren egilea izan zen, herriko jaien baitan abesten den kantua. Maiz idazten zuen Beriaingo aldizkari lokalean, artikulu dibulgatzaileak eskainiz. Horietako bat izan zen «Astelehen hiru gorri» kondairari buruzkoa, Beriaingo elizaren 1127ko sagarapenarekin lotutako euskarazko pasarteari buruzkoa. Kondaira horretan oinarrituta antzezlanaren ere idatzi zuen, eta Beriaingo Antzerki Lagunak taldeak herriko plazan antzeztu zuen.

Patxi Oroz hil zenean, omenaldia egin zioten 2024ko urriaren 7an Tübingeneko hiri historikoko hilerrian egindako hileta-elizkizunean, baina baita Beriaingo parrokiako beste meza batean ere. Bertan, gaur nire hitzen buru den erretratua eta berak sortutako *Viva San Martín* ereserkiaren partitura jarri zituzten haren oroigarri. Era berean eta nola ez bada, bere eskelaren buru izan zen aipua, honakoa izan zen: «Nire aitaren etxea defendituko dut».

In memoriam

Aita Luis Baraiazarra Txertudi (Meñaka, 1940 - Markina-Xemein, 2024)

—Patxi Uribarren—

Aita Luis Bizkaiko auzo txiki euskaldun bateko kristau familia abertzale euskaldun batean jaio zen. Beraz, haurtzaroa, naturaz harreman estuak zituen euskara hutsezko giroan eman zuen. Horrek, betirako markatu zuen bere izaera. Hori horrela, hiru aldi ongi berezituak ageri dira bere bizitzan: Meñakako umetako bizitza, ikasketa-garaikoa eta Markinako komentuan egindakoa. Luisek hainbat datu dakartza aldi horiei buruz, eskuizkribu laburrean eta bere *Nire umetako Meñaka* eta *Nire sasoiko Markina-Xemein* bi liburu autobiografiko ederretan.

Heziketa-bide luzearen zertzeladak

Honela dio bere eskuizkribu laburrean: «Meñakan (Bizkaia) jaio nintzen 1940ko martxoaren 17an. Hamar neba-arreba gara; ni bederatzigarrena. Neure herriko eskolan egin nituen lehen ikasketak, 12 urte betetzeko nituela Zornotzako Karmeldarren ikastetxean sartu arte. [...] Latin eta giza zientziak Zornotzan eta Nafarroako Alesbesen egin nituen. 1957-1958an nobiziatua Larrean, profesa ondorengo urtea Markina-Xemeinen egin ondoren, Gasteizen burutu nituen filosofiako hiru urteak eta Begoñako Karmelon teologiako lau urteak. 1966an apaiztu nintzen».

Euskal alfabetatzeari dagokionez, hiru une gogoratzen zituen bereziki: Zornotzako urteak, Markinakoa eta, batez ere, Begoñako Karmelon lortutako goi-mailako alfabetatzea. Berton, elizako euskal mezan laguntzeaz gainera, karmeldar

ikasleak euskarara erakartzeko Gogoz aldizkariaren sortzailetakoa eta idazlea izan zen Markinara joan zen arte. Garai horri buruz honako hau dio:

1966an apaiztu nintzen eta hiru bat hilabete Larrean egin eta 1966ko abuztuan Markina-Xemeinera etorri. Harrezkero, hementxe bizi naiz, 1967an Madrilen igaro nuen sei hilabetetako tarteak kenduta.

Ohiko ziren eliz ikasketak burutu ondoren, maisutza-karrera egin nuen, Valladoliden 1970ean titulua lortuz eta geroago Euskal Filologia Deustuko Unibertsitatean lizentziatu titulua 1982an eskuraturik.

13 urte egin zituen irakasle-lanetan. Euskal Filologiako ikasketek euskal literaturaren ezagutza sakona eman zioten. Izugarrizko oroimena zuenez iturri agortezin bihurtu zitzaizkion gerora burutu zuen lanerako.

Nortasuna eta bizitzako ibilbidea

Hasieran esan dudanez, aita Luis etxean eta auzoan kristau heziketa euskalduna jasoz naturarekin harreman estuan bizi izan zen. Horrela, gerora, bizitza osoa kristau fedearen zerbitzuan eskaini zuen Karmeldarron Ordenan, era berean bere ahalmenak euskararen alde jarritz. Mendizale porrokatua ere bazen, Euskal Herriko mendi-gailur gehienak gozamen handiz bisitatua.

Markinara etorri eta berehala hasi zen pastoraltza-lanetan. Igande eta jaietako hitzaldiak prestatzeak izurritzko erraztasuna eman omen zion, euskara jator eta errazaz jabetzeko. Berehala hasi zen komentuaren babespean sortutako Zerutxu ikastolari laguntzen, hasieran euskara eta kantuak irakasten eta gero irakasle-lanetan. *Karmel* aldizkarian Olerti sortan idazten ere hasi zen.

Nola uztartu zituen fraide-bizitza eta euskararen aldeko jarduna oso argi ageri zaigu Juan Luis Goikoetxeak egin zion elkarrizketa luzeko erantzunetan. Labur esateko, buru-belarri kokatu zuen etxeko eta inguruetako pastoraltza-lanetan, komentuko karmeldar familia barruko zereginetan, laguntza bila hurbiltzen zirenei eskuzabalez ematen, beti ere, gogo onez, maitasunez, pertsona guztien zerbitzuan etenik gabe lan eginez. Ez dezagun ahaztu hau izan zela euskara munduan burutu zuen lan izugarriaren barne-eragilea.

Otoitz-gizona, bihotz zabala, maitekorra, zerbitzaria izan zen, ezagutu zenuten guztiok gogoratuko duzuenez. Azken batean, Kristoren jarraitzaile maitemindua. Oso zintzo eta fidela. Hori askoz ere sakonago bizi izan zuen bizitzako azken aldian nahiko gaixorik egin zituen urteetan.

Euskara-eremuan burututako lanak

I- Lexikologia alorrean:

I.1 Hiztegegintzan: (15 urte) 1983n Bostak Bat elkartaldeak bertako kide egin eta liberatuta jardun zuen hiztegegintzan. Berak prestatuak izan ziren euskara hutsezko *Euskararako Hiztegia* (25.000 aletik gora zabaldu ziren), *Europa Hiztegia* eta *Eskola Hiztegia*. Horrez gainera, hiztegi elebidunen prestaketa gidatu zuen, hots, 3000 *Hiztegia* eta 5000 *Hiztegia* handien gidari izan zen. *Sinonimoen Hiztegiak* liburukietan ere parte hartu zuen.

I.2 Euskaltzaindian: Honakoa zioen: «1991eko abenduan Hiztegi Batuko batzorde berrian batzordekide izendatu ninduten Euskaltzainek eta 1996an gramatika-batzordeko kide. Pixka bat lehenago, urte berean, euskaltzain urgazle izendatua izan nintzen». 2010ean ohorezko euskaltzain izendatua izan zen. Lankidetzat horretan jardun izan zuen 29 urtetan, harik eta 80 urte egitean, erretiroa hartu zuen arte.

II- Liburugintza-alorrean: (ezagunenak)

II.1 Bere-bereak diren liburuak:

- *Euskal Herriaren Historia I eta II* (1977)
- *Hitzezko txirlorak olerki-liburua* (1985)
- *Jon Lopategi bertsozko mezularia* (2000)
- *Nire umetako Meñaka* (2005)
- *Nire sasoiko Markina-Xemein* (2009)
- *Nire umetako Meñaka Olerki-jantziak* (2022)
- *Markina-Xemein hitz lauz, olerkiak eta bertsoak* (2023)

II.2 Lankidetzan Julen Urkizarekin:

- *Elizaren historia Euskal Herrian, I: ikerlan-materialak* (1995, 1450 or.)
- *Frai Bartolome Santa Teresa: idazlan guztiak. Edizio kritikoa* (2000)
- *Karmeldarrak Markinan* (2001 or.)

II.3 Itzulpen aipagarriak

- *Teresa Jesus Haurrarena, Idazlan guztiak. (1996) Eskuizkribu autobiografikoak eta olerkiak. Hainbaten artean.*
- *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa. Konstituzioak. Dekretuak. Adierazpena. Eta Dokumentu osagarriak. Euskaraz eta latinez* (2003, 1.500 or.).
- *Santa Teresa Jesusena. Idazlan guztiak* (2015, 1.851 or.): *Avilako Santa Teresa Jesusenaren idazlan guztien euskaratze lanagatik Itzulpen Onenaren sari nazionala aitortu zioten 2015ean.*
- *San Joan Gurutzeko. Idazlan Guztiak. (2021, 1.051 or.): Hau dugu Luisen azken itzulpen handia. Oso ardua handiz eta gogo biziz burutua.*

III- Bestelako idazlanak:

III.1 Hainbat olerki Karmelen eta Olerti sortan.

III.2 Karmel aldizkaria dugu bere lan ugarien biltokia. Bera izan da, gainera, 1983tik hona aldizkariaren zuzentzailea. Julen Urkizak dinoenez «Batez ere *Karmel* aldizkarian dogu Luis zutabe sendo: bertan bere 269 lan ageri dira (212 artikulua eta 57 itzulpen) 2.200 orrialde inguru». Bertan izan zituen bidelagun, beste hainbat karmeldar: Santi Onaindia, Lino Akesolo, Karmelo Zubizarreta, Andoni Olea, Patxi Uribarren, Julen Urkiza eta abar.

III.3 beste hainbat aldizkaritan, hala nola, *Olerti*, *Garaian*, *Gogoz*, *Kili-kili*, *Zeruko Argia*, *Jakin*, *Egan*, *Bertsolari Aldizkaria*, *Argiaren Urtekaria* eta *Anaitasuna* aldizkarietan.

IV- Bertsolaritza: Bizkaiko Bertsolari Elkarteko idazkari hainbat urtetan. Ohikoa zen Luis Baraiazarrarentzat epaile-lanetan jardutea: Eskolartekoan, Araba-Bizkaikoan, Bizkaikoan eta Euskal Herriko txapelketa nagusietan. Interneten honakoa ageri da: «Euskaltzalea eta bertsozale sutsua izaki, ekarpen ugaria,

askotarikoa eta aberatsa egin du euskararen eta bertsolaritzaren eremuan». 1989an Orixe saria lortu zuen bertso-paperetan. Kontaezinak dira, bestalde, ekintza eta ospakizun askotarikoetan egin zituen bertsoak.

V- Kiki-Kili aldizkaria. Gogoratu eta nabarmendu beharra dugu, halaber, urteetan, bera izan zela haurren alfabetatzean arrakasta hain handia izan zuen *Kiki-Kili* aldizkariaren zuzentzailea eta kolaboratzailea. Bera zen euskara batuko bertsioa prestatzen zuena.

Hain oparoa izanik bere lana hegazkada batean hurbilketa egiten ahalegindu naiz. Datu ugariago dituzue *Karmel* aldizkariak heriotza-ostean eskaini zion ale monografikoan: 2024-4 (328. zk.)

Luisek ongi bete zuen San Pauloren idazkitik jaso eta karmeldarroi erregelak gogoratzen diguna: «Lanik egin nahi ez duenak ez dezala jan».

Bete-betean bizi izan zituen Felipe Arrase-Beitia olerkariaren hitzok:

*Euskaldun jaio nintzan,
Euskalduna azi,
Euskara utsik amak
Eustan irakatsi;
Euskara maite maite
Zabiltz neugaz beti,
Euskara ill ezkerro
Ez dot gura bizi.*

In memoriam

Martzel Andrinua Lariz
(Ziortza-Bolibar, 1930 - Bilbo, 2024)

—Adolfo Arejita—

Bizi-zertzelada batzuk

Ume eta gaztetako jakingarriak

Martzel Andrinua Lariz, aita Martzel, Euskal Herri txiki honetako euskaldunon eta euskaltzaleon, batez ere adin batez gorakoen, oroimen eta gomutan oraintsu arte bizi-bizi egon den gizona dugu. Fraidea, pasiotarren ordenakoa. Haren pentsaera laburtu beharrez, bera beteko euskalduna eta euskaltzale sutsua batetik, eta aldi berean, kristau fededun eta fede-zabaltzaile handia; elizakoa eta elizarakoa, elizgizona eta zeharo elizkoia. Aita Martzel izenaz ezagutu dugun fraide honen jaiotza-izena Jose zen, eta hala zetzan bere nortasun-agirian ere, Maribi arreba gazteak zehatz adierazi digunez. Fraide egiterakoan hautatu zuen Martzel izena ume eta gaztetxotako Josek.

1930 urtean jaio zen, Iruzubieta auzoan, Markina-Xemeinek eta Bolibarrek muga egiten duten auzo horretan. Baina Martzel jaio zenean, haren jaioterria Xemein zen, eta parrokia, Bolibar. *Bolibar*, 1969-2005 bitartean Markina-Xemein udalerriak bereganatua izan du, baina berez nortasun eta zindotasun handiko herria. Lehenagoko aldietan, elizaz nongoa zen bat esanguratsuagoa zen, herriz nongoa zen baino. Bolibarrek ere eliza eta ortusantua ditu, eta goialdean Ziarrotzako kolegiata zaharra.

Eraz ipini digu aita Martzelek bere bizi-zertzeladak atontzeko gure ahalegin pitin hau. Suertez, bere bizitzaren azkeneruntz berberak idatzia duen autobiografian, *Nere bizitzako joan-etorriak* (2019) izenburutzat daroan 52 orrialdeko formatu handiko liburuxka horretan, xehero eta argiro garantzen ditu bere bizitzako alderdi aipagarrienak; bere ikuspuntutik beti ere. Bi laguntzaile fini esker burutu izan da lan hori: Maria Angeles Angoitia eta Mila Egiguren, *Bizian gora*, berak zuzentzen zuen taldeko lankide hurreko eta aspaldiko izan dituen emakumeak. Elkarte honek *Aita Martzeleri eskerronez* eskainitako liburuxka; opari gisa.

Liburuxka horretatik pasarte labur batzuk hautatu ditut, bera baino testigu hoberik ez baitago bere «bizitzako joan-etorriak» azaltzeko, baina inguruko beste iturri batzuez osaturik.

«Jaio, Bolibarren jaio nintzan eta hangoa naz, baina herriz Markina-Xemeingoa. Iruzubietako auzotarra, hiru zubi, hiru bide eta hiru erreka daukazan auzokoa». Gehi dezagun, Iruzubietako erreka horiek banatzen dituztela Bolibar eta Markina-Xemeingo lurrak. Herri biok, bada, guztiz hurreko izan ditu Martzelek bere bizian.

Etxeko eta familiaren berri ematean hau dio: «Pedro eta Teresaren etxean zortzi seme-alaba jaio ginan; ni, hirugarrena».

Pasiotarren komentu-ikastetxera guduaren oste-ostetxoan sartu zen, hamaika urteko mutiko zoztorra zela. Bizkai barru-barruko mutiko haren lehen irteera Gipuzkoako beste herritxo batera izan zen: «Gabiri, leku guztietatik agiri» esaerak dioen bezala. Beraren hitzez: «1941an, hamabi urte bete bezperan, Gabirian sartu zan mutiko ha, aurrera doala. Gabirian bost urte latina eta erdera ikasiaz; baina egia esan, [...] hiru-lau urtean euskeraz be ikasi genduan».

Zertzelada ohargarria: gudu osteko aldirik gordinenean, Martzelek, komentuaren estalian euskara lantzen hasteko abagunea ere izan zuen; hasikinak baino ez baziren ere. Ez ziratekeen urte errazak ordukoak euskararentzat, ez euskarazaleentzat, baina gerora fraide ordenatu behar ziren fraidegai lerdenei, euren ikaste-prozesuan, agerian ez bazen ere, euskara lantzeko bidea irekitzeko arrazoi sendoak zituzten fraideok. Zeren, behin ordenatuz gero, euskal herrietara irten beharko zuten, gehienetan binan-binan, herri euskaldunetan dotrina irakastera, misioak eta predikuak egitera, aitortzak egitera. Hara Martzelen arreba gazteenak, etxeko zahar-berrien ondo jakinean, zer idatzi digun: «Etxera kartak euskeraz idazten ebazan gatzetako bere komentuko sasoi haretan be, eta amari zuzendutako hitz

goxoak eta esakune umoretsuak txertatzen zituan. Gure eritxian euskalzaletasuna berak sustraitu eban. Egia esan, gure etxeko hizkuntza beti euskera izan da; amak ez ekian gaztelaniarik. Baina Martzelek duintasunez erabilten eban euskera, dotore eta goxo, eta horrek euskera horrela erabiltearen harrotasuna emoten euskun».

Bigarren etapa, ia gizontzeko bidean, Arabako goi-lautadako sartaldeko bazter batean izan zen: «Ondoren, Angostora, urte ta erdian praile bizitzaz jabetzeko, eta botoak eginaz Jaunari baietz emoteko». Hurrengo etapa, hirugarrena, Nafarroako behe lautadan, gero berriz Gipuzkoa aldera itzultzeko. Hala dio: «Beste lau [urte] Tafallan, filosofia eta abarrez buruak freskatzeko, eta azkenik Urretxun, teologiaz eta Bibliaz buru-bihotzak argitu eta berotzeko».

Gipuzkoako herri horretantxe eman zuten egun berean meza berria hemezortzi fraide gazte zindok. Berberak dioskunez: «Meza barria emon (1954. urtean) eta plazara».

Fraide gaztea eliz bokazio berrien bila

Behin fraide ordenatuz gero, Deustura bidali zuten aita Martzel. Ordurako jada, Bilboko udalerrriak bereturik eta barruturik zeukan lehenagoko Deustuko elizate zabala, baina ondo ohar gaitzen, gerora ere (eta oraindik ere), nortasun handiaren jabe izan dela Deustuko elizate zaharra. San Felizisimoko elizaren ardura pasiotarren komunitateak zuen aldi horretan, gaur bezalaxe, eta huraxe izan zen Martzelen lehen misioa. Iruzubietako mutikoa, Hegoaldeko lau euskal lurraldeetan ikasketaz hornitzen urte luzeak eman ondoren, Bilboko hiriburuan, Bizkaiaren bihotzean.

Beraren hitzez, hara, hartu behar izan zituen eginkizun nagusiak: «Bilboko Tivoli kalean eta Areetako [Getxoko Areetako moja] erlijiosen etxeetan bokazino-argitze-prozesuan sartzen ziran batzuk, Jesus Kurutzekoari eskeintzen jakozan bizitza osorako. Nire gidaripean, gehienak pasiotar ahizpa erlijiosen kongregazinora sartu ziran».

Handik aurrera Bizkaiko herri txikietan bokazio berri eta gazte bila eginiko ibilerak ere kontatzen dizkigu; Bilbo eta Areetatik urruntxoagora hegaz eginda, batez ere herritxo euskaldunetan. Beronen autobiografia-lan horretan badu argazki bat, kaskoa buruan eta Lambretta motorraren gainean, noranzko edo haranzko

bidean ageri dena. Eta argazkiaren gainetxoan, umorezko goi-esaldi laburra: «Ume-lapurretan». Martzel berak aitor digu: «Urte askotan parrokiiz parroki eta eskolarik eskola ibili nintzan prailegai txikien bila».

Ekarkorrak izan ziren, nonbaiten ere, ibilerok. Uzta ugaria bildu zuen, antza denez, bere ibiltze eta ahalegin lehiatsu horietan: «Eroan nebazanak ehundaka izango ziran, baina gehienak, hegoak hazi ahala, beste aide batzuen eraginez, beste bide bat hartu eben». Aldi horretan binan ibiltzen ziren eskolarik eskola komentu-fraideok. Aita Martzel eta aita Eleuteriok bikote-uztarri sendoa egiten zuten pasiotar ordenakoen artean. Arrakasta on horren arrazoiatariko bat, aldi hartan pisu handikoa, bere arreba Maribiren esanean: «Sasoi haretan, beragandik hasita, ez egoan *eskolarik* jasotzeko aukerarik, eta egonaldi hareetan ereindako hazi intelektualak bere fruitu ugariak emon izan ditu gure Euskal Herri honetan».

Izan ere, iragan mendeko hirurogeiko hamarkadaz ari gara berariaz. Aita Martzelek, bere zahartzaroko biografia horretan dio, berak komentuetaara erakarritako gaztetxo horiek, kaskondu edo berdingotu ahala beste bide batzuk hartzen zituztela bizitzan.

Ez dezagun ahantz, bestalde, aldi horretan ere bazirela gure herri eta auzoetan gurasoak begi onez ikusten ez zutenak eskola-umeak komentuetaara bideratzeko jokabide hori. Eta orduan fundaturiko esaera da «ume-lapurretan» zebiltzalako horrena ere. Hala esaten zen orduan, edozein ordenatako fraideak zirela ere. Eta hala entzun izan diot behin baino sarriago Jon Lopategi bertsolari handia izan zenari ere, bere azken urteetan. Anekdotak bat ere bada, alditsu horretan *Anaitasuna* aldizkarian publikatu zen eztabaida gordin garratz batena. 1967ko urtean, Bilboko *Anaitasuna* aldizkariaren orrietan eztabaida garratza erne zen Josu Arenaza eta Martzel Andrinuaren artean. Osagile abertzale eta idazleak, «ume-lapurretan» jardutea salatzen zuen *Agur* astekariaren idatzi batean, eta aita Martzel fraidearen erantzuna aldizkariaren hurrengo zenbaki batean, «fama-lapurretan» iraindu izana salatuz. Hara aita Martzelen argudioa ironia gordinez beteriko hitz horren gorabehera: «“Ume lapurretan” esaera honegaz uxatu gura ebezan mutikoak, baina alperrik; hobeagorik eskeindu ezik. Dana dala, bidelagun onak dira. “Ume-lapurretan.”. Hain merke holango bideetara orduan urten eta holango eskeintzak egitea “ume-lapurretan” egitea bada..., betoz holango lapur asko».

Aurrekoaren harira, Arratiatik ere bildu ditugu aldi horretako bokazio bila ibiltze horien jakingarri batzuk. Eskola-mutikoen bila eskolan-eta bai, baina

«neskatxien bile» ere, «erromerire moduko» neskatxen bila ere jarduten zutela gure fraide sutsuek. Eta fedearekin batera, eta ez indar txikiagoarekin, herrietako neskatxirik politenak komentura bidean ipini ere bai. Hortxe hirurogeitaka urteetako kontuak dira hauek, testigantzen arabera.

Euskarazko lehen meza Bilbon

Hamarkada horrexetakoa da Bilbon euskarazko lehen meza eman zenekoa ere, Pablo Gulpide Bilboko gotzain zenekoa. 1963-64 inguruko kontua, hurrean. Beraren hitzez: «Ustekabean heldu jatan eskabide berezi bat Bilboko Euskaltzaindiatik eta euskarazale batzuek eginda: “Aita Martzel, prest al zagoz Bilbon hileroko lehenengo barikuetan euskeraz meza bat emoteko? Ez daukagu meza bat ere euskeraz Bilbo osoan, ez domekaz, ez astegunez”. Nire baietza, arduraz, baina pozik emon neutsen». Bilboko eskolapioen elizan ematen zen meza horrek lau hilabete iraun zuen. Justo Mokoroa euskarazale, irakasle eta lokuzio-biltzaile berdingabea bertan bizi bazen ere, eskolapioen nagusi jeneralak Erromatik emandako debeku-agindu zorrotzari ezin aurre egin. Handik aurrera Indautxuko jesulagunen elizan aurkitu zuen behin-behineko babesa Bilboko euskarazko mezak. Hantxe eman izan zuen aita Martzelek euskarazko meza hori aldi batez. Entzute handia eta eragin hain zabala irabazi zuen euskarazko meza horrek Bilboko euskarazaleen artean ezen Indautxuko meza horri ere iritsi zitzaion debekua; oraingoan Bilboko gotzainaren agindu zuzenez, Pablo Gulpide jaunaren idatzizko aginduz.

Martzel Andrinuaren euskaltzaletasuna, «euskaldun fededun» lemari zindo eta gartsu zerraikiolarik, Bilboko hiriburua desatsegin bihurtu zen berarentzat eta aldi hartako euskarazale askorentzat. Ez zen han giro. Bilboko kalearte eta bazterrak gehiegi «erantatzen» zituen aita Martzelek dirudienez, bere euskarazko meza eta sermoien bidez. Horretan ere handiro erakutsi zuen oratoria ondo baliatzen zekien plazagizonaren dohaina. Baina ezintasun giro mingots horretan, Gulpide gotzainaren euskaraz meza emateko debekua jaso zuenean, esan omen zion ordenako nagusiari: «Ni alperrik nago Bilbon», eta Euban eraikitzen ari ziren seminario-ikastetxe berrira joan zen bizitzen.

Berberak aitor digu antzeko zerbait gertatu omen zitzaiola aita Patxi fraide ordena-lagun eta Arrietako semeari ere. Hari buruz dio: «Han-hemen euskaldunei euskeraz meza emoten eutselako, Angostoko bakardadera bialduaz zigortu eben».

Gogora dezagun bide batez, aita Patxi fraide pasiotarraren biografia liburua, Martzel Andrinuak berak idatzi zuela haren heriotzean (Euba-Amorebieta 2000).

Eliz ardurak

Mari Angeles Angoitiaren hitzez: «Lurraldeko Bikario aukeratu eben hiru alditan. 1970etik 1982ra bitartea. Orduan Luis Maria Larrea jauna gotzain zala hartu ebazan A. Martzelek hiru herri txiki eta eskatu eban baldintza lez, gure laguntza. Eta gotzainak emon euskun Bizkaiko lehenengo laiko arduradunen titulua eta agindua, Milari eta niri. Hor be ibili zan A. Martzel euskal giroa sortzen. Dantza-taldeak, koruak, guraso alkarteak eta abar».

Mila Egiguren laguntzaile izendatua luzaroko urteetan izan da, besteak beste, Martzel Andrinuarekin batera Bizkaia Irratian iganderoko jardunak egiten solaskide.

Euskaltzale sutsu eta bertsozale

Zaletasun anitzen jabe izan da aita Martzel. Beraren arreba Maribiren hitzez: «Sinesmenduna eta bere bokazioari entregatua, baina herri honetako izate sakonaz hornitua: euskaltzalea, abertzalea, bertsozalea, pilotazalea, solasaldi zale bezala definituko neuke, umore puntuaz. Atsegin zituen taldeko tertuliak, kontu-kontari herritarrekin aritzea».

Martzel Andrinuaren dohain handietariko bat, hizlari onarena. Hitzaren dohaina zuen, eta ildo horretan, bertso-zaletasuna ere gaztetxotatik agertu zuen, eta behin herriz herri edo plazarik plaza, meza ematen edo misio ematen hasi zenez gero, agerian uzten zuen bertsotarako eta bertsogintzarako zaletasun hori zolitasun handiz.

Euskaltzaindiaren gerizpean urte horietan antolatu ziren bertso-txapelketetan ere epai-mahaiko jardun zuen Martzelek zenbait urtez. Alfontso Irigoien euskaltzaina izan zen gerraoste ilun horretan bertso-txapelketen sustatzaile. 1958an Bilboko Areatzan ospatu zen lehenengo Bizkaikoa. Beraren hitzez: «Hiru-lau urtetan suertatu jatan mahaikide izatea, lehenengo Bizkaiko txapelketetan, eta ondoren Donostiako txapelketa orokorrean». Handik mende erdira ohorezko aipamena

aitortu zieten Jon Azpillaga, Jon Lopategi eta Martzel Andrinuari, Barakaldoko BEC erakustokian zelebratu zen Euskal Herriko Txapelketa Nagusian.

Ikastola-sortzaile eta eragile sutsu agertu zen, oraindik diktadurapeko urteetan. Mari Angeles Angoitiairen hitzez: «Euskal katekesiaren kerizpean hainbat ikastola (ilegal, Franco hil arte) sortu ebazan. Lemoan, Igorren, Matienan eta Berrizen. [...] Franco hil zanean legalizau ziran eta ikastolen izenean jarraitu».

Idazle oparoa

Hizkera lau, gozo eta berezkoaren jabe izan dela, eta edonork erraz ulertu eta gozatzeko eran idatzi izan duela euskaraz aitortuko nuke. Maribi arrebaren hitzetan: «Euskera herrikoia eta herri xeheak ulertzeko modukoa landu, erabili eta plazaratu zuen. Hori zen bere helburua: hizkera gozoan eta errazean mezuak helaraztea; gainera, bertso doinuz eta errimaz osotua».

Asko idatzi izan du. Hitzez esan behar zuen hori idatziz ondu eta birlantzeko ardura hartu izan du. Eta adur onak lagundu dio neurri batean, idazten zuena argitaratzeko orduan ere. Ibaizabal argitaletxeak Bizian Gora bilduman argitaratu izan dizkio zortzi-bederatzi lan, bere berbazko jardunetan oinarri harturik.

Bertsozko liburuak ere ezagunak ditu. *Kezkaz* izenburupean atera zuen 1981ean bertso-bilduma mardul bat, atze-eranskinean eurok kantatzeko 36 doinu-pentagrama zituela.

Oraintsuago, 2007an, edizio apain azal lodiko batean bildurik argitaratu ziren *Aita Martzel bertsolari* izenburuaz. Nikolas Aldai idazle bertsozaleak hitzaurre eder batez hornituriko edizioa: *Aita Martzel, komunikazioaren harian*. Gaur omentzen dugun Martzelen biografia-ibilbideak ezagutzeko obra guztiz ezagugarria. IKA Kultur Alkartearen ekimenez egin zen edizio hori, beharleku horretan ere Maria Angeles Angoitia eta Mila Egiguren laguntzaile zindo zituela.

Umore handiko gizona

Hirugarren ezpal bat nabarmendu nahi nuke, Martzel Andrinuaren idatzietan ageri dena, nahiz ez hain ezaguna izan berau. *Iso nahiz arre, egizu barre* izenburupean

zahartzaro betean argitaratu izan duen liburua. Obra mardula, izkirimiri barre eragikarri laburrez hornitua. Idatzi-atal laburrak bai, baina guztira ia milara heltzen direnak (950). Laurogei urte betetzearan gogo-buruetan zituen kontakizun laburrak askatu behar eta bere zaran ondo bete-betea hustu. Obra horixe da gutxien ezagutzen dena, baina Martzel Andrinuaren berezko izaera umoretsu eta baikorraren lekuko aparta. Idatziz utzi digun testamenturik ederrena, gure iritzian. Bat irakurtzeko gomendatu behar banu, horixe opatuko nioke irakurle euskaltzaleari.

Hizlari aparta, hitzezko hedabideei atxikia

Meza, elizkizun, misio eta bestelako jardunetan ondo erakutsi du Martzelek, edertotxo menderatzen zuela gaztetxotan ikasi zukeen erretorika. Ez nago sinistuta, hala ere, komentuko erretorika-eskolen meritua izan ote den, guztian behintzat, hizlari bezala landu eta erakutsi dizkigun gaitasun-trebeziena. Berezkoa zukeen dohain hori, eta aurrez aurreko jardunetan ez ezik, hedabideetan ere duintasun handiz geratu izan du bere dohain hori.

Hirurogeiko hamarkadan Arrate Irratian lankide jardun zuen, Durangoko laukote batean tarteko zela. Beraren hitzez: «Oiztik Anbotora izenez antolatzen hasi ginan taldetxo bat, Durangaldeko laukote bat». Talde horren irrati-boza Martzel Andrinua bera zen. Baina tamalez, horretan zihardutela, itxi egin zuten hainbat urtetarako irrati hori eta irratsaioak etenda geratu ziren.

Askoz oraintsuagokoa da Bizkaia Irratian izan duen irrati-jarduna. Bera hil aurretik arte entzun ahal izan dugu irrati bere asteroko, iganderoko jarduntxoak: *Kristau gaur eta hemen*. Luzaroko urteetan zintzoro bete izan duen mezako irakurgaien gaineko jardun hori entzutea sarri egokitu zait, beti ere asteen asteango gaiari zegozkion bertsoez apainguriko saioa. Hasiera hartan, Julian Olazabalaga apaiza izan zuen lagun, eta gero luzaroetan Mila Eiguren eta Mari Angeles Angoitia emakume laguntzaileak.

Aitormenak eta sariak

Euskal hizkuntzaren alde egin izan dituen sari edo aitormenak berandukoak dira berez, horretarako merituek aspaldi burutuak bazituen ere.

Kide urgazle 1961ean izendatu zuen Euskaltzaindiak, eta ohorezko, oraintsu oraindino; 2018an.

Bilboko elizbarrutiak ere, euskaltzain ohorezko izendatu zuten urte berean aitortu zion Karmelo Etxenagusia Saria, euskara, euskal kultura eta fedearen alde luzaroko urteetan eginiko lanaren aitormen gisa eta esker sari.

Bi hitzez amaitzeko, Martzelek bizi izan dituen 94 urteotan, hil aurretikora arte, eten barik jardun izan du euskaraz kristau fedea predikatzen eta zabaltzen, fedearekin batera, euskararen eta euskalduntasunaren lehia izan dituela bere bizitzaren zutabe eta ardatz.

Pentsaeran eboluzioa

Maribi Andrinua arrebak honako pasarteaz laburbiltzen du Martzelen joan-etorri luzeen aldaera: «90 urteak pasatuta ere ekintzaile jardun eban. Bere jardunak eboluzionatu egin eban eta denbora bakoitzera egokitzen jakin eban. [...] konbentuko formazio urteez gain, Vatikanoko II.aren ondoren izandako formazio-saioek eragina izan eben bere kristau izatea gaurko mundura egokitze eta laikoaren garrantzia erdigunean jartzeko». «Nik *Batikanoko kontzilio* ondorengo ibilbidea azpimarratuko nuke, taldeak sortzen, batez ere nekazal giroko parroketan, eta talde horiek elikatzeko euskal materialak eratzen egindako lan itzela. Talde hauek pisua izan zuten, batez ere IV. eta V. bikarietan: Friasko udalekuak (guraso taldeak, monitore eta ume), Beti Aurrera gazte-taldeak, Gogoeta Astea: Euskal Herri mailako gogoeta gunea 34 urtetan, Bizian Gorako taldeak...».

Esker ematea

Idatzi hau atontzean informazioz hornitzen lagundu didatenen izenak aipatu eta, batez ere, eskertu nahi ditut, idatzi honen akaberan.

Anton Mari Aldekoa-Otalora, berau ere pasiotarretan umetatik ikasi izana eta Martzel Andrinuak bera komentura zuzendu zuena, hainbat jakingarri, bertso idatzi eta bibliografia-iturriren hornitzaile izan dugu; kantatu ere zituenak, Gontzal Mendibil kantariaren laguntzaz, Euskaltzaindiaren egoitzan ospatu zen hilberri-ekitaldian.

Jabier Kalzakorta ikertzaile eta adiskideari, batetik markinarra eta bestetik Iruzubieta eta inguru zabalagoaren ezagule ona izanik, zenbait bibliografia-iturri eta iritzi jakingarri eskaini dizkigulako.

Marian Angoitia Arratiako alabari, Martzel Andrinuaren ibilbidean laguntzaile hurreko eta luzaroko izan denari, haren euskal idatzien sorkuntzan eta garapenean, bestelako kristaugintza ardura askotan bezala, berme seguru izan denari, hain zuzen ere, guri hainbat argibide eta jakingarri aditzera eman izanagatik.

Azkenik, Martzel zenaren etxeko hurrenekoei, Maribi Andrinua arreba gazteari eta Jose Inazio haren lobarri, eurok izan baitira etxekoekiko eta inguru hurbilarekiko harremanaz jakingarri ezin ordaindukoak eskuratu dizkigutenak.

Eskerrik asko.

In memoriam

Georges Rebuschi
(Paris, 1949 - Nancy, 2024)

—Miren Azkarate—

Euskaltzaindiak, euskarak oro har, beti erakarri ditu, zorionez, kanpoko hizkuntzalariak. Humboldt看 edo Schuchardtek izan dituzte jarraitzaileak xx. eta xxi. mendeetan ere. xix. mendean euskarak erakarri zituen Frantziau L  cluse, Bonaparte printzea, Louis G  ze, Luchaire edo Julien Vinson. Beste belaunaldi batek hartu zien lekukoa xx. mendean: Albert L  onek, Georges H  rellek, Henri Gavelek, Lafonek, Andr   Martinetek, Genevi  ve N'Diayek edo Jacques All  res-ek. «Georges Rebuschi da euskararekiko interesa duen hizkuntzalarien belaunaldi berria», idatzi zuen Haritschelharek, hain zuzen ere Rebuschiren doktore-tesiaren argitalpeneko hitzaurrean.

1949ko martxoaren 10ean jaio zen Rebuschi Parisen eta Nancyn hil, 2024ko urriaren 23an. Hizkuntzalaritzan doktore-gradua lortu zuen Paris VII Unibertsitatean, 1984an argitaratu zen *Structure de l'  nonc   en basque* lan mardularekin.

Sorbona Berria (Paris III) Unibertsitateko irakasle emeritua zen.

Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1991ko urtarrilaren 31n eta ohorezko euskaltzain, 2002ko azaroaren 29an.

Horraino Euskaltzaindiaren webguneak Georges Rebuschiren gainean ematen digun informazioa.

Zer merezimendu egin zituen, baina, Rebuschik gaur hemen haren hilberri txostena irakurtzeko? Frantziar hizkuntzalariren ibilbide akademikoa aztertzean,

ohartuko gara eten gabe jarraitu zuela euskara ikertzen eta emaitzak argitaratzen 35 urteko ibilbide luzean. Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo, frantsesez nahiz ingelesez.

1978an argitaratu zuen euskararen gaineko lehen artikulua, hala esango nuke, Nancyko Unibertsitateko *Verbum* aldizkarian. Eta 2013an ere jarraitzen zuen Iparraldeko euskararen zehar-galderen berezitasunak aztertzen.

Euskara ez da, ordea, izan zuen ikergai bakarra. Argitaratu zituen lanak, kongresuetan aurkeztutako komunikazioak, emandako hitzaldiak... kontuan hartuta, lau atal nagusitan bana daiteke Rebuschiren ekarpena.

Hizkuntzalaritza orokorra

Arantzazuko Biltzarraren 50. urteurrenaren harira antolatu genuen Gramatika Jardunaldian, argitaratze bidean zen *Euskararen Gramatikaz* esan nuen XVI. edo XVII. mendetik hona asko aldatu dela hizkuntzen sistema morfologiko edo sintaktikoa deskribatzeko modua. Gramatikak hizkuntza jakin baten osagaien (hotsen, formen, joskeren) azterketa eta azalpena direla onartzen dugu, baina alde handiak egon daitezke azterketa eta azalpen horiek egiteko eta emateko moduan. Garaian garaiko moldeak, kontzeptuak, izaten dituzte eskura gramatikariek eta horien arabera deskribatu eta azaltzen dituzte hizkuntzen ezaugarriak.

Garai hartako teoriez arduratu zen Rebuschi, nazioarteko aldizkarietan, liburu-etako kapitulu-etan argitaratu zituen lanetan: Chomskyren gramatika sortzaileak zekartzan berrikuntzez, Gobernu eta Uztaduraren teoriak, eta, batez ere, uztarduraz, konfigurazionaltasunaz / ez-konfigurazionaltasunaz (hizkuntza guztiek ote dute AS?) eta lokalitateaz (egitura bateko elementuen arteko gertutasunaz). Bestalde, hizkuntzen tipologiaren gaia ere landu zuen, beste batzuen artean.

Hizkuntzalaritzan garatzen ari ziren teoria eta aztermoldeak euskarara ere aplikatu zituen, jakina, berehala ikusiko dugun bezala.

Euskara ez beste hizkuntza batzuetako lanak

Hizkuntzalaritzako garaiko teoriak erabili zituen beste hizkuntza batzuek aztertzeko ere. Hor ditugu, esaterako, *Sur la notion de SV et la position typologique du nahuatl*, 1990ean edo ingelesaren sintaxiaz idatzitakoak, frantsesez *cleft sentences* delakorik ba ote dagoen, bantu hizkuntzen komunztadura auziak, edo zero erlatiboak eta komunztadura swahiliz.

Euskararen gainekoak

Lanik ugarienak, ordea, euskarari eskainitakoak dira, bi atal nagusitan bana daitezkeenak:

a) Atzerrian argitaraturiko liburuetaiko artikulua, aldizkarietan argitaratua, kongresuetan aurkeztuak zein hitzaldi gonbidatuetaoak.

Zein gai landu zituen? Ugari; gutxi batzuk baino ez aipatzearren, ez-konfigurazionaltasuna eta anaforak, euskaraz ASrik ote dagoen gogoeta, euskararen zenbait ezaugarri tipologiko, posesiboak eta euskalkien arteko aldakortasuna, alokutiboa, erlatiboak...

Atal honetako ezagunena doktore-tesia dela esango nuke: *Structure de l'énoncé en basque*, 1984an argitaratua.

b) Hemengo aldizkarietan argitaratuak, dela ASJUn, FLVn, *Lapurdumen*... Edo liburu baten edo bestean (esaterako, *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, P. Goenaga argitaratzaile izan zuena). Edo hitzaldietan.

Gaietan ez dago aldaketarik: «uztarduraren teoria, diakronia eta enunziazioa: euskararen anafora posesiboak», «subjektua, ergatibotasuna, eta (ez-)konfigurazionaltasuna: euskararen lekua tipologia generatiboan», euskararen ez-konfigurazionaltasuna eta horri loturiko zenbait fenomeno... Eta, horrekin batera, erlatiboak, perpaus korrelatiboak...

1988ko Euskara Biltzarrean ere parte hartu zuen, bai eta Haritschelhar argitaratzaile izan zuen *Hommage au Musée basque* liburuan ere.

Rebuschik euskararen gainean eginiko ikerlanez, 1997an *Éssais de linguistique basque* argitaratu zen ASJUren gehigarri moduan, ordura arte argitaratutako 15 artikulua biltzen dituen.

Euskaltzaindiarekikoak

Argi utzi zuen Georges Rebuschik bazuela harremana Euskaltzaindiarekin, ezagutzen zituela Euskaltzaindiaren eta euskaltzainen lanak. *Euskera* aldizkarian argitaratutako lanez gain, bi atal nabarmendu nahi ditut:

a) Batetik, Euskaltzaindiaren biltzarretan izandako parte hartzea.

1981ean Euskalarien nazioarteko jardunaldietan

1984an Iruñean, Euskaltzaindiaren X. Biltzarrean

Nazioarteko dialektologia biltzarrean 1993an

Lafitteren sortzearen mendeurrenako biltzarrean

b) Euskaltzainen omenezko liburuetan izandako parte hartzea (ez nahitaez guztiak Euskaltzaindiak argitaratuak). Nekez aurkituko dugu omenezko edo gorazarrezko libururik Rebuschiren ekarpenik ez duenik.

Piarres Lafitteri Omenaldia, 1983an

Mitxelenaren omenez ASJUk argitaraturikoa

Rudolf de Rijken omenezko *Erramu boneta*

Andolin Eguzkitzaren omenezko *Andolin gogoan: Essays in Honour of Professor Eguzkitza* liburua.

Jean Haritschelharen omenezkoa

Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez, 2008an

Beñat Oihartzabali gorazarrean, 2009an

Eta ez dut amaitu nahi Rebuschiren ekarpenen zerrenda hau, *Comptes rendus* edo kontu-errendapenak aipatu gabe. Hasi 1978an eta 2008 arte gutxienez euskarazko lanen kontu eman zuen *Bulletin de la Société de Linguistique* aldizkarian.

Askotan *Euskera* aldizkariko lanen berri

Beste batzuetan ASJUkoak edo FLVkoak

Edo euskal gramatikenak (Haize Garbia, Wilbur, Ortiz de Urbina)

Euskal fonologiaren gainekoak (Mitxelenaren *Fonética Histórica Vascaren* bigarren argitaraldia, Hualderen *Basque Phonology*)

Orotariko *Euskal Hiztegia*

The Basque Dialect of Lekeitio, Le parler basque souletin des Arbailles: une approche de l'ergativité, Euskal Dialektologia Kongresua (1997, Gomez eta Lakarra arg.)

Hualde eta Ortiz de Urbinaren *Generative Studies in Basque Linguistics*

Hualde, Lakarra eta Trasken *Towards a History of the Basque Language*

Tovarren *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*

Patxi Altunaren eta Luis Villasanteren omenez paraturiko liburuak

Oihenarten laugarren mendeurrenaren harira argitaratu zen Iker bildumako 8. liburua.

Euskalari batzuek egun bateko lana egin dezakete euskara ikertzen, eta onak dira. Beste batzuek, urtebetez jardungo dute horretan, eta horiek hobeak dira. Badira urte luzez ari direnak, eta horiek oso onak dira. Baina badira bizitza osoa ematen diotenak euskaren ikerketa eta zabalkundeari; horiek dira ezinbestekoak. Bertold Brechten hitzak euskararen eta ikerketaren mundura ekarriz gero, zalantzarik gabe ezinbestekoen taldekoa izan zen Georges Rebuschi, 35 urteko ibilbide luzeak argi uzten duen bezala.

In memoriam

Xabier Erdozia Landa (Donostia, 1935 - Lekeitio, 2024)

—Andres Urrutia—

Euskara ekimenez

Xabier Erdozia (1935-2024) euskaltzain urgazlearen hilberri txostena hasterakoan, ezin dut ostendu Euskaltzaindiaren izaera bikoitza, Erdoziak ezin egokiago ikusarazi zuena.

Gurean, bada, bi alor desberdin batzen dira euskararen defentsan eta aldeketasunean: *Iker* eta *Jagon*, bi-biok direla ezinbestekoak euskararen txanponean, zin-zinezko *leon-castilloan*.

Iker Sailean ikusten dugu sarriegi Akademiaren zeregina, ahaztuz, aldi berean, bi-biok nahitaezkoak direla, hizkuntza bizia nahi baldin bada, euskararen iraupena bermatzeko eguneroko bizitzan.

Izan ere, hori izan zen Xabier Erdozia euskaltzainaren ezaugarria. Donostian, kasualitatez, berak esaten zuen moduan, jaio arren lekeitiarra zen barru-barrutik eta euskaltzalea. Euskaltzaletasun hori sendotu zitzaion, sendotu ere, Saturrarango mintegian egon zen bost urteetan. Han izan zuen aukera aparta Andoni Basterretxea abade ondarroarraren euskal irakaskuntza gozatzeko eta baliatzeko.

Egia esan, Basterretxea apeza ezagutu dugunontzat, euskara haren aho-mihitik naturaltasunez zetorren, ura haitzari darion legez.

Handik hurrengora, Xabier Erdoziak gogor lan egin behar izan zuen, batxiler ikasketak burutu eta orobat, Ekonomiarenak, tartean futbol jokalaria ere bazela.

Biografia oparoa eta aldi berean euskaltzalea, berak halaxe adierazten baitu, garai eta aldi zailenetan. Euskara ez zen orduan bere boladarik onenean eta mesprezuak eta irainak edonon ziren euskara erabili eta kaleetan zehar euskal hitzak entzuten zirenean.

Giro latza, beraz, baina Erdozia euskaltzainak jakin zuen, alde edo moldez, berea aurrera ateratzen. Hasieran Arregi S.A. taldean lanean hasi bazen ere, laster aurkitu zuen habia Arrasate herrian, bertara José María Arizmendiarrjeta Etxebarriko abadea eta kooperatiben sustatzaileak deituta. Laster genuen Xabier Erdozia bertan. 1967. urtean ekonomia aholkulari hasi zen Laboral Kutxan harik eta 1992. urtean Mondragon Corporación Cooperativara joan arte eta bertan jubilatu 2000. urtean.

Lankidetzak horrek ekarri zion hainbat kooperatibako batzordekide izatea: Ikerlan, Lagunaro, Arrasateko Eskola Politeknikoa, Lea-Artibaiko Eskola Politeknikoa, Eroski... Mondragon Korporazioaren idazkari orokorra izatea eta, zer esanik ez, berarekin zeraman euskaltzaleatasunaren zabalkundea egiteko ahalegina eguneroko lanean, batez ere, ekonomia eta kudeaketa gaitetan. Hartara, euskara noranahi eramateko bide malkar horretan beti euskara ezpainenetan, eta baita ere, obretan, idatzi eta abarretan. Horretarako, zer esanik ez, kooperatiben mundua, era-erara, berreuskalduntze bidean esanguratsu izan dena eta badena.

Lekeition ere bajurako arrantzan, laguntzaile kooperatiba moduan arrantzaleek lan egin zezaten. Horretara etorri ziren *Rosario* itsas untzia eta *Amandarri* (1963) eta *Agurtza* (1969).

Askotan, euskaltzale baten biografian bilatzen dira haren emaitza bibliografikoak, baztertuz euskara bera aldeztu daitekeela modu ugarietan, eta horietariko bat dela, eta ez laburrena, eguneroko zereginetan euskararen mintzapraktika bizia sustatzea, Erdoziak egin zuen moduan.

Era berean, familia ere osotu zuen María Luisa Leturia eta Katalin, Miren, Olatz eta Xabier lau seme-alabekin, Arrasate eta Lekeitio herrien artean hasi eta hezi zuena. Geroenean, jubilazio garaia etorri zitzaionean, bere Lekeitio kutunera itzuli zen. Esan gabe doa, euskararen aldeketasuna ere gorde eta ziurtatu zuela.

Natorren, alabaina, hasierako puntura. Behin baino gehiagotan aipatua izanda gure artean Euskaltzaindiari falta izan zaizkiola halako laguntzaileak, halako

sostengatzaileak, eguneroko bizimoduan eta bizibidean euren eskarmentua ekartzen diotena, Akademiaren antolakuntza eta zereginetan.

Horra, bada, Xabier Erdoziaren erantzukizun egokia eta guztizkoa, Euskaltzaindiak 1997. urtean eskatu zionean bere jakituria bertara ekartzea, Akademiarentzat finantzazio iturri berriak bilatzeko.

Orduantxe antolatu zen Lege Ekonomia Batzordea, kide esanguratsuekin: Abel Muniategi, Andres Urrutia eta Patxi Zabaleta Lege Azpibatzordean eta Kepa Amezaga, Jon Castañares, Xabier Erdozia, Sebastián García Trujillo, Jose M. Makua Goienetxe eta Juanjo Zearreta idazkari Ekonomia Azpibatzordean. Buru Jean Haritschelhar, idazkari Jose Luis Lizundia eta kideak Patxi Goenaga, Henrike Knörr eta Jose Antonio Arana Martija.

Helburuen artean, Euskaltzaindiaren aldeko fundazioa sortzea, ohiko finantzazioaz aparte, egitasmo bereziak bultzatzeko. Bost urtez aritu ginen eta fundazioa sortu zen, gerogarrenean bidea egiteko prest izango zena. Horretan ere, ezin aipatu gabe utzi Javier Saizar Badiola kudeatzailea.

2003. urtean izendatu zuen Euskaltzaindiak Xabier Erdozia euskaltzain urgazle eta, jakina, Xabierrek izendapen hori hartu zuen hainbat izen ezagunen artean, besteak beste, egun euskaltzain osoak diren Aurelia Arkotxa edo Miriam Urkia.

Ugariak izan dira Euskaltzaindiak Lekeition egin dituen egonaldiak eta bisitak. Guztietan izan genuen Xabierren laguntza eta partaidetza. Orobat, ageriko bilkura batzuetan eta jardunetan.

Euskarari dagokiona laburbilduz Xabier Erdoziak berak esana eta idatzia: «Hau guztia, gure aburuz, egin beharra zegoen, ezen orduan ez egoen laguntza publikorik edo, bazeuden, oso murrizak ziren».

Euskararen Aholku batzordekidea ere izan zen sei urtez eta bere lana honela xehezu zuen: «Gure arloaren xedea euskara, lan-munduan, zein beste edozein esparrutan nola ondoen txertatu eta erabilarazi zen».

Xabier hori egiten saiatu zen, behin eta berriro, uste zuelako euskara zela bere bizitzaren bizkar-hezurra ez ezik, bere ingurune osoarena ere: familia, lagunak, Lekeitio herria, Euskal Herria.

Hala predikatu zuen berak, eredu bizia eskainiz eta bidea erakutsiz, guk orain bide horri eutsi diezaiogun.

Gera bedi hori Xabier Erdoziaren gomutan eta letra idatzietan izan dezagun omenaldi laburra bezain zintzoa, berak eginiko eginahalen ordain xumea, gaur Euskaltzaindiak esker onez eskaintzen diona.

In memoriam

**Patri Urkizu Sarasua
(Lezo, 1946 - Donostia, 2024)**

—Arantzazu Fernández—

PATRI URKIZUREN OMENEZ

2024ko abenduaren 18tik falta zaigu Patrizio Urkizu Sarasua urgazlea. Hurrengo lerroek haren ibilbidea berrikusteko ez ezik, lagun eta irakasle izan duguna omentzeko balio dezaten. Zertzelada batzuk baino ez dira, ezinezkoa baita Patriren bezalako bizitza emankorrek laburtzea.

Denok dakigu Anton Abbadia eta Agosti Xahori buruz 2002 eta 1992an Patri Urkizuk argitaratutako biografiek balio dutela serie baten gidoiaren oinarria izateko; orobat, jakin badakigu bi gizon horien joan-etorriekin antzezlan on bana onduko luketela gidoi-idazleek. Horregatik erraza egiten zaigu Patri irudikatzea ETBn aholkulari gisa, haren ezagutza konpartituz telebistako gidoilariarekin, beste belaunaldi gazteagoko antzerkizaleekin haren jakinduria zabaltzeko zuen ohiturari jarraiki.

Lagunok gaude (Agus Perez, Lali Marimon, Idoia Gereñu, EHAZEko bazkide antzerkizaleok, besteak beste) Patriren bizitzarekin horrelako zerbeit ere egin genezakeela, bai, serie, antzezlan, filmaren baterako gidoia. Eta jakin badakigu Patrik ezetz esango lukeela, baina gu tematuko ginatekeela haren baimena lortu arte. Agian Pastoral «moderno» bat idatz genezakeela esango genioke, eta horren bitartez gizon euskaltzaileen belaunaldi baten bizipenak zein ezaugarriak islatzen saiatuko ginatekeela.

Pentsa dezagun, adibidez, Espainiako guda bukatu eta handik 7 urtera jaio zela Lezon, 1946. urtean. Zer ez zuen ikusiko? Zer ez zuen sentituko galtzaileen familia

euskaldun batean jaiotako umeak, aita erbesteratu baten semeak? Eta komentura eramán zutenean? Horrelaxe kontatu du Patrik berak *Eskribu galduen bila* izeneko autobiografian nola gertatu zen hori:

Santi Amiano adiskidea eta biok goiko elizaren horma baten kontra pilotan jokatzén ari ginela, fraide karmeldar bat agertu eta galderak egiten hasi zitzaigun. Gero etxetik pasatu zen, amarekin hitz egin eta galdetu zion ea nahi ote nuen Zornotzako kolegiara joan ikastaro bat egitera [...]. Hain ongi pasatu nuen hartan futbol-zelaian, frontoian eta buru-ariketa zenbait eginez, ezen jada ikusi zuten baliagarri izan nintekeela eta irailean ikasturtea has nezakeela [...] eta arropak prestatu behar nituela. Oroitzen ez dudán zenbaki bat ezarri zieten arropa guztiei: galtzerdi, galtzontzilo, barruko elastiko, galtza, alkandora, jertse, musuzapi eta bestelakoetan. Abarka pareá ere eramán behar nuela, haiekin jolastu behar baikenuen futboleán eta mendiko irtenaldietara joan.

Eta zer sentituko zuén Patrik, mutiko oraindik, karmeldarren apaiztegitik *injustuki* kaleratu zutenean? *Injustuki*, galdera gehiegi egin zituen unetik *baliagarria* izateari utzi baitzion komentutik kanporatuta. Fraideek esán egin ziotén —Patrik berak halaxe kontatuta— bazekitela fedea galduko zuela denborak aurrera egin ahala eta uste horrek itxi ziola bide erlijiosoán karrera egiteko aukera. Alta, *erabilgaitzat* eman zuten ikasle lezoar hori ordurako bazegoén euskaraz alfabetatuta eta bazuen ere antzerki eta kantuen zein bertsoén zaletasuna garatuta apaiztegiko egonaldiari esker. Euskarazko letretarako atxikimendua betirako eramán zuén komentu batetik —bere belaunaldiko gizon askok bezala—, hori eta inoiz ahaztu ez zitzaion Alesbeseko komentuan zegoén hotz ikaragarriaren sentsazioa.

Urte batzuk beranduago, Salamancan Filologia Erromanikoa ikasten ari zela, Antonio Tovar (1911-1985) irakasleak iradoki zion Pariseko Liburutegi Nazionaleko *Fonds Celtique* deritzon artxiboa arakatzeko, euskarazko dokumentu anitz zeudelako, antza. Une horretan hasi zitzaion akaso eskuizkribuak eskuratzeko grina, artxiboak bisitatzeko nahia, euskal letren altxorren xerka abiatzeko lehia.

Geroxeago, 1986. urteán, Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapeán doktoregoa lortu zuén Pierre d'Urteren hiztegiaren gaineko tesiarekin (*Pierre d'Urteren hiztegia: Londres 1715*) Euskal Herriko Unibertsitateán. Hortik aurrera, Patriren bizitza akademikoak ikuspuntu ezberdinetatik aztertzeiko ematen du: biografoa, antzerkigintzan eta bertsogintzan ikerle, artxiboetako eskuizkribu zale, aldizkari-editore, artíkulu anitzen egile, euskal kulturaren dibulgatzaile, Bordeleko

Unibertsitatean zein Madrileko UNEDen irakasle. Finean, literato (*Sekulorun sekulotan, Nola Kursaal berria suntsitu zen, Zoazte hemendik*) eta ikerlea, baina antzerkizaleontzat, edozeren gainetik, gure irakasle eta lagun eskuzabala izan da.

Ikertu eta idatzi duen guztitik antzerkizaleok ezinbestekotzat jotzen dugu, esaterako, *Euskal antzertia* (Antzerti 1984) liburua, non aurkitu baikenuen euskal teatroaren historia ikasten hasteko lehenbiziko eskuliburua; geroko argitalpenetan, Maria Dolores Agirreren lanaz (Egan 2004) zein *Zuberoako irri teatroaz* (Izpegi 1998) edota pastoraiei buruzko informazio sendoaz janzteko aukera izan genuen lez. Titulu horiek *Teatro popular vasco* (*Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición*) (UNED 2007) eta *Teatro Vasco. Historia, reseña y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones* (UNED 2009) nahitaezkoak suertatu zaizkigu gure teatro-heziketa akademikoan.

Aita onaren seme

Askotan aipatzen zuen amaren papera arreba Marikruz arrebak egin zuela. Familiazalea zen Patri, oso. Eta pertsona txeratsua, oso. Bitxia egiten zitzaidan niri, esate baterako, nola askotan aipatzen zituen bere aita, Patrizio Urkizu Maritxalar zena, haren pinturak eta bertsozaletasuna.

Izan ere, 1995ean kaleratu zuen *Zoazte hemendik* eleberria aitaren biografian oinarrituta dago. Hala zioen J.L. Zabalak eginiko elkarrizketan (*Euskaldunon Egunkaria* 1995-09-30):

Aitak beti izan zuen gertakariei buruz bertsoak idatzi eta kantatzeko joera. Komunioa, ezteiak edo antzeko zerbait zenean, hark bertsoa idatzi eta egun hartako bazkalondan kantatu egingo zuen. Bere bizitzaren halako aitorpentxo bat utzi zuen bertsotan idatzia, eta nik bertso horietako batzuk hartu nituen, gutxi, gerra eta erbesteraldia aipatzen zutenak besterik ez, eta bertso horiek abiapuntutzat hartuta, oinarri gehiago ere bilatu nuen: Lezoko jende zahararekin hitz egin, Tomas Garbizu, Melintxon eta abarrekin, eta horrela garai hartako lezoarrek gerra nola bizi izan zuten jakin ahal izan nuen.

Eta elkarrizketa berean «Zerk ematen dio interesa zure aitaren biografiari?» galderan zera gehitzen du: «Gizon arrunt baten biografia da, baina nik uste dut

gera egin zuten gehienak gizon arruntak izan zirela, eta horrenbestez nire aitaren bizitza paradigmatikoa izan daitekeela».

Eta Patri ezagutu genuenok uste dugu haren bizitza ere badela paradigmatikoa, aita bezala, gizon arrunta zelako, gizon arrunta baina aldi berean berezia. Herriko semea eta euskaltzale intelektuala. Bi-biak. Eta gizon arruntak direnak publikoaren kuttunak izaten dira filmetan, serieetan, nobeletan eta antzezlanetan. Eta Patrizio badela, aurten Euskaltzaindiak omentzen dituen beste batzuen antzera, garai bateko gizonezko euskaltzale paradigmatikoa, belaunaldikideekin euskara berrindartzeko ahaleginetan ibilitakoa. Patrizioren nortasunak aitaren izaeratik badu: aldi berean *normala* eta *espeziala* izatea. Era horretan, gai zen bere erudizio akademiko erakustaldiak egitearekin batera pilota partiduei buruzko azken berriak aletzeko. Jakitun eta herrikoia, oso hurbilerraza tratuan, aitaren ildokoa.

Lezoar

Alesbeseko apaiztegitik Lezora itzuli zenean, ez zen jada existitzen aitaren koadroetan ikusten zen Lezo herria, baizik eta industrializazio bortitzean eraldatutako hiribildua, itsasoa gero eta urrunago zuten karrikak, uretan bukatzen ez ziren kale-kantoiak. Eta horra hor gure Patri gaztearen ardura bere biografian deskribatuta:

[...] aitak eskaturik, 1962ko abuztuaren 17an makinaz jotako gutuna zuzendu nion Udaletxeari herriko arrantzaleen izenean, eskatuz bidera zezan zegokion erreklamazioa Portuko Aginteari, Junta de Obras del Puerto de Pasajes delakoari, moilak egin zirenean betiko arranpa edo behar bezalako eskailera batzuk egin zitzaizkion, zeren eta aipatu industriak egindakoan desagertzen ari baitziren beren antzinako moilak.

Hor hasiko ziren Patrizioren kezak bere herriarekiko? 16 urte baino ez zituen herriko marinelen izenean mintzo zenean.

Urte batzuk beranduago, 1979an, Patri Urkizu Lezoko alkate izendatu zuten lehenbiziko hauteskunde demokratikoetan, 1979tik 1983ra bitarteko aldian. Aldaketa, tentsio eta beldur garaiak ziren. Horrela, thriller ilun baten tonua eta tentsioan koka genezake gure Patri pertsonaia: goizetan irakasle zebilena

Errenteriako institutuan, eta arratsaldeetan herriko kudeaketa politikoan sartuta egoten zena. Agian hor garatuko zuen Patriziok bere ohiko pazientzia eta tenplea, garaiko itsaskirria, galerna zein sagailo nahiz enbatan nabigatzen zuen arrantzaletan semeak.

Beste alderik ez

Donostia bizileku hartuta, zenbat aldiz zeharkatu dugu Bidasoa pastoralak, maskaradak, libertimenduak edo kabalkadak ikusteko zure konpainian? Zenbat azalpen, argibide, deskribapen... eskaini izan dizkigu Patriziok berarekin batera joaten gineno? Zenbat ordu pasa ditugu berbetan, hizketan, elekan, euskal teatroaz? Kontaezinak.

Urkizuren ibilaldiek erakusten ziguten euskal kultur sisteman periferia/erdigunea kategoriak ez zirela egonkorrak. Hendaiatik hasita Behorlegiraino eta haratago lagun eta ezagunek osturiko sare intelektual sendoa zuen. Muga administratiboa —edota geografikoa— zedarri mentala izaten ohi da askoren iritziz, baina ez Patri Urkizurenaz. Izan ere, haren ikergai askok Euskal Herriko ekialdean zuten sorburua: *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak* (Etor 1991), *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma, 1851-1897* (Eusko Ikaskuntza 1997), *Zuberoako irri-teatroa. Recueil des farces charivariques basques* (Izpegi 1998).

Laguna

Patrizio Urkizuk bere kapital soziala konpartitzeko ohitura eskuzabala zuen. Lagunak eta ezagunak ez zituen berarentzat soilik gordetzen. Kontrara. Haren ikasle izan garenoi aurkeztu ohi dizkigu, betiere, zerbaitetan lagundu ziezaguketelakoan gure ikerketak zirela eta, guri bidea errazteko gertutasunetik beti. Eta ikasle izatetik lagun bilakatuta, buruan dauzkagu pilotan, arraunean eta igeriketan emandako orduen irudiak. non Patri beti gelditu gabe azaltzen zaigun eta, horregatik, beti mugimenduan gogoratuko dugu, bizi-bizirik gure gogoan.

3. Irizpenak eta txostenak

Notas sobre los ríos Perretxin y Batan del municipio vitoriano

MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR, ELENA

0. Introducción

5. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Letra larri eta xeheei buruzko hirugarren txostena. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki.

A. Alberdik eta M. Azkaratek egindako oharrak aztertu ditu EBE Batzordeak, eta erantzuna aurkeztu du A. Mujika Batzordeko idazkariak.

A. Alberdiren oharrak testuan zeuden hiru erratari buruzkoak ziren, eta zuzenean onartu dira, ez baitira eztabaidatzekoak. M. Azkarateren oharrei dagokienez, erabaki hauek hartu dira:

- Izengoiti eta izenordeak, izen-deiturekin batera erabiltzen direnean, letra etzanez edo komatxo artean idazten dira. Adibideetan letra etzanez bakarrik ageri direnez, komatxo artean idatzita ere ezarriko dira.

- *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* adibide batean *Belzebuth* ageri da; EBE Batzordeak *Beeltzebul* proposatu du, hala ageri baita *Elizen arteko Biblian*, eta horri buruzko oharra egin du, adierazirik ezen, aldaera hori ez bada, *Beelzebub* forma dela tradizioan agerraldi gehien dituen. Forma bat hautatzea eta bi obretan bera erabiltzea proposatu du M. Azkaratek. P. Zabaletak *Beltzebu* forma proposatu du. Erabilera-datuak aztertu ondoren, hiru proposamenak bozkatu dira: **Beltzebu** formaren alde boto bat, **Beelzebub** formaren alde 5 boto eta **Beeltzebul** formaren alde 9 boto. Ondorioz, **Beeltzebul** forma onetsi da.

M. Azkarateren gainerako oharrak EBE Batzordeak Osoko Bilkurari egindako proposamenekiko adostasuna adierazteko dira. Beraz, Batzordeak txostenean proposatu bezala onartu dira. Horiek horrela, letra larri eta xeheei buruzko hirugarren txostena onarturik gelditu da.

6. Onomastika: Euskal Herriko kostaldeko leku-izenak (araugaia). Aurkeztu

R. González de Viñaspre Onomastika batzordeburuak aurkeztu du azken bi urteetan Onomastika Batzordeak landu eta ondu duen araugaia. Horren aurrekari gisa agertu du 2021ean EITBren eskariz egin eta argitara eman zen euskal itsas bazterreko hondartzak, kalak eta, oro har, bainua hartzeko leku-izenen zerrenda. Adierazi duenez, orduko hura abiaburu harturik, laukoiztu egin da oraingoan leku-izenen kopurua, eta, itsasadarrak, uharteak, senadiak eta gainerako entitate geografiko nagusiak gehituta, laurehun izenetik gora biltzen ditu arau-proposamenak. Hala ere, xedea ez da itsas hegiko entitate geografiko txikienetaraino iristea, baizik eta erabilera nagusikoak, mapa orokorretan agertu ohi direnak arautzea.

Onomastika Batzordeak lan hau egiteko erabili duen metodologia azaldu du batzordeburuak, baita irizpide behinenak aletu ere. Funtsean leku-izen bakoitzaren egungo ahozko erabilera eta idatzizko tradizioa aintzat hartu dira arauzko erak proposatzeko. Saio hori egin da, aitorturik ere sarri askotan behar baino tradizio laburragoak izan direla dokumentazio historikoan jasotakoak. Berariazko ahalegina egin da azken aldian norbanakoek edo turismo-enpresek zabaldutako

izen arrotz edo desegokien aurrean jatorrizko izenak babesteko. Zuhurtziaz jokatu nahi izan du Batzordeak ahozko toponimoak idatzizko araura ekartzean, eta muzin egin die lekukotasun sendorik gabeko balizko «berreraikitze»-asmoei.

Arauaren sarrera-testua aurkeztu ondoren, araua osatzen duten zerrenden egitura eta hurrenkera-irizpideak argitu dira. Hiru zerrenda-mota dira: lehenbizikoan izenak geografikoki antolatuta daude, mendebaletik ekialdera, eta beste bietan, hurrenez hurren, izenak eta entitate geografikoak alfabetoaren hurrenkeran ageri dira.

Azkenik, zalantza bat aurkeztu zaio Osoko Bilkurari. Ziburun, frantsesez *Plage du Carré* izen aski berria, artifiziaia, duen hondartza dago. Euskarazko kiderik ez zaio ezagutzen. Onomastika Batzordeak uste du zilegi datekeela, salbuespen gisa, euskarazko neotoponimo bat sortzea, eta ez *Carré hondartza* uztea. Nagusiki *Kuboaren hondartza* proposamena erabili du Batzordeak, eta jakin nahi du, neotoponimoa sortzea onetsiz gero, egokitzen jotzen duen hori Osoko Bilkurak edo beste zerbait hobetsi behar den, eta, ezezkoan, ea zer egin behar den.

Martxoak 4 (astelehena) arteko epea jarri da oharrak egiteko.

7. Euskaltzainen dominak. Uxuen (2006-09-28) hartutako erabakiak gauzatzea

E. Osa idazkariordeak gaia azaldu du. Gogorarazi duenez, Uxuen, 2006ko irailaren 28an eginiko osoko bilkuran, euskaltzain oso berriak izendatzeko egutegia eta prozedura aurkeztu ziren. Horiek horrela, izendatzen ziren euskaltzain oso berrien dominak direla eta, haxe erabaki zen: «Emerituen hutsarte biologikoen ondorioz titularrik gabe gelditzen diren dominak izendatu berriei egotziko zaizkie hautaketa-dataren arabera». Idazkaritzak erabaki hori gauatzeko proposamena aurkeztu zuen Zuzendaritzan, 2023ko azaroaren 8an. Zuzendaritzak proposamena onestea erabaki zuen 2023ko azaroaren 21ean. Hala berean, euskaltzainen dominei buruzko dokumentua 2024ko lehen osoko bilkuran aurkeztea erabaki zen.

Ondorioz, aurrerantzean, euskaltzainen dominak nola izanen diren azaldu da, bai eta jakinarazi Euskaltzaindiko webgunean, otsailean, moldaketa batzuk eginen direla euskaltzain batzuen dominen hurrenkeran. Emeritu mailara igarotzen diren euskaltzainei berriz *bis*, *ter*, *quater* edo dena delako hurrenkera gehituko zaie dagokien dominarekin batera. Hori eginda, aurrerantzean, dominak 24 izango dira eta dominetan jarraitutasuna bermatuko da.

8. Esku artekoak

8.1. Iñaki Beobide kulturgile eta euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. 2024ko urtarrilaren 14an zendu zen. Zumaian (Gipuzkoa) jaio zen Iñaki Beobide, 1934ko abenduaren 8an. Euskal kulturaren sustatzaile porrokatua izan zen zumaiaarra. Besteak beste, Jarrai antzerki taldearen, Herri Gogoia diskoetxearen eta EiTBren bultzatzailea izan zen Iñaki Beobide. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1965eko irailaren 24an eta lan ugari egin zuen Akademian, batez ere, Alfabetatze Batzordean.

8.2. Maite Idirin euskaltzain ohorezkoaren heriotzaren berri. 2024ko urtarrilaren 20an hil zen. Ugaon (Bizkaia) jaio zen Maite Idirin, 1943ko uztailaren 12an. Musika Ikasketetan diplomaduna (Maurice Ravel kontserbatorioa), euskal kantagintza berriko ikurretako bat izan zen. Baionako Zabal liburudendaren sortzailetarikoa ere bai. 2011n, Eusko Ikaskuntza-Baiona Hiria Ohorezko Saria jaso zuen, eta Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen 2014ko maiatzaren 30ean. Angelun (Lapurdi) bizi zen aspalditik. Bere lan aipagarri batzuk: *Ametsetan* (1992), *Gabon kantak* (2012), *Kontzertuan* (2013).

8.3. Euskaltzaindiak Euskaltzaindiaren Hiztegia eta Orotariko Euskal Hiztegia eguneratu ditu. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* sarean eguneratu da urtarrilean, ohi bezala, eta berrikuntzei buruzko azalpenak eman ditu M. Urkiak. Etengabe eguneratzen eta osatzen da hiztegia, eta oraingoan ere 843 forma berri jaso dira eta 2.376 moldatu. Berrikuntza nagusien artean aipatu ditu ohiko lexiak (hitz-konbinazio egokiak erabiltzen laguntzen duten forma konplexuak), esaera zaharrak (dagokien hiztegiko sarrera guztietara egin dira loturak), *Euskal Hiztegi Historiko Etimologiko*arekiko lotura eta adibidetearen eguneratze sakona (ia 2.000 adibide ukitu dira: alde batetik, adibiderik ez zuten adieretan gehitu dira, eta, bestetik, egungo gizartearen ikuspegitik zaharkituak, desegokiak edo gizon eta emakumeen arteko berdintasuna zaintzen ez zutenak kendu edo moldatu dira).

Orotariko Euskal Hiztegia ere eguneratu da urtarrilean, eta azalpenak eman ditu A. Sagarnak. XML formatuan egituratu zen duela urte batzuk, baina hiztegiaren egitura konplexua dela-eta, zuzenketa-lan handia eskatu du. Azken urtean egindako estrategia-aldaketari esker, aurtun adibidete osoa zuzendua izatea espero da, eta horrek OEH corpus gisa erabiltzeko aukera emango du. Horrez gain, eduki berriak ere jaso eta hiztegian txertatu dira.

8.4. Hurrengo bilkura. 2024ko otsailaren 23an, ostiralean, Bilbon, egoitzan, 10:00etan, osoko bilkura egingo da.

9. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:45 direnean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

II

Osoko bilkura

Bilbon, egoitzan

2024ko otsailaren 23an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Garikano, Asun
Iñigo, Andres
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Oñederra, Miren Lourdes
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Roberto
González de Viñaspre, Jose Irazu
«B. Atxaga», Beñat Oihartzabal, Patxi
Salaberri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Roberto González de Viñasprek
ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu
«B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari;
Beñat Oihartzabalek ahala Miren
Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala
Andres Urrutiari eta Mikel Zalbidek
ahala Andres Urrutiari. *Andres Urrutia
euskaltzainburuak euskaltzainak agurtu
eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela
egiaztatu ondoren, 2024ko otsaileko osoko
bilkurari hasiera eman zaio.*

*E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak
azaldu ditu.*

1. Osoko Bilkuraren (2024-01-26) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak bestelako oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko urtarrilaren 26ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Ageriko Bilkuraren (2024-01-26) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Behin-behineko batzar-agirian hurreratu direnen artean, Patri Urkizu euskaltzain urgazlea dago. Bilkurara joango zela baieztatu bazuen ere, azkenean, osasun- kontuak zirela eta, ez zen bilkuran egon. Hori zuzendu ostean, 2024ko urtarrilaren 26ko ageriko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak. Batzorde Ahaldunduenaren oharrak (XLIX). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Urtarrileko bilkuran aurkeztutako zerrendari A. Alberdik, A. Garikanok, A. Mujikak eta M.L. Oñederrak egindako oharrak aurkeztu dira, bai eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak ere. Osoko Bilkurak erabakitzeko utzitako bi forma eztabaidatu eta erabaki dira: *HARTU* sarrerako 23. adierako adibide batean zetorren *etxeño* txikigarria bere horretan uztea onartu da, eta *JAUN* sarrerako 4. adieran A. Garikanok eskatutako definizio-aldaketa onartu da. Beste ohar guztiak bere horretan onartu dira. Beraz, zerrenda osoa onartuta geratu da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak. Batzorde Ahaldunduenaren oharrak (L). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Martxoaren 11 (astelehena) arteko epea finkatu da oharrak egiteko.

5. Exonomastika: 32. arauan («Espainiako erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuen izenak») herritar-izenak sartzea: *giputz*

Azaroaren 25eko bilkuran, Espainiako eta Frantziako herritar-izenak onartu ziren (32. arauan eta 36. arauan txertatzeko), eta erabaki gabe utzi zen

gipuzkoar/giputz kasua, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*rako erabakiko zenaren mende. M. Urkiak adierazi zuen, gerora, Batzorde Ahaldunduari bidalitako zerrendan ageri dela lehendik *giputz* forma (*Euskaltzaindiaren Hiztegi*aren Lantaldeak egin zuen oharra gehitzeko eskaera), inork ez ziola oharrik egin eta, horrenbestez, bere horretan onartu dela prozeduraren arabera (3. adieran azalpen-ohar bat gehituta). Honela:

giputz

1 iz./adj. **Gipuzkeraz mintzatzen dena.** *Bizkaieraren berririk ez duen giputz bat.*

2 adj. **Gipuzkerazkoa.** *Giputz hizkera. Giputz aditza. Haren euskararen muina giputza dugu, giputz baino giputzagoa batzuetan.*

3 iz./adj. **Gipuzkoarra.** (Batez ere, gipuzkoar ez direnek erabiltzen duten izendatzeko modua da). *Ikusiko banu bizkaitarretan giputzetan nekusan euskararen zaletasuna.*

Bestalde, J.B. Coyosek ohar bat bidali zuen adierazteko *nafar* formaz gain beste bat badela ekialdean/iparraldean erabilia dena: *nafartar*. Eta *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an jasota dagoela eta, horrenbestez, uste zuela forma hori emendatu behar zela.

Euskaltzaindiaren *Hiztegi*aren Batzorde Ahaldunduaren oharra eta J.B. Coyosen datuak eta eskaera ikusirik, proposatu da Espainiako herritarren izenen zerrendan bi oinohar sartzea *nafartar* eta *giputz* izenei tokia egiteko. Honela:

gipuzkoar*

¹ Halaber da egokia **giputz** aldaera ere. Ohar honekin jasotzen du *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ak: «Batez ere gipuzkoar ez direnek erabiltzen duten izendatzeko modua da».

nafar*

¹ Halaber da egokia **nafartar** aldaera ere. *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ak jasotzen du, eta hala erabiltzen da Euskal Herriko ipar-ekialdean gehienbat.

Hala onartu da. Beraz, izen horiek, oin-ohar horiek sartuta, eta gainerako herritar-izenak (Getariako bilkuran onartuak 2023ko azaroan) txertatuko dira 32. arauan, eta argitaratuko da.

Euskaltzaindiaren Hiztegirako GIPUTZ sarrerako 3. adieran ageri den adibidea dela eta («Ikusiko banu bizkaitarretan giputzetan nekusan euskararen zaletasuna»), P. Uribarrenek adierazi du bizkaitarrentzat gutxiesgarri gerta daitekeela gaur egun (Mogelen adibidea da), eta beste adibide bat jartzea proposatu du.

6. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Letra larri eta xeheei buruzko laugarren txostenaren lehen partea aurkeztea

A. Mujikak egin du txostenaren aurkezpena. Adierazi du, lehenik, letra larri eta xeheen ataleko laugarren txostena korapilatsuena dela, EBE Batzordeak lau bilera egin dituela txostena eztabaidatzeko eta oraindik bosgarren bat beharko duela amaitzeko. Beraz, txostena ez dago oraindik Osoko Bilkurari osorik aurkezteko moduan, baina, handia eta mamitsua denez, bi zatitan aurkeztea erabaki duela EBE Batzordeak.

Laugarren txostenean, leku-izen eta pertsona-izen ez diren gainerako kasu guztiak sartzen dira. Lehen atala erakunde-izenei dagokie, eta, haren barnean, erakundeen izendapen laburtuak eta bigarren izendapenak gertatzen dira bereziki arazotsu erabakitzeko, joerak ez daudelako bateratuta, ez gaur egungo euskararen praktikan, ezta nazioartean ere. Aztertu da, batetik, gaztelaniaren, frantsesaren eta katalanaren ortotipografia, eta, bestetik, EAEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko itzultzaileei eta Euskarabideko itzultzaileei iritzia eskatu zaie, eta itzultzaile askoren iritzia jaso dira (txostenaren eranskinean daude guztiak). Hori guztia kontuan hartuta egin dira txostenean ageri diren proposamenak.

Beste sail korapilatsu bat da *armada*, *administrazio*, *eliza*, *polizia*, *estatu* eta *parlamentu* hitzek osatua. Hor ere azterketa sakona egin da, eta, puntu bateraino proposamen itxia egin bada ere, beste batzuetan ez zaio iruditu Batzordeari bide bakarra proposatzeko modua zegoenik eta, horregatik, bi aukera utzi ditu, neurri batean estilo-kontua ere badela kontuan harturik.

Eta bada hirugarren multzo korapilatsu bat ere: erakundeen barneko organo eta atalen izenetan nola jokatu. Euskaltzaindiak *batzorde* letra xehez (Gramatika batzordea) baina *sail* letra larriz (Jagon Saila) erabiltzen du, eta *Zuzendaritza* letra larriz hasita baina zerbitzua (Onomastika zerbitzua) letra xehez. Arlo horretan, organo guztiekin berdín jokatzea eta letra larriz hasita idaztea proposatu du Batzordeak.

Martxoaren 25 (astelehena) arteko epea jarri da oharrak egiteko.

7. *Euskaltzaindiaren Hiztegia eta Orotariko Euskal Hiztegia*. Azken argitalpen elektronikoetan ageri diren berrikuntzen azalpena

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren azken argitalpen elektronikoan ageri diren berrikuntzak azaldu ditu M. Urkia hiztegiaren arduradunak. Gogorarazi duenez, azken sei hilabeteotan, 843 forma berri jaso ditu *Euskaltzaindiak* bere hiztegian, hain zuzen ere, 73 sarrera, 389 azpisarrera eta 381 ohiko lexia. Era berean, 2.376 forma moldatu edo findu ditu: 2.194 sarrera eta 182 azpisarrera. Guztira 49.471 forma ditu orain hiztegiak, 66.523 adiera eta 108.630 adibide. Forma berriak landu dira, baina bestelako lanak ere garrantzia handia du. Izan ere, forma berriak sartzea bezain garrantzitsua da lehendik dagoena txukuntzea, eguneratzea, adiera batzuk egungo erabileren arabera berrantolatzea. Zentzu horretan, M. Urkiak nabarmendu nahi izan du beste atal askotan egiten den lana, esaterako, formak aldatzerakoan, adierak berrikustean edo bestelako kontu gehigarriak gehituzerakoan. Kasurako, oraingo eguneratzean 1.916 sarrera eta adibide moldatu edo ukitu dira. Esaterako, adibiderik gabe zeuden adiera batzuetan gehitu dira; egungo gizartearen ikuspegitik zaharkituak, desegokiak edo iraingarriak izan zitezkeenak ere aldatu dira, batez ere, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari erreparatuta. Horrez gain, *Euskara Batuaren Ortotipografiaren* (EBO) arau berrien arabera berrikusi eta egokitu da hiztegia; eta, ohi bezala, adierak berrikusi, osatu eta findu dira, bai eta euskalki- zein erregistro-markak ere; eta, nola ez, jakintza-arloa.

Hala berean, beste berrikuntza deigarri bat aipatu nahi izan du: lehenengoz, 381 ohiko lexia jaso dira hiztegian. Ohiko lexia figura berria da, forma konplexua, azpisarrerak bezala, baina oso gardenak da eta ez du definizio-beharrik ere. Beraz, informazioa eta adibideak besterik ez daude, gehienetan definizioa bera tautologikoa delako. Baina hitzen konbinazioak zuzen erabiltzeko argigarriak dira forma hauek (adibidez: SARIA BANATU / EMAN / ESKURATU / IRABAZI / JASO / LORTU; SUA AMATATU / ITZALI / PIZTU). Azalpena behar dutenak edo adiera bat baino gehiago dituztenak azpisarrera izango dira, orain arte bezala (adibidez: SU EMAN, SASIARI SU EMAN, SU HARTU...). Aurrerantzean ohiko lexiaren zerrenda hau osatzen jarraituko dutela aurreratu du M. Urkiak. Era berean, azaldu duenez, beste iturri batzuk kontsultatzeko aukera eskaintzen du orain hiztegiak (*Orotariko Euskal Hiztegia*, XX. mendeko *Corpusa*, *Lexikoaren Behatokia*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* –EHHA–). Bada, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE) ere gehitu da eta erabiltzailea zuzenean joan daiteke hiztegitik forma horren etimologia begiratzera, baldin eta EHHEn jasota badago. Azkenik, esaera zaharrak aurreko eguneratzean

jaso ziren, baina orain dagokien sarrera guztietara lotura egin dela ohartarazi du M. Urkiak. Atal horretan, guztira, 518 esaera zahar bildu dira.

Orotariko Euskal Hiztegiaren azken argitalpen elektronikoan jaso diren hobekuntzen berri eman du A. Sagarna egitasmoaren zuzendariak. Azaldu duenez, *Orotariko Euskal Hiztegiak* euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jaso eta antolatzea du xede. 1987an argitaratu zen paperean lehen liburukia eta 2005ean hamaseigarrena eta azkena. Handik hona, Euskaltzaindia ahalegin handia egiten ari da hiztegi horren bertsio elektronikoa gero eta aberatsagoa izan dadin edukiz eta bilaketa-aukeretan. Gaur egun, 146.857 sarrera eta 58.005 azpisarrera ditu *Orotariko Euskal Hiztegiak* eta kopuru hori handituz doa egituratze-lanak aurrera egin ahala. Horiek horrela, 13. argitaraldi honetan 77 sarrera berri, 50 azpisarrera berri eta TEI (Text Encoding Initiative) testu-kodeketaren arabera egituratutako 46.936 adibide berri agertzen dira.

Horrez gainera, edukiari dagokionez, *Testamentu berriaren* J. Haranederren itzulpena (1740 ingurukoa) osorik arakatu eta bertan agertzen diren hitzen adibideak sartu dira OEHN; gainera, Georges Lacomberen dokumentu-bildumaren kopia digitalaz baliaturik, OEHN lehendik zeharbidez edo bigarren eskutik jasotako datu batzuk zuzenean egiaztatu ahal izan dira, baita gai berriak sartu ere. Aurkezpenarekin amaitzeko, A. Sagarnak bilaketak eta kontsultak egin ahal izateko egin diren hobekuntzak eta eskaintzen diren aukerak azaldu ditu.

Urtarrilean, webgunean, eguneraturiko bi egitasmoek izan dituzten berrikuntzak aurkeztu ostean, euskaltzainek emaniko argibideak eskertu eta eginiko aurrerapenak txalotu dituzte.

8. Esku artekoak

8.1 Gaur banatuko diren liburuak

- *Lizardi. Bihotz-begietan eta gainerako olerkiak (euskara batura hurbilduak)*. Paratzailea: Karlos Otegi Lakuntza. Euskaltzainak bilduma, 41.
- *Margarita, Nafarroako erregina (1492-1549)*. Paratzailea: Ixabel Etxeberria. Euskaltzainak bilduma, 42.
- *Bonifacio Echegaray, promotor y defensor del euskera. Artículos 1927-1933*. Argitarazleak: Lázaro Echegaray eta Koldo Somokueto. Euskaltzainak bilduma, 43.

- *Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoen artean: egoera eta aukera berriak*. Askoren artean. Jagon 24.
- *Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811. Edizioa eta hizkuntza azterketa*. Paratzaileak: Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan Jose Zubiri eta Iker Salaberri Izko. Iker 48.
- *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 2023, 2.

8.2 Hurrengo bilkura. 2024ko martxoaren 22an, ostiralean, Gasteizen, udaletxean, 10:00etan, osoko bilkura egingo da. Egun horretan, Gasteizko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko urteko hitzarmena izenpetzea begiz jota dago.

9. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:30ean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

III

Osoko bilkura

Gasteizen, udaletxean

2024ko martxoaren 22an

Coyos, Jean-Baptiste, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Borda, Itxaro
Garikano, Asun
Iñigo, Andres
Irazu, Jose «B. Atxaga»
Kintana, Xabier
Lakarra, Joseba
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Oñederra, Miren Lourdes
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Jabier Kaltzakorta, Beñat Oihartzabal, Patxi Salaberri, Miriam Urkia, Andres Urrutia eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jabier Kaltzakortak ahala Sagrario Alemani; Patxi Salaberrik ahala Paskual Rekalderi; Miriam Urkiak ahala Andoni Sagarnari; Andres Urrutiak ahala Jean-Baptiste Coyosi eta Mikel Zalbidek ahala Jean-Baptiste Coyosi.

Maider Etxebarria Gasteizko alkateak hurreratu diren euskaltzainak agurtu ditu. Era berean, bere bizitza pertsonalaren zenbait pasarte kontatu eta euskara ikasteko eginiko ahalegina azaldu du. Euskaltzaindiaren egoitza bisitatzeko asmoa duela adierazi du. Ondoren, Gasteizko udaletxeko ate nagusiko eskaileretan talde-argazkia atera da.

Harreraren ondoren, J.B. Coyos buruordeak euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, 2024ko martxoko Osoko Bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Osoko bilkuraren (2024-02-23) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

M. Azkarate euskaltzainak iruzkin ortografiko txiki bat egin du. Onetsi da. J.B. Coyos buruordeak ahoz bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko otsailaren 23ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak.

Batzorde Ahaldunduen oharra (L). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

A. Sagarna Batzorde Ahaldunduko buruak adierazi duenez, otsaileko bilkuran aurkeztutako zerrendari A. Alberdik, A. Iñigok, P. Rekaldek eta P. Zabaletak egindako oharra aurkeztu dira. Ohar horiek kontuan hartuz, egitasmoaren arduradunek emandako erantzunak aho batez onetsi dira.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak.

Batzorde Ahaldunduen oharra (LI). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du A. Sagarna Batzorde Ahaldunduko buruak, A. Iñigok eta M. Azkaratek egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen. Oharra aurkeztu ostean, apirilaren 15 (astelehena) arteko epea zehaztu da oharra egiteko.

4. Onomastika: Euskal Herriko kostaldeko leku-izenak (araua).

Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

A. Alberdik eta M.L. Oñederrak egindako oharra aztertu ditu Onomastika Batzordeak, eta erantzuna aurkeztu du R. González de Viñaspre Batzordeko buruak.

Alberdiren oharrei dagokienez, erabaki hauek hartu dira:

- *Hori dela-eta*, idatzirik ageri dena *Hori dela eta*, idatziko da, 27. arauarekin bat etorriz.
- *Aspaltza (-a)* mantenduko da, bukaerako *-a* artikulua baita.
- *San Anton mendiari* ez zaio *San Antongo mendia* aldaera gehituko. 2012ko ahozko bilketa oinarri duen Getariako Udalaren 2013ko toponimia-mapan ere *San Anton mendia* jaso da.

- *Ubiriko senadia (-a)* leku-izenari *Ubiri* era laburra gehituko zaio, generikorik gabeko aldaera ere oso erabilia delako *Getarian*.
- *Allepunta* eta *Itegi* leku-izenen ordena aldatuko da. Izenen zerrenda mendebaletik ekialdera emana dagoenez, *Itegi* eta ondoren *Allepunta* agertuko dira zerrendan.
- *Getarian*, ahoz *Mollarri* esaten zaion parajea *Mallarri* (1890) izenetik dator, bertan mea zamatzeko jarri zen kaiaren eraginez. *Mallarri* eutsiko zaio.
- Zenbait izenetan ez da *(-a)* jarri, artikulua bada ere: *Urumea(ren)* itsasadarra, *Urdazubi(ren)* itsasadarra, *Biarritzko Hondartza Handia* eta *Larraldeneko portua*. *Guztietan (-a)* gehituko da.
- *Apala (-a)* leku-izenaren amaierako *-a* artikulua den galdetu du A. Alberdik. Onomastika Batzordeak ez du argitzerik izan artikulua ote den. Horregatik, Onomastika Batzordeak izen hori zerrendatik kentzea erabaki zuen 2023ko azaroaren 7ko bileran, baina huts batengatik ez zen kendu osoko bilkurara eramandako zerrendatik. Hortaz, kentzea erabaki da.
- *Getariako portua (-a)* bi bider ageri da zerrendan, Gipuzkoan eta Lapurdin *Getariako* portu bana daudelako. Hori hobeto argitzeko, herrialdearen izena gehituko da: *Getariako portua (-a)* [Gipuzkoa]; *Getariako portua (-a)* [Lapuri].

A. Alberdik adierazi du, agian, *Getariako* izenen zerrendan, *Talaia* deritzon muturra gehitu daitekeela. Proposamena eta aldeko argudioak aurkeztuko ditu Onomastika Batzordeak aztertzeko.

M.L. Oñederrak oharra egin du *harmonia bokalikoa* eta *gertaera fonetikoak* terminoen egokitasunaz. Bere proposamena aintzat hartuta, horrela adieraztea onetsi da: «C) Amaierako bokal-aldaketak. Horrela esan ohi zaie euskalki eta hizkera batzuetan *-a* amaiera duten izenek determinatzailea hartzean izaten dituzten gertaera fonikoei (disimilazioak eta asimilazioak). Adibidetzat *hanka* hitz arrunta hartuta, erraz ulertuko da: *hanka* + *a* adierazteko (mugatu singularra), mendebaleko hizkeretan, *anke*, *anke*, *ankia*, *ankie*, *anki*... esaten da».

Oharrak aurkezteko epean eta jasotakoak aztertzearen harira, Onomastika Batzordeak bi ohar aurkeztu ditu osoko bilkuran:

- *Txingudiko Parke Naturala (-a)* kentzea, egiaztatu baitu Batzordeak Txingudin ez dagoela hala izendatutako parke naturalik, eta, haren ordeztan dagoen *Plaiaundi* hezegunea sartzea. Onetsi da. *Txingudi* era laburra mantenduko da.

- *Biarritzko Portu Zaharreko itsasargia (-a)* kentzea, Batzordeak egiaztatu baitu portuan ez dagoela benetako itsasargirik, portuko sarbidea iragartzen duen farol xume bat besterik ez dela. Horren erakusgarri zenbait argazki aurkeztu dira. Eztabaidatu ondoren, kentzea erabaki da.

M. Azkaratek iritzia bidali du *Plage du Carré* euskaraz emateko aukeraz Onomastika Batzordeak osoko bilkuran aurkeztu duen galderaz. Ondo ikusten du Batzordearen proposamenari eustea eta *Kuboaren hondartza* izena ematea euskal ordaintzat. Beste iritzirik ez da izan, eta izendapen hori onetsi da.

5. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: letra larri eta xeheei buruzko laugarren txostenaren bigarren partea aurkeztea

A. Mujika EBE Batzordeko kideak egin du txostenaren aurkezpena. Laugarren txostenean, leku-izen eta pertsona-izen ez diren gainerako kasu guztiak jasotzen dira. Txostenaren bigarren partean, zehazki, atal nagusi hauek landu dira: gertaera historikoak; hezkuntza-, politika-, zientzia- eta gizarte-jarduerak; azokak, kongresuak eta kidekoak; ikastaroak, mintegiak eta tailerrak; azokak, kongresuak eta kidekoak; kirolprobak eta kidekoak; sariak eta kidekoak; goiburuak, esloganak eta leloak; sorkuntza-obren izenburuak; eta gauzakiak, produktuak eta markak. Kasu bakoitzean, irizpide nagusiak zein diren eta zergatia azaldu du, eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n oraingoz ez dauden baina txostenean erabili diren hitz batzuei buruzko iruzkinak ere egin ditu.

Sorkuntza-obren izenburuei dagokienez, EBE Batzordeak oharra prestatu du Osoko Bilkurarentzat, ohartarazteko izen deskribatzailea duten hiztegi eta entziklopedien izenburuetan letra larriak idazteko azken urteetan nagusitzen ari den joera (Euskaltzaindiaren praktikan oinarritu dena) ez datorrela bat gaztelaniaren eta frantsesaren erabilarekin. Batzordeak, dena dela, ez du aldaketarik proposatu, baina egoki iritzi zion ohartarazteari.

Aurkezpenaren ondoren, apirilaren 22 (astelehena) arteko epea jarri da oharrak egiteko.

6. Esku artekoak

6.1. Gaur banatuko den liburua

- Askoren artean, *Narrazioak eta olerkiak 2022*. Jakina denez, egitasmo hori BBK Fundazioaren lankidetzat tarteko dela burutzen da. 2023. urteko lanei doakienez, jasotzeko epea amaitu ondoren, epaimahaiko kideek lanak aztertuko dituzte eta ekitaldiko sariak 2024ko udaberrian emango dira.

6.2. Hurrengo bilkurak

- Sarako Biltzarra egingo da apirilaren 1ean. Bertan, Euskaltzaindiak Euskaltzainak bildumako Ixabel Etxebarriaren *Margarita, Nafarroako erregina (1492-1549)* eta June Casenave-Harigileren *Zortzi pastoral berri* (I. tomoa) argitalpenak aurkeztuko ditu.
- Euskaltzaindia Elkartearen Biltzar Nagusia egingen da Baionan, ordezkaritzan, 2024ko apirilaren 17an, 17:00etan. Biltzarrari buruz zenbait argibide eman du Jean-Baptiste Coyos buruordeak.
- Piarres Lartzabal euskaltzainari omenaldia, Azkainen, 2024ko apirilaren 19an, 19:00etan. Behin-behineko egitaraua J.-B. Coyos buruordeak azaldu du. Behin betiko egitaraua euskaltzainei eskuratuko zaie eta *Plazaberrin* argitaratuko da.
- Hurrengo osoko bilkura: 2024ko apirilaren 26an egingo da, Iruñean, udaletxean, 10:00etatik aurrera.

6.3. B. Oihartzabal euskaltzain emeritu. 2024ko martxoaren 17an, 75 urte egin dituen gero, Arautegiaren laugarren bis artikulua eta Barne-erregelen 5.1 xedapenaren arabera, B. Oihartzabal euskaltzain oso izatetik euskaltzain emeritu izatera igaro da. Horiek horrela, hutsartea iragartzen da Arautegiaren 33. artikulua arabera. Hutsartea «hornitzeko proposamenak hurrengo bi batzarretan –apirilaren 26an eta maiatzaren 31n– aurkeztu ahal izango dira» (Arautegiaren 33. artikulua eta Barne-erregelen 64.3 xedapena). Era berean, gogorarazten da Arautegiaren 34. artikulua dioena: «Euskaltzain osoa izateko proposamena hiru euskaltzain osok izenpetu behar dute. Proposamenaz batera, zerrenda bat egin behar da, gai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz».

7. Azken ordukoak

J.B. Coyos buruordeak, Korrika dela eta, Baionan, Euskaltzaindiak eginen duen kilometroaren xehetasunak azaldu ditu. Era berean, gonbita luzatu du euskaltzainek parte har dezaten.

Eta bestelako aztergairik ez dela, Osoko Bilkura bukatutzat eman da, 13:15 direnean.

Jean-Baptiste Coyos
Buruordea

Adolfo Arejita
Idazkaria

IV

Osoko bilkura

Iruñean, udaletxean

2024ko apirilaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, buruordea
González de Viñaspre, Roberto,
diruzaina

Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Garikano, Asun
Iñigo, Andres
Irazu, Jose «B. Atxaga»
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Oihartzabal, Beñat
Oñederra, Miren Lourdes
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Salaberri, Patxi
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Videgain, Xarles
Zabaleta, Patx

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Adolfo Arejita idazkaria, Aurelia Arkotxa eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Adolfo Arejitak ahala Andres Urrutiari; Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari eta Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Joseba Asiron Iruñeko alkateak hurreratu diren euskaltzainak hartu ditu Iruñeko Udaleko Harrera aretoan. Berehitzetan batik bat azpimarratu ditu Euskaltzaindiaren lana eta Nafarroako hiriburuaren eta euskararen arteko harremana. Andres Urrutia euskaltzainburuak Iruñeko Udaleri eskerrak eman dizkio harreragatik, bai eta osoko bilkura antolatzeko emandako erraztasunengatik ere.

Sarrerako ekitaldi horren ondoren, udaletxeko osoko bilkuren aretora abiatu dira euskaltzainak. Harreraren ondoren, A. Urrutiak euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, 2024ko apirilako Osoko Bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Osoko bilkuraren (2024-03-22) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Ohar idatzirik ez da jaso. Ahoz iruzkinik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko martxoaren 22ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak.

Batzorde Ahaldunduaren oharrak (LI). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Martxoko bilkuran aurkeztutako zerrendari A. Garikanok eta M.L. Oñederrak egindako oharrak aurkeztu dira, bai eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak ere.

Ohar guztiak onartu dira, baina A. Urrutiak *FORU(-)LEGE* formaren definizioa Nafarroara mugatuta dagoela aipatu du, eta adiera berria behar dela Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE), Aragoi eta bestelakoak kontuan hartuko dituen. Horrez gain, gehitu du EAEn *foru*-arauak badirela, baina *foru(-)arau* sarrera falta dela hiztegian. Hori dela eta, jakinarazi du bi proposamenak bilduko dituen oharra bidaliko duela hurrengo osoko bilkuran erabaki eta zerrenda osoa onartutzat eman ahal izateko.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak.

Batzorde Ahaldunduaren oharrak (LII). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok eta M. Azkaratek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, maiatzaren 20 (astelehena) artekoa.

4. Onomastika: Euskal Herriko kostaldeko leku-izenak (araugaia).

Getariako Talaia.

Martxoko Osoko Bilkuran, A. Alberdik adierazi zuen Getariako izenen zerrendan *Talaia* deritzon muturra gehi zitekeela, eta ohartarazi zuen Getariatik Zarautz aldera doan errepideko tunel bat izendapen horrekin identifikatzen dela.

Onomastika Batzordeak aztertu du gaia. Tunel horrek gainean duen *Lasuntalaia* tontorretik itsas hegian dagoen *Altzagako harria* izeneko puntara doan

mendi-adarra zeharkatzen du alderik alde. Tunelak tontorretik hartzen du izena, eta hori *Lasuntalaia* moduan ageri da Getariako Udalak argitaratutako mapan, ahoz bildu zen bezala. Gehigarri gisa, Lasuntalaia izenaren 1865. urtetik gaur egun arteko lekukotasunak biltzen dituen zerrenda eskuratu zaie euskaltzainei. Onomastika Batzordeak uste du tunelaren seinaleztapeneko Talaia izen generikoa dela, *Lasuntalaia* osoaren izendapen laburtua, eta izen osoa hartzea proposatu du.

Grafiari dagokionez, X. Kintanak aditzera eman duenez, badirudi *lazun* arrain-izena dagoela toponimoaren jatorrian, baina idatzizko dokumentazioan *Lasuntalaia* bakarrik jaso da. Erabateko ziurtasunik ez dagoenez, zuhurtziaz, dokumentazioan jasotakoa proposatzea hobetsi du Onomastika Batzordeak. Adostasunik ez denez egon, grafiari buruzko bozketa egin da: *Lasuntalaia* (21 boto), *Lazuntalaia* (1), eta 5 zuri.

Aurrekoa argitu ostean, arauan toponimo-zerrendarekin batera argitaratuko diren mapak (11 denera) prestatu dira, eta horiek guztiak banatu zaizkie euskaltzainei. Mapak egitean, Onomastika Batzordeak ikusi du komeni dela beste bost toponimo zerrendara biltzea. Banan-banan aurkeztu ditu Onomastika batzordeburuak:

- **Arriluzeko kaiko itsasargia (-a).** Zerrendan *Arriluzeko itsasargia* ere ageri da, eta izen hori, maiz, kaiaren puntan dagoen itsasargiarekin nahasten da. Nahaste hori saiheste aldera, Onomastika Batzordeak uste du egokiena dela *Arriluzeko kaiko itsasargia* ere gehitzea.
- **Itsas bidaiarien terminala (-a).** 2024. urtean abian jarritako kai berria da, itsas bidaiarien terminal moderno batez hornitua. Erreferentziazko lekua izaten hasi da, eta komeni da izendapena arautzea.
- **Portuondo.** Izen bera daraman punta jadanik zerrendan zegoen, baina Batzordeak uste du garrantzi handiagokoa dela senadia bera, izenaren argigarria izateagatik ez ezik, kultura-ondare gisa duen balioagatik ere.
- **Zumaiako itsasargia (-a).** Gipuzkoako itsasargi nagusietakoa da, zerrendan gehitu beharrekoa.
- **San Antongo itsasargia (-a).** Hau ere Gipuzkoako itsasargi nagusietakoa da, zerrendan gehitu beharrekoa.

Osoko bilkuran aho batez onetsi da bost toponimo horiek gehitzea. Horrenbestez, onartu da «Euskal Herriko kostaldeko leku-izenak» araua.

5. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: letra larri eta xeheei buruzko laugarren txostenaren lehen partea. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

A. Mujika EBE Batzordeko kideak adierazi duenez, letra larrien 4. txostenaren lehen zatiari hiru euskaltzain osok egin dizkiote oharrak: A. Alberdik, I. Bordak eta P. Zabaletak. EBE Batzordeak aztertu ditu, eta erantzuna prestatu du.

A. Alberdiren oharrak txosteneko idazte-akatsak zuzentzeko edo esaldiren bat argiago idazteko proposamenak dira, eta denak onartu ditu EBE Batzordeak. Mamiari ez dagozkionez, zuzenean onartu dira, eztabaidatu beharrik gabe; Letra larrien 4. txostenaren lehen zatia Osoko Bilkurari aurkeztu ondoren, I. Bordak jakinarazi zuen jai zibilen atalean ez dela aipatzen nola idatzi behar diren dataren bidez izendatzen diren jaiak, eta Frantziako jai bereziren baten adibideren bat jartzea ere eskatu zuen. Oharrari erantzuteko, txostenean adibide batzuk sartzea proposatu du EBE Batzordeak. Zehazki, 2.3.10.4.5 puntuan (Zerbait ospatzeko egunak, asteak, hilabeteak edo urteak: jai zibilak), *Armistizioaren Eguna* adibidea eranstea, eta, bestalde, paragrafo hau gehitzea:

Gertaera historiko bat urtea aipatu gabe, baina data baten bidez adierazten denean, gertaera historiko horri dagokion jaieguna letra larriz hasita idazten da:

Dendak itxita egongo dira Maiatzaren Lehenean (Lanaren Nazioarteko Egunean); Urte hartan, Frantzia handikiro ospatu zen Uztailaren Hamalaua; Katalan guztiak elkartu ziren Irailaren Hamaika (Kataluniako Diada) ospatzeko; Europako lurralde askotan ospatzen da Azaroaren Hamaika, hau da, Armistizioaren Eguna.

Zalantza egin da parentesi artean ageri den «Lanaren Nazioarteko Eguna» izendapenaren inguruan, eta parentesi hori kentzea hobetsi da, ez baitio eragiten gaiari. Azkenik, 2.3.11 puntuan (4. txostenaren bigarren zatian dago), izendapen antonomasikoen adibideen sailean, hau eranstea onartu da: «Abuztuaren Lauko Gaua (1789ko abuztuaren 4ko gauean Frantziako Biltzar Konstituziogileak sistema feudala abolitu zuen Frantzia)».

Bestalde, P. Zabaletak bi ohar orokor aurkeztu ditu, eta EBE Batzordeak azalpenak eman ditu. Batetik, P. Zabaletak adierazi du arauetan xehetasunak eta azalpenak gehigarri moduan eman behar lirатеkeela. Batzordeak adierazi du beharrezkoa dela gomendio bakoitzaren atzean zer argudio dagoen adieraztea, hau da, deskribapen xehea ere egin behar dela, baina, horrekin batera, arau edo

gomendio zehatza zein den aurkitzeko bideak jartzen direla, hala nola laburduren zerrenda, sinboloen zerrenda eta, letra larri eta xeheen atalean, adibideen bidezko aurkibidea. Bestalde, egitasmoa burutzen denean, eta hala erabakitzen bada, ortotipografiako arauak gaiaren arabera aurkitzeko bidea eskain daiteke webgunean, baliabide informatikoak erabiliz ez baita zaila aurkibide lagungarri bat diseinatzea.

Bigarren oharra liburuen izenei buruzkoa da. Ohargileak adierazi du nazioarteko ohiturak aintzat hartu behar direla, eta azaletan ohikoa dela hitz guztiak letra larriz hasita ematea. EBE Batzordeak adierazi du nazioarteko arauak betetzen direla halakoak daudenean, hala nola sinboloen idazkeran, eta, nazioarteko araurik ez dagoenean, inguruko hizkuntzen jokabideari erreparatzen zaiola. Liburuen izenburuei dagokienez, proposatu den irizpidea bat dator, neurri handi batean, gaztelaniaren, frantsesaren eta katalanaren irizpidearekin.

Azkenik, Batzordeak adierazi du ortotipografiako gomendioak, liburuen izenburuetan letra larriak erabiltzeari dagokionez, izenburu horiek testu arruntetan erabiltzen direnerako direla eta ez dutela balio liburuen azaletarako. Modu esplizituan hala adierazita dago letra larrien txostenean. Liburuen azaletan, era guztiak erabiltzen dira, eta guztiak dira zilegi, diseinu- eta estetika irizpideen arabera egokitzen baitira letrak azalean.

6. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: letra larri eta xeheei buruzko 5. eta 6. txostenak. Aurkeztu

Letra larri eta xeheei buruzko azken bi txostenak (5.a eta 6.a) aurkeztu ditu EBE Batzordeko A. Mujikak. Bosgarren txostenak *Letra xeheen erabilera: non eta noiz ez diren erabiltzen letra larriak* du izenburua, eta 21 puntutan zehazten da noiz ez diren erabili behar letra larriak.

Koloreen izenei dagokienez, zenbaitetan, izen berezi batez lagunduta erabiltzen da kolorea adierazten duen hitza, kolore edo tonalitate jakin bat bereizteko. Halakoetan, izen berezia letra larriz hasita idazten da, eta aposizio-egiturak erabiltzea proposatu du EBE Batzordeak, baina egitura horren egokitasunari buruzko galdera utzi dio Osoko Bilkurari.

Seigarren txostena letra larri eta xeheen gaikako aurkibidea da. 555 sarrera edo adibide bildu dira, eta alfabetoaren hurrenkeran paratu, erabiltzaileari adierazteko

letra larri eta xeheen atal zabaleko zer puntu zehatzetan dagoen gai horietako bakoitzari buruzko irizpidea eta argibidea.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, maiatzaren 20 (astelehena) artekoa.

7. Esku artekoak

7.1 Bernard Goity euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. 2024ko apirilaren 15ean hil zen, 97 urte zituela. Izpuran (Nafarroa Beherea) jaio zen Bernard Goity, 1926ko maiatzaren 15ean. Zuzenbide Kanonikoan doktorea (Okzitaniako Tolosako Institutu Katolikoa), apaiza eta Baionako Andredena Maria katedraleko kapituluburu ohia izan zen; *Herria* astekariko diruzain ohia ere bai. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1983ko apirilaren 28an.

7.2 Euskal Herriko ohorezko euskaltzainak, atzerrikoak barne direla, bai eta Arabako eta Nafarroako euskaltzain urgazleak ere, izendatzeko prozedura ireki da. Gogorarazi da, proposamenak idatziz eta, gutxienez, bi euskaltzain osoren sinadura dutela aurkeztu behar direla. Halaber, gaiak aurrera egitea izan dezan, Osoko Bilkuraren bozen nagusitasuna erdietsi beharko du. Beraz, hautagaiak hurrengo osoko bilkura baino lehenago aurkeztu ahalgo dira. Bozketa Baionan egingo da, Herriko Etxean, maiatzaren 31ko osoko bilkuran.

Zuzendaritzaren asmoa da, euskaltzaineekin hitz egin ondoren, zerrenda bat adostea eta, ahal den neurrian, bozketa ekiditea, inor kanpoan gelditzea eta mintzea ekidin ahal izateko.

7.3 Gaur banatuko den liburua. *Junes Casenave-Harigile. Zortzi pastoral berri* (I. tomoa). Paratzailea: Jean-Baptiste Coyos. Euskaltzainak bilduma-44.

7.4 Hurrengo bilkurak

7.4.1 Abian diren erakusketak:

- *Hitzak lege.* Euskal Herriko Unibertsitatean, Karlos Santamaria eraikineko Txillardegi gelan, erakusketa muntatu zen 2024ko apirilaren 8an, eta maiatzaren 10ean desmuntatuko da.

- *Pirinioetako hizkuntzak*. Antsoaingo Idaki udal kiroldegian muntatu zen 2024ko apirilaren 19an, eta maiatzaren 13an desmuntatuko da.
- *Euskara ibiltaria*. Apirilaren 22an muntatu zen, Durangon, Plateruenan, eta maiatzaren 16an desmuntatuko da.
- *Euskara Ezkabarten*. Maiatzaren 6an hasi eta maiatzaren 26an amaituko da.

7.4.2 *Hurrengo osoko bilkura*. 2024ko maiatzaren 31n egingo da Baionan, Herriko Etxean, 10:00etan.

8. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:00etan.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Erramun Osa
Idazkariordea

V

Osoko bilkura

Baionan, Herriko Etxean

2024ko maiatzaren 31n

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Arejita, Adolfo, idazkaria
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Iñigo, Andres
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Oihartzabal, Beñat
Oñederra, Miren Lourdes
Rekalde, Paskual
Salaberri, Patxi
Uribarren, Patxi
Videgain, Xarles
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Jean-Baptiste Coyos buruordea, Asun Garikano, Jose Irazu «B. Atxaga», Joseba Lakarra, Miren Agur Meabe, Alfontso Mujika, Castillo Suárez eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Jean-Baptiste Coyosek ahala Andres Urrutiari; Asun Garikanok ahala Miriam Urkiari; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Aurelia Arkotxari; Miren Agur Meabek ahala Andres Urrutiari; Castillo Suárezek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Baionan egin da, Herriko Etxean, 2024ko maiatzaren 31n, ostiralean. Bilkuraren aurretik, Baionako Herriko Etxeko Xabier Parrilla Etchart 14. axuantak eta Herriko Etxean hizkuntza-politikaz arduratzen denak euskaltzainak agurtu eta harrera egin die. Andres Urrutia euskaltzainburuak Baionako Herriko Etxeari eskerrak eman dizkio harreragatik, bai eta osoko bilkura antolatzeke emandako erraztasunengatik ere.

Horren ondoren, A. Urrutiak euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quonuma badela egiaztatu ondoren, 2024ko maiatzeko osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Osoko bilkuraren (2024-04-26) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Ohar idatzirik ez da jaso. Ahoz iruzkinik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko apirilaren 26ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Ohorezko euskaltzainak. Proposa-menak aurkeztu eta erabaki

A. Urrutia, J.-B. Coyos, A. Arejita, R. González de Viñaspre, M. Urkia eta S. Aleman euskaltzain oso eta Zuzendaritzako kideek, Arautegiaren 3. eta 39. artikuluetan eta Barne-erregelen 6. artikuluan jasorikoa kontuan hartuz, lurraldean lurraldeko euskaltzain osoekin adostu ondoren, pertsona hauek proposatu dituzte **ohorezko euskaltzain** izateko.

Sendagaien izenei buruzko atalean, adibideak aldatzea onartu da, kasu-markak dituzten adibideak ere jasotzeko. Hala berean, marratxoak aukeran duten izen elkartu guztietan bi aukerak zehaztuko dira adibideetan, aurreko bileran erabaki zen moduan.

Aurkibidean, orain daudenez gainera, falta diren adibideak ere sartuko dira (adibidez, Frantziako jai batzuen izenak).

ARRAZA hitzaren gainean izan diren bi oharra aztertuta, EBE Batzordeak proposatu du atalaren izenburua aldatzea: *Herritarrak*, *etniak*, *arrazak* izan beharrean, *Herritarrak eta etniak* izatea. Hala onartu da. Bestalde, atal horretan dagoen «Afrikako beltzak, Europako zuriak, Ipar Amerikako larrugorriak» adibidearen ordeztu, «Masaia, flandriarrak, siuxak» jarriko da.

P. Zabaletak ohar orokor bat egin du, ez aztergai den txostenari buruz, baizik eta gai osoari buruz, arauak laburrak izan daitezen eskatzeko. EBE Batzordeak azaldu du EBO egitasmoaren helburua dela deskribapen xehea egitea, gero hortik arauak eta gomendioak atera ahal izateko, gomendio horiek modu kontsultaerrazean jartzeko modua landu beharko dela eta. Horren harira, P. Zabaletak adierazi du lortu behar dela kasuistikak ikuspegi osoa ez estaltzea, eta A. Garikanok esan du emaitza plazaratzen denean garbi adierazi beharko dela espezialistentzako gaiak direla eta ez direla, adibidez, euskaltegi-tako ikasleek ikasi beharreko arauak. A. Sagarnak adierazi du helburua dela profesionalei erraztasunak ematea (kazetariei, argitaletxe-tako editoreei, itzultzaileei eta abar), eta A. Alberdik eta P. Rekaldek adierazi dute lehenik deskribapen xehea behar dela eta, gero, deskribapenetik jalgitzen diren gomendioak modu eskematikoan emateko modua bilatu beharko dela.

Azkenik, EBE Batzordeak autozuzenketa bat proposatu du, 5. txostenean puntu bat eransteko: dantzen izenak. Onartu da. Horiek horrela, 5. eta 6. txostenak onartuta, burutu da EBO egitasmoko letra larri eta xeheen makroatala.

7. EBO egitasmoaren errendapena. Azalpena (orain arte egin dena eta egiteko dagoena)

EBE Batzordeko A. Mujikak EBO egitasmoaren egoera azaldu du, atalez atal: zer onartu duen Osoko Bilkurak, zer landu duen EBE Batzordeak eta zer txosten egin diren; bakoitzaren onarpen-data eta onartu gabe dauden lanak zer egoeratan dauden eta falta diren azken lanak zein diren. Atalen egoera ikusita, aurreikustekoa da datorren urtean bukatuko duela Osoko Bilkurak txosten guztien eztabaida. Argitaratzeko eta kontsulta errazteko moduak lantzea geldituko litzateke, bai eta, behar izanez gero, arau zaharretan eguneratzeren bat egitea ere.

Bestalde, hartutako erabakiak plazaratzeko, ikastaroak antolatu dira: dagoeneko bi egin dira, eta udazkenean beste hiru egingo dira. Eta datorren urtean horretan jarraitzea aurreikusita dago.

8. Esku artekoak

8.1 Aita Junes Casenave-Harigileren hiztegiaren bertsio elektronikoa Euskaltzaindiaren webgunean: Euskaltzaindiak webgunean kargatu du *HIZTEGIA I - Français-Euskara*. Züberotar eüskalkitik abiatzez hiztegiaren bertsio elektronikoa. Sü Azia elkartearen eta Akademiaren arteko elkarlanaren emaitza da hiztegia ezagutarazteko ahalegin berri hau.

1990. urtean aita Junes Casenave-Harigilek *HIZTEGIA I - Français-Euskara*. Züberotar eüskalkitik abiatzez hiztegia argitaratu zuen. Arrakasta handia izan zuen argitalpenak eta berehala agortu zen. Allande Socarros zenaren aholkuari jarraituz eta eskaera zabalarri erantzuteko, bereziki gazteriarren aldetik, Sü Azia elkarteak xedetan zuen hiztegi horren berrargitalpena, gaurkotua, eduki-mailan zein idazketa-mailan. Berrargitalpena 2023. urteko urtarrilean plazaratu zen.

Orain, jatorrian paperean argitaratu zen hiztegia baliabide elektronikoko bihurtu da, argitalpena Internet bidez edozeinen eskura jarritz. Hiztegiaren eduki osoa kontsultagai dago, eta bilaketa tresna errazak eta azkarrak eskaintzen dira.

8.2 Hobekuntzak egin dira Orotariko Euskal Hiztegian, bai egiturari dagokionez, bai edukiari dagokionez. Orotariko Euskal Hiztegiaren argitalpen berria edukiz aberastuago ez ezik itxuraz ere berritu da. Aurkezpena argiagoa da, erabilera erraztu eta sarrera osoan bilaketak egiteko aukera du orain. Bilaketak izugarri findu daitezke adibidetegian mendearen, euskalkiaren, egilearen eta obraren arabera iragazteko aukerari esker. Erreferentzia bibliografikoetako laburduren esanahia jakiteko nahikoa da sagua erabiliz kurtsorea gainean jartzea.

Honela, 14. argitaraldi honetan, 154 sarrera berri, 243 azpisarrera berri eta TEI (Text Encoding Initiative) testu-kodeketaren arabera egituratutako 48.521 adibide berri agertzen dira. Guztira 147.011 sarrera eta 58.248 azpisarrera ditu hiztegiak. Horietan, 716.914 adibide daude TEIren arabera egituraturik.

Horrez gain, edukiari dagokionez,

a) Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoaren emaitzak (278-442 galderatakoak) arakatu eta gehitu dira.

b) Grenobleko liburutegian gordetzen den Oihenarten poesien 1657ko argitalpenaren alean agertu diren (eta orain arte ezagutzen ez ziren) poesietatik adibideak aukeratu eta sartu dira (Gidor Bilbaok ASJU aldizkarian eginiko ediziotik hartu dira).

8.3 «Euskararen normalizazioa eta normatibizazioa XXI. mendean» espezializazio diploma. Espezializazio diploma hori abian jarri dute Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Euskaltzaindiak, UZEI eta VICOMTECH erakundeek laguntzaz. Honela, euskararen normalizazioak eta normatibizazioak XXI. mendean izan ditzaketen nondik norako garrantzitsuenei buruzko prestakuntza sendoa eman nahi du «Euskararen normalizazioa eta normatibizazioa XXI. mendean» espezializazio diploma berriak, etorkizuneko profesionalak sortzeko asmoz.

8.4 Aldaketak Euskaltzaindiaren organigraman:

a) P. Salaburu euskaltzainak Morfosintaxiaren Estandarizazioa Batzorde Ahaldunduko kide izateari utzi dio. Halaxe dago jasota OMEAGI Batzorde Ahaldunduk Zuzendaritzari igorritako batzar-agirian.

b) ELAN lantaldeko kideei entzun ondoren, Zuzendaritzak Cira Crespo eta Ibai Iztueta ELAN lantaldeko kide izendatu ditu, 2024ko ekainaren 12ko bilkuran.

c) Aldaketak izan dira Onomastika Batzordean: batetik, Elena Martínez de Madina euskaltzain urgazlea Batzordeko kide izatetik aholkulari izatera igaro da; bestetik, Zuzendaritzak Onomastika Batzordeko kideei entzun ondotik, Oier Morrás Aranoa Batzordeko kide izendatu du, 2024ko uztailaren 9an eginiko bilkuran.

8.5 Hurrengo bilkurak. Hurrengo osoko bilkura Iruñean, irailaren 27an, ostiralean, egingo da, Nafarroako Parlamentuan, 10:00etan.

8.6 Zenbait andrekin eginiko salaketak Patxi Ezkiaga euskal idazleak haiei eginiko sexu-erasoen harira. M. Azkarate euskaltzainak adierazi duenez, hautsak harrotu dituzte euskal munduan Patxi Ezkiagaren kontrako salaketek. Izan ere, zenbait andrekin jendaurrean salatu dituzte P. Ezkiaga euskal idazleak haiei egindako sexu-erasoak, eta beste batzuek, nahiz eraso horien xehetasunak eman, ez dute indarrik izan euren izena publiko egiteko. P. Ezkiaga ez zen euskaltzain oso, ohorezko edo urgazle, baina nabaria da Euskaltzaindiarekin izan zuen lotura, hainbat literatur sariketara aurkeztu eta sariak zein aitortzak jaso zituelako. Horiek horrela, salatutako gertaera lazgarrien aurrean, Euskaltzaindiak publikoki zerbait adieraztea komeni dela azpimarratu du.

Euskaltzainak bat etorri dira eta Zuzendaritzaren eta M. Azkarateren artean testu bat adostea, hurrengo Zuzendaritzan onestea eta ondoren publiko egitea erabaki da.

8.7. Taxi-zerbitzua eta bazkariak. Baionan, Herriko Etxean, maiatzaren 31n eginiko osoko bilkuran adierazi bezala, gaiari buruzko proposamena irakurri du M. Azkaratek. A. Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio eginiko ahaleginagatik eta Zuzendaritzan gaia aztertu eta osoko bilkurara iritzia ekarriko dela agindu du.

8.8. Jagonet eguneratu da. EBE Batzordeko burua den A. Alberdik adierazi duenez, aldika-aldika egin ohi duen eran, JAGONET kontsulta-zerbitzuko datu-basea eguneratu du Euskaltzaindiak: 52 fitxa berri eskegi ditu, zalantza lexiko, ortotipografiko, onomastiko eta morfosintaktikoekin. Aldi berean, lehendik

zeuden fitxetatik 10 aldatu dira, Euskaltzaindiak azken bi urteotan onartu eta argitaraturiko azken arauetara egokitzeko, alegia, laburtzapenei buruzko 196. arauarekin eta sinboloei buruzko 197. arauarekin bat etortzeko.

Momentu honetan, JAGONETek hizkuntzari buruz herritarrek bidalitako galderei emaniko erantzunen 890 fitxa adierazgarri dauzka sarean kontsultatzeko moduan: 2020ra arteko 686ei, 80 erantsi zitzaizkien 2022an, beste 72 fitxa 2023an eta, oraingoan, 2024an, beste 52.

9. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:30ean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

VIII

Osoko bilkura

Iruñean, Nafarroako Parlamentuan

2024ko irailaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Casenave, Jon
Iñigo, Andres
Kintana, Xabier
Mujika, Alfontso
Oihartzabal, Beñat
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Suárez, Castillo
Videgain, Xarles
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Asun Garikano, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Jose Irazu «B. Atxaga», Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Miren Agur Meabe, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Asun Garikanok ahala Miriam Urkiari; Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari eta, bera ez balego, Adolfo Arejitari; Joseba Lakarrak ahala Patxi Salaberri; Miren Agur Meabek ahala Andres Urrutiari eta Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari. Batzarra Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, egin da, 2024ko irailaren 27an, ostiralean.

Bilkura hasi aurretik, Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko presidentek harrera egin die euskaltzainei. Bere hitzaldian, Hualdek eskatu dio Euskaltzaindiari euskararen sustapenean eta garapenean laguntzen jarrai dezala. Hala berean, Europako Kontseiluak euskararen errealitateari buruz egindako txostena ere aipatu du parlamentuburuak. Horiek horrela, hizkuntza-normalizazioaren aurka jotzen duten faktore nagusietako bi aipatu ditu: «Inplizituki, esan berri digute zonifikazioa euskara bultzatzeko eta berdintasunez erabiltzeko oztopoen artean dagoela [...]. Egia da denbora

asko daramagula egoera horri buruz ohartarazten, eta egia da, gero eta gehiago izan arren, ez dugula gehiengo nahikorik Nafarroan Euskararen Legea aldatzeko. Horregatik, hizkuntzan eta hiztunengan pentsatuz, ezin dugu gutxietsi aurrerapauso bakoitza, txikia izan arren. Itun bat beharko litzateke, eta iaz proposatu nuen foro honetan bertan. Inteligentziaz lan egiten jarraitu behar dugu».

U. Uhalderen mintzaldi laburraren ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu du eta eskerrak eman dizkio Nafarroako Parlamentuko buruari, osoko bilkura egin ahal izateko emandako erraztasunengatik. Segidan, ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, 2024ko iraileko osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Ageriko bilkuraren (2024-06-29) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Ohar idatzirik ez da jaso. Ahoz iruzkinik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko ekainaren 29ko ageriko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Osoko bilkuraren (2024-0-29) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

A. Alberdik 8.8 puntuaren azken pasarte iruzkindu eta proposatu du paragrafoa honela amaitzea: «sinboloei buruzko 197. arauarekin bat etortzeko». Eginiko oharra onetsi da.

Ahoz iruzkinik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko uztailaren 19ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak.

Batzorde Ahaldunduaren oharra (LV). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak aurkeztu ditu uztailleko bilkuran azaldutako zerrendari A. Garikanok egindako oharra, bai eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak ere. Zuzena da egitasmoko kideek jasotako adibidea, baina testuinguru zabalagoa gehitzeko eskatu du M. Azkaratek, bestela nahasgarri izan daiteke eta. Hala onartu da.

Beste oharrik ez da egin eta, beraz, zerrenda osoa onartuta geratu da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (LVI). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok eta M. Azkaratek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, urriaren 14a (astelehena) artekoa.

5. Onomastika Batzordea: Bizkaiko herri izendegia eguneratzeko proposamena aurkeztu

P. Rekalde Onomastika Batzordeko kideak, R. González de Viñaspre Batzordeko buruak hala eskatuta, Bizkaiko herri izendegia eguneratzeko proposamena (145. araua) aurkeztu du. Laburbilduz, honako hau da eguneratu nahi dena:

a) Arrankudiaga > Arrankudiaga-Zollo. 1968an, Zolloko Udala Arrankudiagako Udalean sartu zen. Urte batzuk geroago, 2022an, Arrankudiagako Udalak erabaki zuen *Zollo* izena gehitzea udalaren izenean, hots, *Arrankudiaga-Zollo* izatea. *Zollori* dagokion herritar izena erabaki gabe zegoenez, proposatu da *zolloar* eta *zollotar* izatea; herritar-izen bakarra eman beharrez gero, Batzordeak ez du argi zein hautatu.

b) Usansolo. Usansolo Galdakaoko auzoa izan da berriki arte, hain zuzen ere, Bizkaiko Batzar Nagusiek 2022an udalerrri izatea ontzat eman zuenean; Espainiako Administrazioak ontzat eman zuen izendapen hori 2023ko abenduan.

Herritar-izenari dagokionez, proposatu da *usansoloar* eta *usansolotar* izatea; herritar-izen bakarra eman beharrez gero, Batzordeak ez du argi zein hautatu.

c) Izen ofizialen aldagetak: *Sopelana* > *Sopela*; *Urduña-Orduña* > *Urduña* / *Orduña*. Bizkaiko bi herri horien izen ofizialak aldatu dira. Batetik, *Sopelana* izatetik *Sopela* izatera igaro da, eta, bestetik, *Urduña-Orduña* izatetik *Urduña* / *Orduña*.

d) Errata bat zuzentzea. 145. arauan esaten da Munitibar udalerrriaren izen ofiziala, 1989an onartua, *Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz* dela. Izen hori

okerra da (*Arbaitzegi*-ren eta *Gerrikaitzen* arteko marratxoa ez da zuzena). Izen zuzena, aldiz, *Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz* da.

e) *Garai* herri-izenaren oin-oharra kentzea. 145. arauan, *Garai* toponimoak oin-ohar hau du: «Ahoz gorde den artikuludun aldaera erabiltzea zilegi da. Horrela nahi izanez gero, erabil bedi: *Garaia*, *Garaian*, *Garaitik*, *Garaira*, *Garaiko...*». Batzordeak egiaztatu du absolutiboan ez dagoela artikulurik (*Garaia* ez da lekukotzen) eta inesiboan baino ez dela gertatzen fenomeno hori bertako erabileran. Ahozko erabileran (*Garaixen*) ez dagokio idatzizko forma estandarrari. Horregatik, ohar hori ezabatzea proposatu du.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, urriaren 14a (astelehena) artekoa.

6. EBO: Ortografia-markak (I) txostena. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

EBE Batzordeko A. Mujikak adierazi duenez, Ortografia-markak (I) txostenari M. Azkaratek eta A. Garikanok egin dizkiote oharrak. M. Azkarateren oharretako batzuk testuko oharrak konpontzeko ohartarazpenak direnez, ez dira eztabaidatu, zuzenean onartu eta okerrak konpondu dira. Bestelako oharrei dagokienez, erabaki hauek hartu dira:

- Data zenbakiz adierazteko moldean (txosteneko 2.1.6 puntua), zenbakien artean marratxoa jartzeaz gainera, barra etzana ere jartzea ontzat ematen da, eta ohargileak galdetu du ea puntua ere onartzekoa den. Batzordeak erantzun du, nazioarteko joerak eta datuak emateaz gainera, zenbakizko adierazpenen txostenean datari buruzko atal bat dagoela eta han eztabaidatuko dela puntua ere ontzat ematea komeni den. Orduan zer erabakitzen den, txosten honetan dagokiona jarri beharko da: onartuz gero, txosten honetan ere aipatu beharko da, eta, onartu ezean, dagoen bezala utzi beharko da.

- Txosteneko 2.1.7 puntuan, EAJ-PNV siglak dituen adibidea kentzea hobetsi da.

- Txosteneko 24. oin-oharra (Osoko Bilkurarentzako oharra): *asterisko* hitza Euskaltzaindiaren Hiztegiko Lantaldeak aztertuko du, eta, hiztegian sartzea ontzat ematen bada, txostenean ere erabiliko da. Beraz, erabakiaren zain utzi da.

- Txosteneko 2.9 puntuan, adibide bat zuzenduko da, nahiz eta benetako adibidea izan, Euskaltzaindiaren hobespenekin bat etorrazteko. Honela utziko da (*nagusi* hitza genitiboan jarrita): «... aditz **nagusiaren** eta laguntzailearen artean».

- Txosteneko 3. atalean, *latindar alfabeto* terminoa erabili da behin baino gehiagotan, eta *Euskaltzaindiaren Hiztegian* LATINDAR sarrerak ez du adiera hori. Euskaltzaindiaren Hiztegiko Lantaldeak aztertuko du, eta erabakitzen dena aplikatuko da txosten guztietan, bai eta lehendik arauetan dauden *latindar alfabeto*, *alfabeto latindar* edo *alfabeto latino* ere. Beraz, erabakiaren zain utzi da.

A. Garikanok ohar ugari egin dizkio testuari, eta ohar gehienak estiloari dagozkio: erredakzioa eta testuaren irakurgarritasuna hobetzeko proposamen egokiak dira edo erratak konpontzeko oharrak. Batzordeak zuzenean ontzat eman ditu era horretako oharrak, eta ez da beharrezkoa izan bilkuran eztabaidatzea, ez baitagozkio txostenaren edukiari. Mamiari dagozkionak bakarrik aurkeztu eta ebatzi dira. Honako hauek dira:

- Txosteneko 2.2.2.2.2 puntuan, «Kasu batzuetan, marratxoa bereizlea da» esaldiaren ordeztu, azalpen hau onartu da: «Kasu batzuetan, marratxoa lagungarri da anbiguotasuna ezabatzeko, garbi uzten baitu egitura izen-elkarte bat dela eta ez izen bat eta adjektibo bat. Adibidez, [...]».

- Txosteneko 2.1.2.2.7 puntuan, paragrafo hau dator: «Gutxienez hiru hitzez osatutako elkarte bereziak dira, non ezkerraldeko izenen artean modu sintetikoan adierazten baita beste egitura konplexuago batez adieraziko litzatekeen erlazioa. Adibidez, [...]». Horren ordeztu, paragrafo hau onetsi da: «Gutxienez hiru hitzez osatutako elkarte bereziak dira. Azken osagaia, eskuineko izena, hitz-elkartearen burua da, eta ezkerreko osagaien bidez eskuineko izenari buruzko informazio bat ematen da modu trinkoan; hau da, bestela izenlagun konplexu baten bidez edo perpaus erlatibo baten bidez adieraziko litzatekeena laburtzeko balio dute. Adibidez [...]».

- Txosteneko 3.1 puntuan, *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* sarrera kopiatu da, eta, adibide batean, *ikur diakritikoez* dioen tokian badirudi mugagabea behar litzatekeela: *ikur diakritikoz*. Euskaltzaindiaren Hiztegiko Lantaldeak aztertuko du, eta erabakitzen dena aplikatuko da txostenean. Beraz, erabakiaren zain utzi da.

- Txosteneko 3.5.5 puntuan, hauxe esaten da: «Horregatik, malgu jokatu ohi da gure inguruan ezezagun gertatzen diren diakritikoekin, edo, ezagunak izanik ere, ohiz kanpoko posizioan agertzen direnekin. Zehazki, latindar alfabeto hedatua erabiltzen duten hizkuntzen kasuan gertatzen da». Horren ordeaz, beste hau jartzea onartu da: «Horregatik, malgu jokatu ohi da gure inguruan ezezagun gertatzen diren diakritikoekin, edo, ezagunak izanik ere, ohiz kanpoko posizioan agertzen direnekin. Zehazki, latindar alfabeto hedatua erabiltzen duten hizkuntzen kasuan jokatu ohi da malgu».

Horrenbestez, onartu da txostena eta Euskaltzaindiaren Hiztegiko Lantaldeak erabakitzen duena zuzenean aplikatuko da *asterisko*, *latindar* eta *diakritiko* hitzei dagokienez.

7. EBO: Ortografia-markak (II) txostena. Aurkeztu

EBOko ortografia-marken multzoko bigarren txostena aurkeztu du EBE Batzordeko A. Mujikak. Ortografia-marken atala aski handia da, eta hiru partetan landu da. Horiek horrela, bigarren partean, puntuazio-marka hauek landu dira: puntua, etenpuntuak, parentesiak, parentesi karratuak, marra, komatxoak, eta galdera- eta harridura-markak (hirugarren txostenean, koma, puntu eta koma eta bi puntuak landuko dira).

Puntuazio-marka bakoitzaren deskribapen tipografikoa egin da, eta bakoitzaren funtzioak xeheki deskribatu. Puntuazio-marka bakoitza beste puntuazio-marka baten ondoan gertatzen denean nola jokatu behar den ere zehaztu da, bai eta marka bakoitzaren puntuazioaz haraindiko funtzioak xehatu ere.

Bizpahiru puntu bereziki korapilatsutan nola jokatu galdetu dio EBE Batzordeak Osoko Bilkurari, datuak eta azalpenak emanda (txostenak bi eranskin ditu, datu osagarriak emateko). Horretaz gain, marra eta parentesien barnekoaren eta kanpokoaren arteko komunztadurari buruzko galdera bat ere mahairatu du, gaia ortotipografiari ez dagokiolako.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, abenduaren 9a (astelehena) artekoa.

8. Esku artekoak

8.1 Patxi Oroz ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Beriainen (Nafarroa) jaio zen Francisco Javier Oroz, 1934ko abenduaren 2an. Filologia Erromanikoko doktorea (Münsterko Unibertsitatea), Tübingengo Unibertsitateko irakasle emeritua, ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak 2004ko azaroaren 26an. Organista aritu zen Erroman eta Münsterko Saint Michael elizan. Tübingengo Romania Cantat abesbatzako zuzendaria ere izan zen. Musikagile gisa hainbat lan ondu zituen: *Nire aitaren etxea*, *Gernika ostadarra*, *Canon pro pace* eta *Vasconia cantat* bildumak, esaterako. 1960tik aurrera, filologo-lanetan aritu zen. Bitxikeria bezala, aipatu behar da Gabriel Arestiren *Nire aitaren etxea defendituko dut* poemaren ehunka itzulpen bildu zituela Orozek. Bere hileta urriaren 7an izango da Tübingen herrian.

8.2. Gaur banatuko diren argitalpenak

a) *Toponimia de Vitoria IX / Gasteizko Toponimia IX. Dibiña II. Onomasticon Vasconiae* 35. Elena Martínez de Madina. Gasteizko Toponimia egitasmoaren zuzendari akademikoa: Roberto González de Viñaspre.

b) *Euskaltzaindia eta Nafarroa / Euskaltzaindia y Navarra*. Paratzaileak: S. Aleman, A. Iñigo eta P. Rekalde.

c) *Euskaltzaindia eta Araba / Euskaltzaindia y Álava*. Paratzailea: Roberto González de Viñaspre.

d) *Iraileko Paperak*. Askoren artean. Iraileko egitasmoarekin batera ontzen eta banatzen dena.

8.3 Hurrengo bilkurak

a) *Irailekoak* egitasmoa dela eta, asteburu honetarako zehaztu den egitaraua aurkeztu du I. Borda euskaltzainak. Euskaltzainei gonbita luzatu zaie hurrera daitezen.

b) Hurrengo osoko bilkura Donostian, urriaren 25ean, ostiralean, egingo da, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 10:00etan.

8.4 Bazkariak direla eta, irizpideak eguneratu dira. Zuzendaritzak aurreko osoko bilkuran hartutako konpromisoari erantzunez, irizpideak eguneratu dira. Argibideak A. Urrutia euskaltzainburuak eman ditu.

9. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:00ak direnean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

IX

Osoko bilkura

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean

2024ko urriaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Casenave, Jon
Garikano, Asun
Iñigo, Andres
Kintana, Xabier
Mujika, Alfontso
Rekalde, Paskual
Uribarren, Patxi
Zabaleta, Patxi
Zalbide, Mikel

Odrizola, Oihan, Informatika zerbitziburua, Osa, Erramun, idazkariordea eta Usarralde, Ibon, egitasmoen bateragilea, zegozkien gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Jose Irazu «B. Atxaga», Jabier Kaltzakorta, Miren Agur Meabe, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra,

Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Castillo Suárez eta Xarles Videgain.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Joseba Lakarrari eta, bera ez balego, Miriam Urkiari; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Adolfo Arejitari eta, bera ez balego, Andres Urrutiari; Miren Agur Meabek ahala Andres Urrutiari; Miren Lourdes Oñederrak ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari eta Castillo Suárezek ahala Miriam Urkiari.

Batzarra Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, egin da, 2024ko urriaren 25ean, ostiralean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, 2024ko urriko osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Osoko bilkuraren (2024-09-27) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

M. Azkarate eta A. Mujikaren iruzkin bana jaso da. Bi-biak akatsak direnez gero, zuzendu dira. Ahoz bestelako iruzkinik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko irailaren 27ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak.

Batzorde Ahaldunduaren oharrak (LVI). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak azaldu duenez, iraileko bilkuran aurkeztutako zerrendari P. Zabaletak egindako bi ohar aurkeztu dira, bai eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoitua ere. Bi ohar horiek ez dira onartu.

Beste oharrik ez da egin eta, beraz, zerrenda osoa onartuta geratu da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak. Batzorde

Ahaldunduaren oharrak (LVII). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok eta M. Azkaratek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, azaroaren 18a (astelehena) artekoa.

4. Onomastika Batzordea: Bizkaiko herri izendegia eguneratzeko proposamena aurkeztu

A. Alberdik eta P. Zabaletak oharrak egin dizkiote proposamenari, eta Onomastika Batzordeak, oharrok aztertuta, erantzuna prestatu du. R. González de Vinaspre Onomastika batzordeburuak aurkeztu du erantzuna.

Bi ohargileak herritar-izena arautzeko orduan forma bakar bat aukeratzearen alde agertu dira, eta Onomastika Batzordeak ere uste du, ahal delarik, hobe dela herritarizenaren forma bakarra ematea. Hala ere, datu-bilketa egin ondoren, Batzordeak ikusi zuen datu gutxi zeudela forma baten alde ziurtasunez egiteko. Batzordeak bildu zituen datuak aurkeztu dira, baita berariaz egindako ahozko bilketarenak ere, eta Osoko Bilkuraren esku utzi du erabakia.

Datu guztiak gainbegiratu ondoren, eta forma bakar baten alde egiteko datu gutxi daudela onarturik ere, Osoko Bilkurak forma bakarra plazaratzea hobetsi du, eta, datuak eta joerak ikusita, azkenik, *usansolotar* eta *zollotar* formak onartu ditu.

Gainerako puntuetan beste oharrrik ez dagoenez, Onomastika Batzordeak iraileko osoko bilkuran egindako proposamena onartu da. Hala, 145. araua («Bizkaiko herri izendegia») eguneratuta gelditu da.

5. Euskaltzaindiaren 2025eko egutegia. Aurkeztu

E. Osa idazkariordeak Euskaltzaindiaren 2025eko behin-behineko egutegia aurkeztu du. Dokumentuak hiru zati barruratzen ditu. Batetik, egutegi-proposamena, non osoko eta ageriko bilkurak, barne-jardunaldiak eta abar jasotzen diren. Egutegiari doakionez, 2024. urtean hildako euskaltzainen kopurua ikusita, Zuzendaritzan bi ageriko bilkura egitea aurreikusi dela adierazi da. Hurrengo osoko bilkuran xehetasunak emango dira. Bestetik, urtemugak gehitu dira, besteak beste, jardunaldi edota argitalpenen bat atondu ahal izateko, batzorde edota lantaldeen aldetik. Azkenik, esanguratsuak diren liburu batzuen zerrenda ere egin da.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, azaroaren 18a (astelehena) artekoa.

6. Euskaltzaindiaren Informatika Zerbitzua. Euskaltzaindiaren sistema informatikoak eguneratzeko hartutako erabakiei buruzko azalpenak

A. Urrutia euskaltzainburuak, iraganean, Euskaltzaindiaren sistema informatikoa antolatzearen inguruabarrean, hartu ziren erabakiak eta horrek sorrarazitako egoera eta aurrera egiteko dauden zailtasunak azaldu ditu. Horiek horrela, jakinarazi du, Zuzendaritzan, sakoneko aldaketa bati ekiteko erabakia hartu zela. Horretarako, Oihan Odriozola informatikaria kontratatatu zen urte honen hasieran. Ondoren, hitza eman dio O. Odriozola Euskaltzaindiko Informatika Zerbitzuko buruari.

O. Odriozolak Euskaltzaindiko sistema informatikoaren urte hasierako egoera, pilatutako arazoak eta sistemaren gabeziak azaldu ditu. Hala berean, 2024. urtean eginiko urratsak aletu ditu, bai eta hartutako erabakien ondorioz, egungo egoerak irekitzen dituen aukerak eta aurrera begira eginkizun daudenak azaldu ere.

Euskaltzainburuak adierazi duenez, egoera berri honek hurrengo Zuzendaritzari atek irekitzen dizkio urrats berriak egiteko, digitalizazioaren, aplikazio berrien eta zerbitzuen eremuan.

7. 2021-2024 plangintzaldiak emanikoaren azalpena.

2020. urtearen hondarrean izendaturiko Zuzendaritzaren agintaldia amaitzeko bi hilabete falta direnez gero, 2021. urtean onetsitako plangintzaren balantzea aurkeztea garrantzitsua dela adierazi du A. Urrutia euskaltzainburuak. Testuinguru horretan, 2021-2024 aldian, Akademiak urrats garrantzitsuak egin dituela adierazi du, gerora bere ibilmoldea indartzen lagunduko dutenak. Egin gabe eta nahi baino beranduago egin direnak ere hizpide izan ditu. Ondoren, hitza eman dio Ibon Usarralde Egitasmoen bateragileari. I. Usarralde aldiko balantzea aurkeztu du bost ataletan antolatuta: arlo instituzionala, arlo akademikoa, ezagutzaren transferentzia arloa, arlo kulturala eta arlo ekonomikoa.

Adierazi da aurkeztutako dokumentua nahi duten euskaltzainei igorriko zaiela posta elektronikoz.

8. Esku artekoak

8.1 Jon Casenave euskaltzainak igorritako mezua. J. Casenave euskaltzain osoak mezua igorri eta hartan esan du Osoko Bilkurak eginiko euskaltzain osoaren izendapena onartzen duela eta Euskaltzaindiaren xedeak zein euskaltzain modura dagozkion eginkizunak leialtasunez beteko dituela.

8.2 Luis Baraiazarra ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Urriaren 6an hil zen, 84 urte zituela. Meñakan (Bizkaia) jaio zen Baraiazarra, 1940ko martxoaren 17an. Euskal Filologian lizentziaduna (Deustuko Unibertsitatea), irakasle-, idazle- eta itzultzaile-lanetan nabarmendu zen. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1996ko martxoaren 29an eta ohorezko 2010eko urtarrilaren 29an. Akademian, batzorde ugaritan egin du lan: Hiztegi Batuko Lantaldean (1993-2017), Gramatika Batzordean (1997-2007), Euskaltzaindiaren Hiztegiaren Lantaldean eta Adierak eta Adibideak Lantaldean. Itzulpen-lan ederrak egin ditu Baraiazarrak, baina bat nabarmentzekotan, haxe: *Santa Teresa Jesusenaren idazlan guztiak*.

8.3 Martzel Andrinua ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Urriaren 6an hil zen, 94 urte zituela. Ziortza-Bolibarren (Bizkaia) jaio zen M. Andrinua Lariz, 1930eko abuztuaren 18an. Bilboko Elizbarrutiaren Bizian Gora elkarteko kontseilaria izan zen eta Bizkaiko eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketetako epaile ohia ere bai. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1961eko abuztuaren 25ean eta ohorezko 2018ko apirilaren 27an. M. Andrinuak idatzitakoen artean daude *Aita Patxi* (2000) eta *Txikiak haundi* (2004) liburuak.

8.4 George Rebuschi ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Urriaren 23an hil zen Nancyn. Parisen (Frantzia) jaio zen 1949ko martxoaren 10ean. Hizkuntzalaritzan doktorea (Paris VII Unibertsitatea). Sorbona Berria (Paris III) Unibertsitateko irakasle emeritua. Euskaltzain urgazle izendatua 1991ko urtarrilaren 31n eta ohorezko 2002ko azaroaren 29an. G. Rebuschik idatzitakoen artean daude: *Structure de l'énoncé en basque* (1984) eta *Essais de linguistique basque* (1997).

8.5 Gaur banatuko den liburua. Euskararen Historia Soziala proiektuan garatu diren metodologia eta lan-tresna berritzaileak nazioartean ezagutarazteko eta partekatzeko asmoz, ingelesez: *Taxonomy Proposal for the (Historical) Sociology of Language Research: a Basque Contribution*. Euskaltzaindia 2024, *Etxeberri* bilduma. Egileak: Mikel Zalbide eta Lionel Joly.

8.6 Hurrengo bilkurak:

a) *Euskara ibiltaria* erakusketa. Ikusgai egongo da Burlatako kultur etxean, urriaren 30etik azaroaren 24a arte.

b) *Pirinioetako hizkuntzak* erakusketa. Ikusgai egongo da Garesko Vínculo Etxean, azaroaren 7tik azaroaren 24a arte.

c) Azaroaren 28an, XXIX. *Jagon* jardunaldia egingo da Bilbon, egoitzan, 09:15etik 13:30 arte. Jardunaldian jorratuko diren bi gaiak: aisialdi antolatua eta lan-munduaren euskalduntzea. Egitaraua datorren astean banatuko da.

d) **Zuzendaritza hautatzeko barrengo bilkura berezia.** 2020ko urriaren 23an izendaturiko Zuzendaritzaren agintaldia 2024. urtearen bukaeran amaituko denez gero, Arautegiaren 32. artikulua dioena gogora ekarri nahi da: «Zuzendaritzako lagunen hautatzea eta kargu hartzea urtearen azken laurdenean egingo dira». Horrela, Zuzendaritzak, 2024ko urriaren 23an eginiko bilkuran erabakitakoari jarraikiz, aditzera ematen da barrengo

bilkura berezia egingo dela, Bilbon, Sociedad Bilbainan, azaroaren 29an, 10:00etan hasita. Gai bakarra: Euskaltzaindiaren Zuzendaritza hautatzeko bozketa.

Karguak hautatuko dira Arautegiaren 5., 28., 29., 30., 31. eta 32. artikuluen eta Barne-erregelen 13., 65., 66., 67. eta 68. artikuluen arabera.

e) Azaroko osoko bilkura. Bilbon, Sociedad Bilbainan, azaroaren 29an, 11:00etan egingo da.

f) Baionan, Herriko Etxean, 2024ko maiatzaren 31n izendatutako ohorezko euskaltzainei eta euskaltzain urgazleei Euskaltzaindiaren ikur-diplomak emateko ekitaldia. Bilbon, Sociedad Bilbainan, azaroaren 29an, 17:00etan egingo da.

9. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:20 direnean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria

X

Osoko bilkura

Bilbon, Sociedad Bilbainan

2024ko azaroaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Casenave, Jon
Garikano, Asun
Iñigo, Andres
Irazu, Jose “B. Atxaga”
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Lakarra, Joseba
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Oñederra, Miren Lourdes
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Urkia, Miriam
Zabaleta, Patxi
Zalbide, Mikel

Maritxalar, Aitor Informatika
aholkularia eta

Osa, Erramun, idazkariordea.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia
Arkotxa, Patxi Salaberri eta Xarles
Videgain.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam
Urkiari; Patxi Salaberrik ahala Paskual
Rekalderi.

*Batzarra Bilbon, Sociedad Bilbainan, egin
da, 2024ko azaroaren 29an, ostiralean.*

*A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzainak
agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma
badela egiaztatu ondoren, 2024ko azaroko
osoko bilkurari hasiera eman zaio.*

*E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak
azaldu ditu.*

1. Osoko bilkuraren (2024-10-25) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

E. Osa idazkariordeak adierazi duenez, idatziz ez da oharrik jaso. Ahoz iruzkinik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko urriaren 25eko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Euskararen Erreferentziazko Corpora (EEC). Aurkeztu

A. Urrutia euskaltzainburuak adierazi duenez, egitasmo hau nahikoa aurreratuta dago eta 2025eko udaberrirako Euskaltzaindiko webgunean erabilgarri egotea espero da. Hala berean, adierazi du egitasmoak barruratzen dituen corpusak eskuratzeko dozenaka hitzarmen izenpetu dituela Euskaltzaindiak. Izan ere, Euskaltzaindiak arduraz eta errespetuz jokatu du testuak sortu dituzten sortzaileekin, bai eta argitara eman dituzten argitaletxeekin ere. Horiek horrela, testu-masa aberasten joango da iturri desberdinetako testuak prozesatu ahala.

Ondoren, hitza hartu du Aitor Maritxalarrek, Euskaltzaindiko IKTko aholkulariak. Euskararen Erreferentziazko Corpora (EEC) Euskaltzaindiak sortutako eta kudeatutako corpora dela baieztatu du. Izatez, EEC era elektronikoan kodetutako testu-multzoa da, informazioa berreskuratzeko ondo prestatua dagoena: antolatua, kodetua, etiketatua, lematizatua eta analizatua.

Aurkeztu dena udaberrian egongo denaren lehen bertsio bat da, hurrengo urteetan zabaldu eta hobetzen joango dena. Segidan helburuak aletu ditu:

a) Azken 25 urtetako testuak jasoko ditu: 2000. urtetik hasita. Urteak aurrera joan ahala, betiere azken 25 urtetako testuak egongo dira kontsultatzeko moduan.

b) Aniztasuna eta adierazgarritasuna barruratuko ditu: iturrietan, euskalkietan, gaietan, erabilera-erregistroetan eta abarretan. Anitza eta adierazgarria izango da corpora. Euskararen erabilera idatzia ahalik eta modu zabalenean jasoko da corpusean.

c) Urtero eguneratuko da: eduki berriekin, tresna berriekin eta hobekuntza teknologikoekin.

d) Erabilera malgukoa izango da: Euskaltzaindiaren behar desberdinak betetzeko balio behar du (hiztegigintza, onomastika, gramatika eta abar).

e) Zabaltzeko eta egokitzeo aukera izango du.

f) Helburu nagusia, azkenik, corpusa egungo euskararen isla izatea da.

Edukiei dagokienez, eta azken helburuari erantzunez, mota guztietako testuak jaso dira lehen bertsio honetan, betiere 2000. urtetik aurrerakoak: prentsa (papera eta *online*), ikasmaterialak, herri-aldizkariak, nobela, saiakera, poesia, teatroa, testu akademikoak, testu administratiboak eta abar. Euskararen erabilera-esparru desberdinak jasotzea da helburua eta horretarako, hurrengo urteetan, sistematikoki, testu eta iturri gehiago jasoko dira, corpusaren aniztasuna eta adierazgarritasuna bermatzeko.

Kontsulta-tresnari dagokionez, sei tresnak osatzen dute EECren lehen bertsioa:

a) **Bilatzaile simplea** eta **bilatzaile aurreratua**: Bi tresna hauek, lema edo forma bat edo lema edo forma desberdinen konbinazioa corpusean bilatzeko aukera ematen dute. Emaiza bezala, bilatutako irizpideak betetzen dituzten testuinguru laburren zerrenda ematen da, testuinguru luzeagoa ikusteko aukera ere ematen delarik.

b) Emaitzak irizpide desberdinen arabera iragazi eta ordenatu ahal dira, argialetxea, urtea, gaia, euskalkia eta abarren arabera. Emaitzaren laburpen-
taulak ere ematen dira, agerpen-maiztasunaren arabera ordenatuta: zein formetan agertzen den, argitaratzailea zein den eta zein hitz-konbinazioekin agertzen den.

c) **Lemen/formen datuak**. Tresna honek lema edo forma baten informazio kuantitatiboa ematen du, taula moduan eta grafikoki, corpusaren sailkapen-irizpide desberdinen arabera: agerpenak urteen arabera, gaiaren araberrako agerpen kopuruak, erabilera-erregistroaren arabera eta, azkenik, agerpen guztiak maiztasunaren arabera ordenatuta.

d) **Lemen/formen konparazioa**: bi lemen edo formen erabilera konparatzeko tresna. Konparazioa corpusaren sailkapen irizpide desberdinen arabera egiten da: agerpenak urteen arabera, gaiaren araberrako agerpen kopuruak, erabilera-erregistroaren arabera eta azkenik, bere agerpen guztiak maiztasunaren arabera ordenatuta.

e) **Agerkideak (koagerpenak)**: Corpusean lema edo forma baten agerkideak (koagerpenak) erauzteko tresna da. Lema edo forma bat bilatuta,

osagai hori duten corpusean maizen agertzen diren hitz bikoteak eta hirukoteak erakusten dira.

f) **Lema erabilienak:** Corpusean agertutako lema erabilien zerrenda azalduko da, kategoriaka sailkatuta.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (LVII). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak azaldu duenez, urriko bilkuran aurkeztutako zerrendari A. Alberdik, A. Garikanok eta P. Zabaletak egin dizkieten oharrak azaldu dira, bai eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak ere. *burutsu* eta *hebain-hebain egin* formei egindako oharrak bere horretan onartu dira. Aldiz, *garunak urtu* eta *txakurraren ipurdira bidali* formei egindako oharrak ez dira onartu eta, beraz, bere horretan uztea erabaki da. *gurutze santuaren egin* azpisarrerari ez zitzaion ohar zehatzik egin, baina definizioak eta loturak findu dira, eta hala onartu da. Azkenik, P. Zabaletak *gozoan utzi* erabat ezabatzeko eskatu du, eta onartu egin da, baina horren orde proposatu dituen *komodatu*, *zentsuren* adiera berria eta *usufruktu* oraingoz ez jasotzea erabaki da.

Beste oharririk ez da egin eta, beraz, zerrenda osoa onartuta geratu da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (LVIII). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok eta M. Azkaratek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, abenduaren 16a (astelehena) artekoa.

5. Euskaltzaindiaren 2025eko egutegia. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

E. Osa idazkariordeak adierazi duenez, 2024. urtean hildako euskaltzainei omenalditoxa egin ohi zaie urtearen lehenengo osoko bilkuraren ostean. Aurten hil direnen kopurua ikusita, Zuzendaritzan bi ageriko bilkura egitea aurreikusi da, urtarilaren eta martxoaren amaieran, hain zuzen. Bestelako oharririk edota proposamenik ez da iritsi, beraz, Euskaltzaindiaren 2025eko egutegia onetsi da.

6. EBO: Letra larri eta xeheen araua. Azken doitzeak

Letra larri eta xeheen arauaren sei txostenak onartu ondoren, Osoko Bilkurak hartutako azken erabakien ondorioz txostenetan gauzatu, behin betiko aurkibidea prestatu eta arau bakar gisa argitaratzeko moduan antolatu eta maketatu da. Guztira, 148 orrialde izango ditu arauak. A. Mujikak adierazi du argitaratu aurretik *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunari, M. Urkiari, bidali zitzaiola, hiztegiaren araua aplikatzean arazorik edo ustekabekorik gertatzen den ikustearren. M. Urkiak prestatutako zalantzen eta arazoen txostena jaso ondoren, EBE Batzordeak aztertu eta proposatu du araua argitaratu aurretik, bi doitze egitea eta laburduren arau jada argitaratuan doitze bat egitea. Letra larri eta xeheen arauan, bi doitze hauek:

«2.3.11.1 Historiako erresumen, inperioen eta kidekoen izenak» puntuan, oin-ohar hau sartzea:

Inperioak modu formalean izendatzen ez direnean, ez da beharrezkoa letra larriz idaztea. Adibidez, *Britainiar Inperioa* izendapen formalaren aldean, *britainiarren inperioa* adierazpen ezformala dago, edo *Espainiako eta Indietako Erresuma* izendapen formalaren aldean, *espainolen inperioa* edo hititek sortu zuten inperioa (*Inperio Hitita*) aipatzeko, *hititen inperioa*.

«2.3.1.6 Eremu geopolitikoak, geoturistikoak» puntuan, adibideen artean dagoen *Hirugarren Mundua* kentzea eta oin-ohar hau sartzea:

Letra larriz hasita idatzi izan zen *hirugarren mundua* termino geoeconomikoa sortu zenean (*Hirugarren Mundua*); gaur egun, ordea, letra xehez idaztea da joera nagusia. Beste hainbeste harekin batera erabiltzen diren *lehen mundua*, *bigarren mundua* eta *laugarren mundua* terminoak ere. Halaxe daude jasota guztiak *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren*, letra xehez.

Azken doitzea 196. arauari dagokio («EBO (I). Laburtzapenak: Laburdurak eta siglak»): letra larri eta xeheen arauak dio ez dela beharrezkoa *administrazio* hitza beti letra larriz idaztea. Horregatik, 196. arauaren amaieran dagoen laburduren zerrendan, *Administrazioa* → *Admin.* dagoen tokian:

hau jartzea proposatu da: *administrazioa* → *admin.*

Hiru doitzeak onartu dira. Letra larrien araua argitaratzen denean, *Plazaberri* agerkarian jakinarazi beharko da 196. arauan doitze bat egin dela, eta, ohi bezala, 196. arauan bertan doitze horren berri eman beharko da oin-ohar batean, dena behar bezala erregistratuta uzteko.

Horrenbestez, letra larri eta xeheen araua argitaratzeko prest gelditu da.

7. EBO: Ortografia-markak (III.1) txostena. Aurkeztu

EBOko ortografia-marken multzoko hirugarren txostenaren lehen partea aurkeztu du EBE Batzordeko A. Mujikak. Hirugarren txostenean hiru marka deskribatzen dira: koma, puntu eta koma eta bi puntuak. Lehen partea komari dagokio, eta parterik handiena eta konplexuena da. Bigarren partean, beste bi markak landuko dira.

Txostena egiteko, erdaretako iturriez gainera, bereziki kontuan hartu dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren *Puntuazioa egoki erabiltzeko gida* izeneko liburua (2014an argitaratua Euskaltzaindiaren behin-behineko oniritziarekin), *Euskararen Gramatika* (batez ere, hitz-ordenari eta funtzio informatiboei buruz dituen atalak) eta *Euskara Batuaren Eskuliburuak* ematen dituen gomendioak.

Koma zeregin gehien dituen puntuazio-marka da, erabiliena eta konplexuena. Txostenak aukerako komak, nahitaezko komak eta debeku diren komak zehazten ditu hasieran. Ondoren, komaren eginkizun nagusia egitura sintaktikoak markatzea dela adierazi ondoren, koma noiz erabiltzen den azaltzen du. Horretarako, perpausean duen kokapena hartzen da kontuan: komaren erabilera perpausaren hasieran, perpausaren amaieran eta tartekietan. Azken partean, zehazki deskribatzen da komaren erabilera esaldi-osagaien juntaduran, mendeko perpausetan eta aditz-isiltzeetan. Amaitzeko, komaren beste erabilera batzuk zehazten dira.

Aurkezpenaren ondoren, txostenari oharrak egiteko epea jarri da: urtarilaren 13a.

8. Esku artekoak

8.1 Xabier Erdozia euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. Azaroaren 24an hil zen Lekeition, 88 urte zituela. Donostian (Gipuzkoa) jaio zen

Aurtengo jaialdia (iazkoa Lekeition antolatu zen) irailaren 28an, egun osoz, eta 29an, goizez, izan da, eta olerkari, musikari, itzultzaile eta ikertzaile ugari parte hartu du bertan. Egitasmoaren nolakotasunak Andres Urrutia euskaltzainburuak laburbildu ditu: «Norbaitek esan lezake honelako ekintzak antolatzea ez dela Euskaltzaindiaren funtzio berezkoa, printzipioz berari dagokionari ekin beharko liokeela, hau da, hiztegigintzari, lexikografiari, toponimiari eta abarri... Eta horretan bagabiltza. Baina gogoratu behar da, halaber, Akademiak betidanik izan duela euskal kultura sustatzeko bokazioa eta grina, bere hastapeneko helburuetatik gaurdaino. Euskal Herriko Bertsolarien sei txapelketa nagusi antolatu zituen bere garaian Akademiak; besteak beste, EIZI Eren eta Euskal Idazleen Elkartearen sorrerak bultzatu zituen, euskarazko lehen agiriak banatu zituen, eta abar. Beraz, erabat naturala da Euskaltzaindiarentzat *Irailekoak* bezalako egitasmo bat antolatu eta sustatzea. Beste horrenbeste esan daiteke Bilbon antolatzen dugun *Lautan Hiru* antzerki-jaialdiari buruz ere».

Okzitanierazko literatura eta Alidé Sansen kontzertua

Lehenengo egunean, irailak 28 dituela, Ipar Euskal Herriko poesiaren nondik norakoak aztertu ditu Katixa Dolhare-Zaldunbide irakasleak, Sanoki gelan. Hitzaldi mamitsu eta zinez interesgarria izan da. Ondoren, Itsasuko Gaineko plazan, poesia-irakurraldia izan da Anjel Erro, Maddi Sarasua eta Harkaitz Canorekin, ekitaldia Pantxix Bidarte musikariak girotu du. Arratsaldean, *Munduko Poesia Kaierak* (Susa argitaletxea) egitasmoari eman zaio bide, emanaldi ibiltari batekin. Egun berean, baina gauez, kontzertu bikoitza izan da, hain zuzen, Maddi Oihenart eta Jérémie Garatek eta Alidé Sansek eman dutena. Itsasuko elizan izan da, eta azpimarratu behar da Alidé Sansek estreinakoz eman duela kontzertu bat Euskal Herrian.

Azkenik, Itxaro Bordak gogoratu du *Irailekoaken* euskal poeten lana gizarteratu nahi dela batez ere, baina beste bazter batzuetako poeten lana aherentzi gabe: «Zentzu horretan, mintzaldi interesgarria eman du Sergi Javaloyes idazle eta itzultzaileak Itsasuko haurtzaindegian (Elizalden), bertan okzitanierazko literatura aztertuko duela sakonki. Ondoren, irakurraldi elebiduna izan da toki berean, Aurelia Lassaca poeta okzitaniarraren eta Coralie Nazabal musikariaren eskutik».

SERGI JAVALOYES (1951)

Aljeriako Oranen sortu idazleak bere haurtzaroa eta bizi gehiena Nay aldean pasatu du. Bearnesa bertan ikasi zuen. *L'ora de partir* [Partitzeko tenorea] nobelarekin egin zen ezagun 1997an eta literaturaren alor asko jorratu ditu, itzulpena eta poesia bereziki. Luzaz Calandreta eskola-elkartearen presidente izan zen. *L'homme est un ours qui a mal tourné* (2022) [Gaizki bihurdikatu den hartz da gizakia] izeneko bere azken eleberria frantsesez publikatu du In-8 argitaletxean.

AURELIA LASSACA (1983, Okzitania)

1983an Tarn eta Garona departamenduan sortu eta bertan bizi den Aurelia Lassac poesia idazten du okzitanieraz eta frantsesez. Literaturako bere doktoretesia okzitanierazko XVII. mendeko antzerkiari eskaini dio. Nazioarteko hainbat festibaletan parte hartu du. Musikari askoren laguntzaz agertzen da taula gainean. Bere liburu gehienen edizio elebidunak Bruno Doucet etxean aurkitzen ahal dira, hala nola 2023an argitaratutako *Frontières/Mugak* izeneko antologia.

Jarduera osagarriak

Itasun poesiari presentzia handiagoa emateko, udaldian garai eta geografia askotako egileen bertso-lerroz jantzi dira herriko erakusleihoak eta Herriko Etxea bera. Tartean, Forugh Farrokhzad, Anne Sexton, José Luis Otamendi, Miren Agur Meabe, Aurelia Arkotxa, Bernardo Atxaga, Raymond Carver, Angel Erro, Castillo Suárez, Itxaro Borda, Jon Gerediaga eta Alejandra Pizarnik-en bertsoak erakutsi dira. Gainera, eta iraileko egun horietan egindakoaren lekukotza jasotzeko, *Iraileko Paperak* aldizkariaren bigarren zenbakia plazaratu da, «oroigarri intelektual-poetiko gisa». Aurten, Christine Etchevers margolariak edertu du jaialdian parte hartzen duten poeta eta ikusleen artean banatuko den argitalpen hori.

Ikerlan «osoa eta landua» ondu dute Pello Apezetxea ikerketa-bekaren irabazleek

2023an, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Euskaltzaindiak Pello Apezetxea Zubiri euskaltzale goizuetarra omentzeko lehen beka sortu zuten. Apezetxea arlo anitzetako ikertzailea, ekintzailea eta sustatzailea izan zen, baina bereziki nabarmentzekoa da euskara babesteko, ikertzeko eta sustatzeko egin zuen lana. Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen 2004. urtean, eta 2022an zendu zen, 89 urte zituela.

Euskaltzaindiaren Nafarroako Ordezkaritzan egin den agerpenean, deialdiaren helburuak nabarmendu ditu Sagrario Aleman Jagon sailburuak: «Batetik, Pello Apezetxea ohorezko euskaltzaina omendu nahi genuen, eta, bestetik, soziolinguistika, dialektologia edota onomastika arloetarako ikerketa-lan bat egiteko beka eman nahi genuen, Pellok egindako ikerketei segida emateko». Bada, bi helburuak bete dira, bekaren irabazleek, Jon Martin Etxebestek, Paula Laita Pallaresek eta Ane Osua Cabidak, Bortzirietako hizkuntza-aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko jarrerak sakonki eta zorrotz aztertu baitituzte.

Epaimahaiaren arabera, «ikerketa osoa eta landua» aurkeztu du lantaldeak, eta, gainera, «ikerketa teknika berritzaileak erabili dituzte, Haur Hezkuntzan egindako esplorazio esperimentalak, kasurako».

Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantzan aritu dira ikertzaileak, eta azterlanean jasotako datuetatik ondorio ugari atera daiteke. Hona hemen garrantzitsuenak:

- Bortzirietako ikasle gehienak D ereduan daude, baina egia da atzeritar aunitz pilatzen dela A eta B ereduetan.
- Oro har, Bortzirietan etorkinek euskararekiko duten jarrera ona da. Areago, gehienek euskara (gehiago) ikasi nahiko lukete.
- Euskaldunek eta erdaldunek gaztelaniarekin lotzen dute ikus-entzunezkoen kontsumoa. Euskara ez dute modernotzat jotzen.
- Migratzaileek euskararen balio instrumentala aitortzen dute, lana aurkitzeko lagungarria baita.
- Euskarari komunikatzeko balioa aitortzen diote, harremanak egiteko ere lagungarria baita.
- Euskaraz ez jakiteagatik euskal kulturaren zati bat galtzen ari direla sentitzen dute kanpotik etorritakoek.
- Etorkinek euskara ikasteko baliabideak ezagutzen dituzte, baina euskara zaila delako ideia oso zabaldua dago.

Honela, lantaldeak etorkizunean esku hartzeko proposamen zehatzak egin ditu, eta migratzaileen integrazio linguistikorako erronka garrantzitsuak identifikatu ditu:

- Integrazioarena alde biko prozesua da. Ahalegina ez dagokie bakarrik kanpotik etorri direnei, bertakoek ere saiakera egin behar dute, eta, erraterako, euskaraz aritzeko espazio partekatutak eskaini.
- Kultur eta kirol jarduerak garrantzi handia dute, elkargunerako baliagarri diren neurrian.
- Euskara ikasteko berariazko ikastaroak eskaintzea proposatzen da, etorkinen ezaugarriak (ordutegia, lanbidea, bizilekua...) aintzat hartuta.

Azkenik, azpimarratu behar da ikerketaren emaitza Jagon bilduman argitaratuko duela Euskaltzaindiak eta, horrez gain, ikertaldeak lan hau Palmako Ideoling kongresuan aurkeztuko duela, datorren urriaren 18an.

Hizkuntzen Europako Egunean, Espainiako Diputatuen Kongresuan izan da Euskaltzaindia

Hizkuntzen Europako Eguna zela eta, Euskaltzaindia Madrilgo Diputatuen Kongresuan izan zen atzo. Honela, Espainiako Gobernuak antolatutako ekitaldian parte hartu zuen Andres Urrutia euskaltzainburuak, Estatuko beste hizkuntza ofizialeko ordezkariekin batera.

Francina Armengol Kongresuko presidenteak eta Ernest Urtasun Espainiako Estatuko Kultura ministroak estreinatu zuten ekitaldia, sarrera-mintzaldi bana eginez; ondoren, Estatuko hizkuntza ofizialeko ordezkariak hitz egin zuten, eta, azkenik, Rozalén kantariak Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* interpretatu zuen, bertan bildutako guztien txalo zaparrada jaso zuela.

URRIA

Euskarak Bilbon izan duen lekua ezagutzeko erakusketa

Labayru Fundazioak *Bilbo, euskararen hiriburua* erakusketa aurkeztu du gaur jendaurrean. Erakusketaren bitartez euskarak Bilbon izan duen lekua eta

garrantzia jaso nahi da. Honela, xx. mendetik hona euskarak hirian egindako ibilbidea erakusten da, euskarari ekarpena egin dioten pertsonak eta erakundeak ardatz hartuta.

Bilboko Udalaren eta Euskaltzaindiaren babesa du erakusketa ibiltariak. Urrian Begoñako udaltegian izango da, azaroan San Inazio-Ibarrekolandan, Errekalden eta La Bolsan erakutsiko da, eta abenduan Castaños auzoan.

Gilkitxaro konpainiak jasoko du 2025eko LAUTAN3 laguntza, *Alferrak*, *tunanteak*, *maleanteak* lanagatik

Euskaltzaindiak antzerki-ekoizpena sustatzeko laguntza berria sortu zuen 2020an, Bilboko Udalaren babesarekin. Sari horren helburu nagusia euskarazko antzerkia sustatzea da, batez ere, lan laburren sorkuntzari bultzada emateko xedez.

Horretara, 2025eko LAUTAN3 laguntza Bilboko Gilkitxaro konpainiak irabazi du, *Alferrak*, *tunanteak*, *maleanteak* lan laburrari esker. Ane Zabalak, Aitor García de Vicuña eta Galder Perezek osatzen dute Gilkitxaro, eta konpainiak 2.500 euroko zenbatekoa eskuratuko du. Antzezlanak 2025eko otsailean antolatuko den VII. LAUTAN3 jaialdian estreinatuko da.

Epaimahaiko kideen arabera (Tartean, BIRA Kultura, 7Katu eta Euskaltzaindia), «gidoi kitzikagarria du antzezlanak, gai sakonak umorez jorratzen dituela, gaur egungo arazoei helduz».

***Alferrak*, *tunanteak*, *maleanteak*: sinopsia**

Pili, Mili eta Willi atzerriratutako hiru inurri dira eta nagi izateko eskubide unibertsala aldarrikatzen dute. Horra hor antzezlanaren abiapuntu originala. «Gozamenaren aldarrikapena eta anormaltasunaren apologia egin nahi du antzezlan labor honek», esan dute Gilkitxaroko kideek. «Bizi dugun gizarteak produkzioa bultzatzen du, gizakiari ia arnasa hartzeko tarterik utzi gabe, hausnarketan erortzeko tentaziorik gabe. Bada, klik azkar bat egin eta horri guztiari erantzun behar diogu», gaineratu dute.

Eduki berriak gehitu zaizkio *Noeren Ontzia* egitasmoari

Ahozko Literaturako atalean, Mayi Ariztiak, Resurreccion Maria Azkuek, Jose Migel Barandiaranek, Jean Barbierrek eta bestek jasotako ipuin eta elezaharrak gehitu zaizkio *Noeren Ontziari*, kontakizunak berak bezain indartsu diren ilustrazioekin hornituta.

Historia atalean, karlistaldien garaiko lekukotasunak, Mikela Elizegik eskainitakoak edota Frantzisko Apalategik jasotakoak; bandoren bat, soldadu karlistak desertatzera animatzen dituen esate baterako; edo garai hartan ondutako bertsoak, ez denak tristeak, Joseba Tapiak kantatzen duen *Apaizak tiraka pin-pon* delakoak erakusten duen bezala.

Gaurko idazleei ere egin zaie tokia: Inazio Aiestaran, Koldo Izagirre, Joseba Sarrionandia..., eta baita testuen edukiari dimentsio zabalagoa ematen dioten irudi-bilduma, audio, bideo eta abarri ere.

***Noeren Ontzia*: helburuak eta egitura**

Euskaltzaindiak, gazteen artean den euskal kultura-ondarearen gaineko ezagutza urriaz eta haien irakurmenaren gainbeheraz kezkatuta, eta, ildo beretik joanda, euskal kultura lantzeko material didaktiko adostu baten hutsunea zegoela ikusirik, *Noeren Ontzia* proiektua mamitu eta plazaratu du. Euskal kulturaren itsasoan zehar ibiltzeko tresna digitala da, eta denon eskura dago, Euskaltzaindiaren webgunean.

Noeren Ontziak sei atalotan banatuta ematen ditu testuak: Historia, Herri-kultura, Hizkuntza, Literatura, Ahozko Literatura, Gaurko Gizartea eta Abestiak.

Ahozko hizkera aztergai *Mintzola* mintegian

Euskaltzaindiak mintegi berria antolatu du Akademiaren Gipuzkoako Ordezkaritzan, hain zuzen, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Jon Sarasua eta Eñaut Agirre dira *Mintzola* egitasmoko zuzendariak, eta Sarasuak egin du hastapeneko mintzaldia. Bertan, mintegiaren helburuak azpimarratu ditu:

«*Mintzola* egitasmoak, bere aro berrian, euskarazko eguneroko hizketaren galdegaiak jarri ditu erdigunean. Hizkera informalak gure eguneko hizketajardunean zati handia hartzen du, eta gai horretan ataka bereziak bizi ditu euskarak. Gai horren inguruko ikerketa-ildoak abiarazi ditu *Mintzolak*: hizkera informala ezaugarritzetik hasi, beronen problematikak aztertzetik segi, berau landu eta hobetzeko metodologietatik pasa, eta hitanoa bezalako baliabideak aztertzeraino. Bultzatu beharreko bideetako bat ikerlari gazteei aukerak ematea da, gradu eta masterretako ikerketak sustatuz, eta ikertzaile harrobia sortuz. Horretarako arlo honetako ikerketak saritzeko deialdia egin genuen joan den ikasturtean ere, eta hainbat ikerketa saritu. Gaur, arlo honetan azken urtean egin diren edo martxan dauden ikerketak aurkeztu dira».

Guztira, zazpi ikerketa-lan eta *Arikala* ekintza-ikerketaren azken emaitzak aurkeztu dira. Hona hemen *Mintzola* deialdietan 2024an saritutako bost ikerketak:

- *Hitz funtzional goiztiarrak: haur euskaldun elebakarren hizkuntzaren jabekuntzaren azterketa* (Garazi Domínguez / Gradu amaierako lana).
- *Euskal hizkeren erritmoa* (Maddi Ormazabal / Gradu amaierako lana).
- *Hezkuntza formalean, aisialdi-antolatua eta ludikotasuna ardatz, euskarazko hizkera informalaren ikas-irakaskuntza: zailtasunen gainetik onura anitz* (Odei Guirado / Master amaierako lana).
- *Nokaren higitzea Ortzaizen* (Ana Jaunarena / Master amaierako lana).
- *Goizuetan noka berreskuratzen hasteko ikerketa-proiektua* (Oihana Lujanbio / Ikerketa monografikoa).

Mintzola deialdietan saritutako lanez gain, beste ikerketa interesgarri bat aurkeztu da gaur Tolare baserrian, hain zuzen, Maddi Kintanaren master amaierako lana (*Gazteen hizkera BAM eta inguruan*).

Azkenik, Ikastolen Elkartek, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) eta Euskaltzaindiak elkarlanean bideratutako *Arikala* lagunarteko euskara sustatzeko eta esku-hartzeen eragina neurtzeko ekintza-ikerketaren azken emaitzak aurkeztu dituzte Idurre Alonsok eta Xabi Lasak; eta, horrez gain, *Mintzolak* lagunduta Eñaut Agirre jorratzen ari den *Ahozko hizkeraren ezaugarriak* ikerlanaren lehen ondorioak plazaratu dira.

Olabide ikastolak eta Euskaltzaindiak lankidetza-hitzarmena sinatu dute

Olabide ikastolak eta Euskaltzaindiak lankidetza-hitzarmena sinatu dute Akademiaren Arabako Ordezkaritzan. Hitzarmenari esker, ondorengo bost urteetan Olabide ikastola eta Euskaltzaindia lankidetzan arituko dira ikastolako jardun akademikoan, eskolaz kanpoko jardunean, bai eta Olabide osatzen duen hezkuntza-komunitatearen eguneroko bizitzan ere, euskararen ezagutza, euskararen erabilera eta euskal kultura hedatzen duten programetan.

AZAROA

***Hitzak lege:* garrantzi historikoa izan duten euskarazko testu juridikoak, Donibane Garaziko Herriko Etxean**

Gaur, azaroaren 6an, estreinatu da eta 2024ko abenduaren 6ra arte izanen da ikusgai. Erakusketa honen helburua da eremu juridikoan urteetan euskaraz egin den ekarria gizarteratzea eta jendeari erakustea.

Euskaltzaindiak *Dibiña II* ikerlana aurkeztu du, *Gasteizko Toponimia* egitasmoaren azken liburukia

Gasteizko Toponimia egitasmoa zarratzen duen azken liburukia aurkeztu da Arabako hiriburuan. Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak duten lankidetzahitzarmenak eman duen azken emaitza da *Dibiña II*, ia 30 urteko ibilbideari amaiera ematen dion argitalpena. Agerpena udaletxean egin da, eta bertan izan dira María Nanclares Gasteizko Udalaren Euskara zinegotzia, Roberto González de Viñaspre euskaltzain oso eta Akademiaren Arabako ordezkaria, eta Elena Martínez de Madina ikertzaile, euskaltzain urgazle eta ikerlanaren egilea.

María Nanclares Gasteizko Udalaren Euskara zinegotziak erakundeen arteko aspaldiko elkarlana gogoratu du prentsaurrekoan. Bertoko toponimia berreskuratzeak daukan garrantzia ere azpimarratu du, eta, horrekin batera, ondare hori gizartearen esku jartzeko beharra. Roberto González de Viñasprek

azken hamarkadetan Gasteizko Udalak emandako laguntza sendoa eskertu dio Maria Nanclaresi. *Gasteizko Toponimia* egitasmoaren zuzendaria ere bada González de Viñaspre. Ildo horretan, haxe nabarmendu nahi izan du euskaltzain arabarrak: «Proiektu handi bati amaiera ematen dion liburukia dugu begi-eskuetan. Egitasmo honen altzora bildutako bederatzi liburuki mardul hauek gaurko herritarrontzat informazio-bilduma bikaina osatzen dute, eta bihar-etzikoentzat legatu jori bezain baliotsua dira».

Ikerlan praktikoa

Egitasmoak urteetan eskatu duen landa-lana Elena Martínez de Madina ikerlari eta euskaltzain urgazleak egin du, Gasteizko udalerri osoko toponimia aztertu duela azken urteotan, hots, hiria bera eta 64 herri. Gaur, lan erraldoi horren bederatzigarren eta azken ahalegina aurkeztu da: *Dibiña II*. Esan bezala, egitasmo zabal honetan, hiriburuaz gain, Gasteizko beste 64 herriak ere sartzen dira: Malizaeza, Ubarrundia eta Langraiz merindadeetako lanak argitaratu ziren beste sasoi batean (4 liburuki); jarraian, Arratzua deritzonaren aldia iritsi zen (hiru liburukitan banatu zen ikerketaren emaitza), eta gaur Dibiñari dagokion bigarren CDa agertu da, liburuki itxuran.

Lanaren garrantzia argi geratu da, baina ikerlariak bestelako kontu bati erreparatu nahi izan dio, hain zuzen, egin duen lanaren erabilgarritasunari: «Proiektu honek ondorio praktikoak izan ditu, berreskuratu ditugun izenak auzo edo leku berriak izendatzeko erabili izan direlako sarritan, eta desitxuratuta zeuden toponimoak zuzentzeko ere baliagarria izan da».

Euskaltzaindiaren egitasmo erraldoi honen datu-baseak 400.000tik gora sarrera toponimiko ditu, bederatzi liburukietan 121.000 datu dokumental publikatu dira eta 13.086 sarrera toponimiko arautu.

Itxaro Borda, Miren Agur Meabe eta Paskual Rekalde, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kide berriak

Euskaltzaindiak osoko bilkura egin du gaur Bilboko Sociedad Bilbainaren egoitzan, eta bertan aukeratu du datozen lau urteetan Akademiaren jarduna gidatuko duen lantaldea. Bozketa egin ondoren, haxe erabaki dute euskaltzainek: Andres Urrutiak jarraituko du Akademiaren buru, eta bere ondoan izango dira

Itxaro Borda (buruordea), Miren Agur Meabe (idazkaria), Roberto González de Viñaspre (diruzaina), Miriam Urkia (Iker sailburua) eta Paskual Rekalde (Jagon sailburua) euskaltzain osoak. Beraz, Batzorde parekidea izango du Akademiak ondorengo lau urteetan, euskararen lurralde guztiak hartzen dituen, Itxaro Bordak Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeak ordezkatzeko dituen.

Hortaz, Zuzendaritzan lehendik aritu ez diren hiru kide berri izango dira (Itxaro Borda, Miren Agur Meabe eta Paskual Rekalde) eta beste hiru kidek utziko dute Akademiaren artezkaritza-organoa, hain zuzen, Jean-Baptiste Coyosek, Adolfo Arejitak eta Sagrario Alemanek.

ABENDUA

**Diputatuen Kongresuak eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu dute hizke-
ra juridikoan euskararen jakintza eta zabalkundea sustatzeko**

Euskararen Egunean, lankidetzak hitzarmena sinatu dute Espainiako Diputatuen Kongresuak eta Euskaltzaindiak. Akademiaren egoitzan izan da ekitaldia, eta bertan izan dira Francina Armengol Diputatuen Kongresuko presidentea eta Andres Urrutia euskaltzainburua, Akademiaren Zuzendaritzako kideekin batera.

Kongresuarekin gaur sinatutako lankidetzak hitzarmenak ere berebiziko garrantzia du, hizkera juridikoan euskarari buruzko prestakuntza, jakintza eta zabalkundea sustatzeko aukera berriak emango dituelako. Akordioak helburu bikoitza duela adierazi du Andres Urrutiak gaurko agerpenean: «Lehenengoko helburua sinbolikoa da, non Espainiako Estatuaren botere legegilearen ordezkariak eta Euskaltzaindiak, euskararen arloko erakunde aholku-emaile ofizialak denak, indarrak aitortu eta batzen dituzten Espainiako Kongresuan hizkuntza koofizialak erabiltzeko ofizializazioa edukiz hornitzeko. Beste alde batetik, benetako eragina dago, egunerokotasunean nabarmena izango dena: testu juridikoen ikuspegitik aurrera egitea, Espainiako Estatuak bere lurralde osoan egikaritzen dituen eskumen zabalei eragiten dieten lege-proiektuek korrelazioa izan dezaten Estatuak hizkuntza koofizialekin».

Euskaltzaindiak bi ikerlan aurkeztu ditu 59. Durangoko Azokan

Iñaki Iurrebaso soziologoak *Gako berrien bila: hHizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak* garatzen ikerlana aurkeztu du Talaia espazioan, eta beste horrenbeste egin du Luis Mari Zaldúa hizkuntzalariak bere azken lanarekin: *Antzinaroko sustrai indoeuroparreko jende izenak: Araba eta Nafarroako sartaldea*.

Iurrebasorekin batera agerpenean izan ziren Josune Irabien Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria eta Patxi Juaristi Euskaltzaindiko Sustapen batzordekidea. Halaber, Zalduak bere ondoan izan zituen Joseba K. Pérez de Heredia Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiaren zuzendaria eta Roberto González de Viñaspre Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko burua.

Erraimun Olabide euskaltzainaren euskarazko Biblia eskuragarri jarri du Euskaltzaindiak webgunean

Erraimun Olabide josulagun eta euskaltzain osoaren (Gasteiz, Araba, 1869 - Tolosa, Okzitania, 1942) euskarazko Biblia erabiltzaileen esku jarri du Euskaltzaindiak, Akademiaren webgunean eskegita. Olabideren Biblia bere belaunaldiaren goiburuaren ildoan kokatu behar da: *Baina nik, hizkuntza larreakoa, nahi haunat noranahikoa* (Lizardi, 1931). Beraz, euskara noranahiko bihurtzeko ahaleginean ondutako lana da hau. Horrek argitzen dizkigu egindako hautuak eta erabilitako moldeak. Ez zen hori izan Arantzazuko Biltzarraren ondotik (1968) Euskaltzaindiak hartu zuen bidea, baina egokia da idazlan erraldoi hau berreskuratzea, aztertzea, eta egokiro balioetsi eta baliatzea, gizartearen esku jarrita.

Beraz, Euskaltzaindiak webgunean jarri duena ez da edizio kritiko bat, helburua ez baita liburuaren orrialdez orrialdeko argazki hutsa eskaintzea, bilaketa-sistema eraginkor batez hornitzea baizik.

Argitalpen honek bi baliabide nagusi ditu:

- Liburuaren orrialdez orrialdeko argazkiak eskaintzea, azken buruan testuarekiko erabateko fideltasuna ziurtatzeko.

- Bibliaren kontsultan bilaketa-sistema erabiltzea, hots, aipuak liburuz liburu, kapituluz kapitulu eta txatalez txatal errazki aurkitu ahal izatea, adibidez, honela: (Lk 4, 1-9) [*Lukasen ebanjelioa*, 4. kapitulua, 1-9 arteko txatalak].

Olabideren bizitzako lan nagusia da katolikoen Biblia osoaren itzulpena, jatorrizko testuetatik abiatuta (hebreera eta grekoa). Dirudienez, 1921ean ekin zion lanari eta lehen emaitza 1931n argitaratu zen (*Itun Berria*). *Itun Zarra* 1937rako ia-ia amaituta zeukan lana, baina Gerra Zibilak haren lana eten zuen. Erbestera jo zuen eta 1942an hil zen, istripuz. 1955ean, josulagunek Olabideren Biblia argitaratzea erabaki zuten eta lana gauzatzeko ardura Patxi Etxeberria (1900-1989) josulagunari esleitu zioten, hura Txinatik etorrazazita.

1958an argitaratu zen *Itun Zâr eta Berria*, hots, orain Euskaltzaindiak sarean jarri duen liburua. Koldo Mitxelenak iruzkin sonatu bat egin zion *Egan* aldizkarian, euskararen historian aro baten amaiera eta beste baten hasiera adierazten duena: «Saioa egina dago. Ez dago bide horretatik Olabide baino gorago joaterik».

2024ko Ahots Baten sormen-egonaldia Lekarozen izan da

Mintzola egitasmoaren bidez egiten da sormen-egonaldiak euskarazko ahozko sorkuntzan dabiltzan gazteak elkartzeko, beraien artean harreman-sareak ehuntzeko eta adierazpide ezberdinak esperimentatzeko helburuz sortutako saioak dira.

Ilustrazioa, kantagintza, literatura, antzerkia eta bertsolaritza landu dira egonaldian, sortzaile hauen eskutik: Dom Campistron, Maite Larburu, Mikel Ayllon, Garazi Urkiola, Xabat Gallettebeitia eta Sarai Robles.

2024ko *Ahots Baten* sormen-egonaldia abenduaren 26tik 30era izan da, Lekarozko (Nafarroa) aterpetxean.

Klima-aldaketa da urteko hitza Euskaltzaindiarentzat eta UZEIrentzat

Klima-aldaketa ez da aurten sortutako kontzeptua: urteak dira askoren ahotan dabilela. Halere, azkenaldian, gero eta maiztasun handiagoz erabili da komunikabideetan, jendaurreko solasaldietan eta sare sozialetan.

Hiztegian adibide gisa lehenagotik jasota egon arren, **klima-aldaketa** esamoldea 2022ko urtarrilaz geroztik dago azpisarrera gisa *Euskaltzaindiaren Hiztegian*. ‘Lurreko klimaren ezaugarrien aldaketa, bereziki giza jarduerak eraginikoa’ adierarekin eta meteorologiaren arloko terminoa dela adierazten duen markarekin jaso du Euskaltzaindiak.

Aurten, gero eta ohikoagoak diren muturreko zenbait gertakari meteorologikok —hala nola lehorteak, uholdeek, poloetako izotz-geruza urtzeak edo batez besteko tenperaturaren gorakadak— areagotu egin dute klima-aldaketaren gaineko kezka. Besteak beste, aurtengoa inoiz izandako urterik beroena izango dela iragarri dute.

Eta, horrenbestez, albiste horietako askoren harira, protagonismo berezia eta etengabekoa izan du aurten hedabideetan eta bestelakoetan **klima-aldaketa** esamoldeak.

Gainera, horixe da erabilera zabalena duen terminoa, pareko beste esamolde batzuekin alderatuta.

Omenduak izan diren kideak eta Akademiak berak omenduak

Euskaltzaindiak Akademiaren domina eman dio Iñigo Urkullu lehendakariari

Lehenik, Akademiaren Zuzendaritzarekin batzartu da liburutegian. Bertan, Euskaltzaindiaren lan-ildoak eta helburu nagusiak laburrean azaldu dizkiote Zuzendaritzako kideek. Azalpenaren ostean, hainbat liburu eta agiri erakutsi dizkio Andres Urrutia euskaltzainburuak lehendakariari: Joanes Leizarragaren *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria* (1571), Axularren *Gero* (bigarren edizioa, 1700?), Anton Abadiak *Lore Jokoetan bildutako euskal kantak* eta Koldo Mitxelenak 1968an Arantzazuko bilkurari buruzko akta (eskuz idatzitakoa).

Ondoren, lehendakariak eta euskaltzainburuak agerraldia egin dute hedabideen aurrean. Iñigo Urkulluk zein Andres Urrutiak, bi-biek, azpimarratu dute erakundeen arteko elkarlana ezinbestekoa dela euskalgintzari hauspoa eta sendotasuna emateko.

Azkenik, Andres Urrutiak Euskaltzaindiaren domina eman dio Urkulluri eta *Gero* liburuaren faksimilea oparitu dio. Dominak haxe dio: «Iñigo Urkullu Lehendakariari Akademiaren alde egindakoengatik esker-erakutsiz».

Elena Martinez de Madina euskaltzain urgazleak jasoko du Urrezko Zeledon Saria

2023ko Urrezko Zeledon Saria eman diote Elena Martinez de Madina ikerlari eta euskaltzain urgazleari. Besteak beste, Euskaltzaindiaren *Gasteizko Toponimia* egitasmoaren arduraduna da Martinez de Madina.

Hain zuzen, Martinez de Madinak Gasteizko toponimia eta Euskal Herrikoa berreskuratzeko egindako lana saritu nahi izan dute. Saria ofizialki irailaren 10ean eman diote.

Baiona Hiriko Urrezko Domina emango diote Xarles Videgain euskaltzain emerituari

Abenduaren 3an eman diote medaila, Euskararen Nazioarteko Egunaren kariatara, Herriko Etxearen Saloi Handian egin den ekitaldian.

Xarles Videgain Baionan (Lapurdi) jaio zen, 1947ko ekainaren 30ean. Letretan doktorea da, eta Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasle emeritu Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatean.

Euskaltzain urgazle izendatua 1983ko martxoaren 25ean eta oso 2009ko martxoaren 26an. Euskaltzain emeritua da 2022ko uztailaren 22tik. *Baionan* izeneko sarrera-hitzaldia irakurri zuen 2010eko urriaren 30ean, bere jaioterrian bertan.

6. Jardunaldiak

Euskararen biziberritzea Ipar Euskal Herrian

«Euskaltzaindia sortze beretik kezkatu da euskararen erabileraz. Orain ere kezka bizia du, eta beti izango du ziurrenik. 2024an, euskara bidegurutzean da, eta erabakiak hartu behar dira, ahultze prozesua geldituko bada». **Andres Urrutia** euskaltzainburuak Baionan, ekainaren 21ean, «Euskararen biziberritzea Ipar Euskal Herrian» jardunaldiaren atarikoan esandako hitzak dira, baina hara batutako beste nornahiren adierazpena ere izan zitekeen. «Kausa justu baten alde bildu gara», gehitu dio horri Baionako auzapezaren laguntzaile **Yves Ugaldek**.

Jardunaldiak **Jon Sarasuaren** mintzaldia izan du ardatz, hark erabilitako kontzeptu eta metaforek zehar-lerro bat osatu baitute saio guztietan barna. Euskaltzaindiko Sustapen Batzordean **Sagrario Aleman** euskaltzainaren zuzendaritzapean lantzen ari diren analisia oinarritzat hartu, eta etorkizunera begirako ildo batzuk marraztu ditu Sarasuak, betiere puntu batetik abiatutik: XXI. mendeko ezaugarriek —digitalizazioa, gizarte likidoa, migrazioa...— galdera berriak ekarri dizkiote euskararen biziberritze prozesuari, baina ez zaie ikuspegi estrategikoz erantzuten. Horren harira, instituzio publiko zein gizarte erakunde guztiak interpelatzen dituen oharpen bat egin du kontsentsu eske: «Pentsa dezakegu 1960ko hamarralditik hona egin duguna ikaragarria izan dela, baina orain arte egin duguna egitearekin ez dugu aurrera egingo».

Sarasuaren aburuz, egiteke dagoena «etorkizunari begirako bisioa ekoiztea baino sakonagoa eta zailagoa da». Hain zuzen ere, iraganeko gakoak ezagutu, egungoaz diagnostiko zorrotza osatu eta hamarraldi batzuetarako ametsa proiektatzea baitakar langintza horrek. Gainera, «kontu handiz, eta errealismoa eta utopia nahasiz» jardutea eskatzen du, eta kolektiboan egin beharrekoa da.

Egun gertatzen ari denaz mintzatzeko, «bitasuna» eta «dibergentzia» aipatu ditu Jon Sarasuak. Ohiko adibide batera jo du hori azaltzeko: «Batzuek botila erdi beteta ikusten dute, eta besteek erdi hutsik. Baina kontua ez da erditik behera

ala erditik gora dagoen. Kontua da botilak baduela zuloa». Zailtasunak zailtasun, aukera-leiho bat badela uste du, batetik, hiztun-kopuruan oro har gora egin delako, eta, bestetik, bidean ikasi egin delako: «Klase politikoa konbentzitzeko eta gizarte sektore zabalagoa geureganatzeko abagunea izan liteke».

Hainbat puntu aipatu ditu, aurrera begirako aurreikuspenen garrantzitsuak direlakoan. Hasteko eta behin, «gizarte-aldaketarako utopia bat taupatzen duen indarra» behar dela esan du. Horretarako, gizarte-mugimenduaren dimentsioa elikatu beharko litzateke, «ikuspegi politiko besarkatzaile batekin». Bestalde, gizartea eta komunitatea bereizi ditu. Lehena toki jakin batean bizi den jende multzoa litzateke, eta bigarrena zerbait komuna —kasu honetan, hizkuntza— dutenen multzoa. Bi kontzeptuak bereiztearekin batera, lotu ere egin zituen: «Gizarte-politikak behar dira, baina baita komunitate estrategiak ere».

Kontakizunaren garrantziaz mintzatu da jarraian, behin-behineko helmuga zehaztuko lukeen narratibaz, alegia, eta «monolitikoa izatetik urrun, ñabardurez josia» izan beharko duela esan zuen, betiere tokia, ingurua eta beste zenbait faktore aintzat hartu behar direlako. Datozen hamarraldietako ibilbidean, ametsa birpentsatzeko eta doitzeko premia ere nabarmendu du Sarasuak hainbat galdera haizatzuz: «Zer litzateke Euskal Herri euskalduna? Zer litzateke normalizazioa? Funtzio guztiak euskaraz egiteko helburua ongi formulatuta dago?».

Etorkizuna planifikatzeko ahaleginean, eskala handiko apustuak egin beharra aurreikusten du Sustapen Batzordeak. Besteak beste, corpusean, helduen eta administrazio publikoen euskalduntzean, kulturgintzan, teknologian eta inguru digitalean edota etorkinen harrera linguistikoan. Sarasua: «Uste dugu horrek anbizio handiagoz jokatzeko eskatuko diela gobernuari, eta inbertsio handiagoak egin beharko dituztela».

Hezkuntza ere birpentsatzeko arloa litzateke: «D ereduak ez du esperotako emaitzarik ekarri. Euskal hiztun osoak sortzea da helburua, bai kalitatez, bai eta borondatez ere; hau da, motibazioa duten pertsonak behar dira».

Plano praktikoago batean, eskualdeko hedabideen estrategia martxan jartzea komenigarri jo du: «Gertuko komunikazioan euskarak lidergoa har dezake». Sarasuarentzat eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordearentzat «tokiko komunitate-ehuna ekoiztea eta behetik gorako kulturgintza komunitarioa eratzea gako garrantzitsuak dira, gizarte hiperindibidualizatu honetan».

Sarasuaren bisioan ez da Euskal Herri euskalduna ageri datozen hamarraldietan, baina euskaldun osoen nukleo sendo bat osatzea eta berorri funtzio-sorta garrantzitsu bat ziurtatzea lortzeko modukoa izan liteke.

Ipar Euskal Herriko ikuspegitik, **Amande Anin** Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) misio kargudunak soziolinguistikari heldu dio, 2050era begirako panorama zein izan litekeen azaltzeko ahaleginean. Datuen arabera, hitzunen kopurua emendatu egingo da Ipar Euskal Herrian, baina ehunekoa ez da alde handirik nabarituko. Lurralde derik lurralde erreparatuz gero, Lapurdik mantendu egingo luke oraingo oreka. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, apaltzera joko lukete, bai kopuruak, bai eta proportzioak ere.

Irakaskuntzatik eratorritako datuen bidez, bi garapen-hipotesi egin dituzte soziolinguistek. Batek 27.000 euskaldun gehiago aurreikusten ditu 2050eko epean, eta guztira populazioaren % 26ko proportzioa osatuko litzateke (horietarik erdia baino gehiago, 16-34 adin-tartean). Bigarren hipotesia baikorragoa da, 40.000 hitzun irabazi, eta populazioaren % 30ean finkatuko luke euskaldunen multzoa. Kasu horretan ere, proportziorik handiena 16-34 adin-tartekoa izanen litzateke (% 61).

Amande Aninek ohartarazi bezala, aipaturiko datuek «gaitasun hipotetikoa» erakutsiko lukete, eta ez dakarte argibiderik hizkuntzaren erabilerari buruz, ez eta hitzun horien kalitateari buruz ere. Datozen urteetan egin beharreko ahalegina grafikoki azaltzeko, eskailera mekanikoaren metafora baliatu du: «Orain artekoa, beheantz datorren eskailera mekaniko batean gora egitea bezalakoa izan da. Aurrerantzean, eskailera mekaniko hori azkartu egingo denez, ahaleginak ere azkartu egin beharko dira».

Hipotesiekin batera, esperientzia lurtarragoak ere eskaini ditu jardunaldiak. **Elorri Arin Elizagoien**, **Titto Berbeder** eta **Peio Jorajuria** Euskal Konfederazioko kideek, eta **Aines Dufau** Ikas Pedagogia Zerbitzuko zuzendariak, haurtzaindegietako egoera larria eta euskarazko guneak gehiago zabaltzeko ezina erakutsi dute besteak beste, Konkolotx haurtzaindegia egoeratik abiatuta. Hitz gutitan esanda, haurrak euskal estrukturan hezteko eskaera badago, baina ez zaio erantzunik ematen. Peio Jorajuria: «Haurtzaindegietan bezala aisialdian ere, frantses gune bat sortzea gutxiengo baten alde aritzea da, baina herriko etxe gehienek hautu hori egiten dute, herritarrek euskarazkoa nahiago duten arren». Gizartean lan handia egiten dela eta jendea borroka horretarako prest dela ere nabarmendu zuen: «Administrazioen ardura hartze hori falta da».

Aines Dufauk energia-trantsizioarekin parekatu du euskararen afera, bai larrialdi egoeragatik, bai zeharkakoa edo transbertsala izan beharko lukeelako, zokoratuta jarraitu beharrean.

Zehar-lerro bat izan eta kulturarekin bat eginda agertu. Horixe bera nabarmendu dute **Itxaro Bordak**, **Eneko Gorrik**, **Eneko Bidegainek** eta **Marie-Andrée Ouretek** ere, bigarren mahai-inguruan. Baieztapen horren ilustragarri, kulturak Ipar Euskal Herrian darakutsan bizitasuna aipatu du Mari-Andrée Ouret Bilketa atariko arduradunak: «Kultur ekintza bizi hori plazan ari da garatzen, pastoralak, kabalkadak, baina gainera, baita musika kontzertuak eta jaialdiak ere, eta horiek guztiek sekulako lotura sortzen dute euskararekin». Euskarari heltzeko modu hori «biziki erakargarria eta berritzailea» dela azpimarratu du, naturalki sartzen delako. «Euskal kulturak badu zorte hori: gazteak biltzen ditu inguruan, eta berriz lotzen dira euskarari».

Plazara kooperatibako Eneko Gorrik xenofobiari heldu dio, eta zenbait estereotipo jarri ditu zalantzan, bereziki euskararen ezina etorkinen gain jartzeko joera: «Motibazioak aztertzen direlarik, euskaldunekin biziki zaila izan da hautua, lotsa barneratua zutelako, eta kanpotik etorritakoek ez dute hori. Urteko 3.000 jende etortzea ez litzateke mehatxua, administrazioak horretarako antolatuko balira».

Administrazioen izenean, hain zuzen, **Xabier Parrilla** (Baionako Herriko Etxeko Hizkuntza Politikako arduraduna), **Maider Behoteguy** (Departamenduko kontseilari eta EEPko lehendakaria), **Andde Sainte-Marie** (Akitania Berria eskualdeko kontseilaria) eta **Antton Curutcharry** (Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariordea) aritu dira, nor bere erakundean egiten denaz.

«Aurrera ala atzera goaz? Gako berrien bila» jardunaldia

Aurrera ala atzera? Gako berrien bila leloaren haritik, Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak, abenduaren 18an, topaldia antolatu dute hainbat adituren eskutik, euskararen egoeraren eta bilakabide soziolinguistikoaren inguruko gako berriez eztabaidatzeko.

Iñaki Lurrebaso EHUko Soziologiako doktore eta UEMAk ikerlariaren hitzaldi nagusiarekin abiatu da topaldia. *Gako berrien bila: hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak* garatzen doktoretza-tesian, Lurrebasok euskararen egoera eta bilakaera jorratzen ditu, demolinguistikaren ikuspegitik. Durangoko Azokan aurkeztu zuen soziologoak Euskaltzaindiaren eta Eusko Jaurlaritzaren eskutik plazaratu zuen ikerlana.

Tesi hau euskal demolinguistikak duen tresna-multzoa zabaltzeko eta hobetzeko sormen-saiakera da. Saiakera horretan, hizkuntza gutxituen gainean dagoen jakintza soziolinguistikotik abiatuta, nazioarteko jarduera demolinguistikoa inspirazio-iturri hartuta eta irudimenari eraginda, euskararen gaineko hiru eragiketa estatistiko nagusik (Hegoaldeko zentsuak, hizkuntzen erabileraren kaleko neurketak eta inkesta soziolinguistikoak) adierazle berriak sortzeko zer-nolako aukerak eskaintzen dituzten ikertu da. Eta hainbat adierazletan gauzatu dira aukera horiek. Saiakera horren haritik, egilea ahalegindu da eremu akademikotik haratago euskararen egoeraren ezagutzarako elementuak eta ikuspegi berriak eskaintzen. Gure hizkuntzak gaur egun duen egoeraren erretratu zorrotza egin du Lurrebasok.

Ondorioak gazi-gozoak dira, Lurrebasok gaurkoan azaldu duenez. «Ditugun datu eta inkesta guztiak ikusita, lehenengo ideia da minorizazio-egoera gorrian gaudela, eta minorizazio-egoera larri horrek badakar galerarako joera», esan du hitzaldiaren hastapenean Lurrebasok. Bigarren ezaugarri bat ere aipatu du, baikorragoa: «Komunitate gutxitu gehienekiko bereizten gaituen ezaugarri nabarmena da gure

komunitateak hizkuntzarekiko atxikimendu handia duela. Datu demolinguistikoek hori berresten dute: hiztunek eroso zaiena baino gehiago erabiltzen dute euskara, hizkuntzarekiko lotura handia dutelako. Gainera, belaunaldi berriei hizkuntza transmititzeko ahalegin handia egiten da gurean, baina hori ere ahultzen ari da azken urteotan. Edozein kasutan, esandakoa: minorizazio-egoeran gaude, baina hizkuntzaren aldeko bulkada sendoa daukan herria gara».

Bestelako gai batzuk ere aztertu ditu EHUKo soziologoak bere tesian, esaterako, arnaguneen garrantzia: «Hizkuntza baten osasuna zein den begiratzerakoan, garrantzitsua da ikustea zer-nolako testuinguru geografiko errealek egiten duten hizkuntza horren alde. Hau da, zein eremutan den berezkoa hizkuntza horren aldeko dinamika. Arnaguneak dira horiek. Eta gure errealitatea da horrelako eremuek duten pisua oso txikia dela; Euskal Herriko biztanleriaren % 4 baino ez da bizi horrelako eremuetan, eta azken urteetan ahultzen ari dira arnaguneak. Aurrera begira, eremu horiek indartu beharko lirateke».

Usteak ustel

Orain arte euskal gizartean errotuta zegoen uste bat ere zapuztu du Iurrebasok: «Nazioarteko soziolinguistikan lantzen diren hiru ardatz nagusiak dira gaitasuna, erabilera eta atxikimendua, eta orain arte gurean egon den ikuspegia izan da hizkuntza-gaitasunean indartsu gaudela baina erabileran ahulago, eta sarritan jendearen atxikimendu edo konpromiso faltari egotzi zaio kontu hori. Landutako datuek, ostera, esaten digute oinarritzko argazkia alderantzizkoa dela: motibazioa badagoela baina hizkuntza-gaitasunean ahul gaudela».

Gaur egungo argazkia gazi-gozoa izanik, euskalgintzari bulkada berria eman behar zaiola esan du Iurrebasok: «Ez gaude indarberritze-prozesu argi batean, baina ezin da esan galera nabarian gaudenik ere; hor gaude, ez atzera ez aurrera. Halako argazki bat atera zait niri behintzat. Egoera ikusita, uzten baditugu gauzak bere horretan joaten, nahiko argi ikusten da galera-prozesu batean eroriko garela berriz. Hortaz, bizi dugun egoeraz jabetu eta euskararen aldeko apustu berri bat egin beharko genuke».

Andres Urrutia euskaltzainburuak eta **Mireia Zarate** Sabino Arana Fundazioaren presidenteak jardun dute hasiera-ekitaldian; partaide eta ikusleei ongietorria egin eta Iurrebasoren tesiaren pisua nabarmendu dute biek. Ondoren,

mahai-ingurua eta solasaldia antolatu dira. Mahai-inguruan **Miren Azkaratek** (euskaltzain osoa), **Jokin Azkuek** (HABEko zuzendaria) eta **Jon Sarasuak** (Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta euskaltzain urgazlea) parte hartu dute; solasaldian, berriz, **Erramun Osak** (Euskaltzaindiko idazkariordea), **Eneko Bidegainek** (Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta euskaltzain urgazlea) eta **Oskar Zapatak** (TAUPAko Nafarroako koordinatzailea).